

**EUSKADIKO DEMOKRAZIARI
ETA HERRITARREN
PARTE-HARTZEARI BURUZKO
LIBURU ZURIA**

- ERANSKINAK -

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

**PERTSONA HELBURU
COMPROMISO CON LAS PERSONAS**



I.	ERANSKINA. Partaidetzaren erregulazioa. Euskal Herri Administrazioaren lege-proiektua	3
II.	ERANSKINA. Euskal osasun sistema publikoan herritarren partaidetza sustatzea	6
III.	ERANSKINA. Herritarren parte-hartzeari lotutako nazioarteko eta tokiko jardunbide egokiak.....	12
IV.	ERANSKINA. Liburu zuriaren lantze-prozesua eta lortutako produktuak.....	37
V.	ERANSKINA. Terminoen glosarioa	170
VI.	ERANSKINA. Partaidetzari buruzko bibliografia	174
VII.	ERANSKINA. Liburu Zuriaren lantze-prozesuan parte hartu duten erakundeak eta pertsonak	176



I. ERANSKINA. Partaidetzaren erregulazioa. Euskal Herri Administrazioaren lege-proiektua

I. ERANSKINA. Partaidetzaren erregulazioa. Euskal Herri Administrazioaren lege-proiektua

Eusko Jaurlaritzak 2014ko irailaren 16an onartutako Euskal Herri Administrazioaren lege-proiektuak herritarren partaidetza arloko erregulazio aurreratua txertatzen du V. tituluan. Horren helburua gai publikoei buruzko erabakiak herritarrekin eta interes-esparru desberdinetako ordezkartza-taldeekin batera hartu ahal izatea da.

Erregulazio horretan, programa eta politika publikoen zehaztapenean, politiken eta zerbitzu publikoen kalitatearen ebaluazioan, eta xedapen orokorren lanketan parte hartzeko eskubidea begiesten da. Era berean, jarduketa-proposamenak eta iradokizunak egin eta araudi-ekimenak sustatzeko eskubidea jasotzen da. Horretarako, herri-ekimen legegilean oinarritutako prozedura bat erabiltzen da, sinadurak edo elkertasuna jasoz, eta hura erregelamendu berri bat eginez amaitu daiteke ekimenaren azterketa zorrotz bat egin ostean.

Partaidetza-prozesuetan zein pertsonak eta erakundeak parte hartu ahal izango duten zehaztu behar da aurretiaz, eta benetan nork parte hartu duen argitaratu behar da gardentasun osoz: pertsonak, irabazi-asmorik gabeko erakunde kolektiboek, erabaki publikoetan eragiteko xedearekin lan egiten duten interes-taldeek edo beren jarduera Euskadiko Autonomia Erkidegoan garatzen duten hausnarketa-talde akademiko nahiz ikerketa-taldeek.

Horrez gain, partaidetza sustatzeko neurriak aurreikusten dira gizalegezko ekimenetan laguntzeko erremintak eta sentsibilizazio- nahiz prestakuntza-ekintzak erabiliz; izan ere, balio publikoaren sorkuntzan baterako sorkuntza, kogestioa eta berrikuntza sustatzea izango da ekimen horien eta herritarren arteko asoziazionismoa sustatuko duten ekimenen xedea.

Partaidetza-prozesu bakoitzean dagozkion kanalak, gailuak eta baliabideak ezarri beharko dira, betiere planaren, programaren edo proiektuaren garrantzia edo konplexutasuna aintzat hartuta. Edonola ere, honako hauek bermatu beharko dira:

- Gauzatuko diren partaidetza-ekimenei buruzko aldez aurretiko informazioa, baita horien helburuei eta irismenari, parte hartzeko moduei eta benetako ekarpena ahalbidetuko duen balorazio-irizpen bat osatzeari buruzko informazio garrantzitsua ere.
- Administrazioak jarrera irekia eduki beharko du behaketen eta proposamenen aurrean, eta behar bezala zaindu beharko du parte hartzera xedaturiko momentuan beren eskura jarritako baliabideak eta proposamenak aintzat hartzen direla.
- Prozesuan parte hartu duten pertsonen nahiz erakundeen, horiek egindako ekarpen nagusien, eta adostu diren elementuen edo eztabaidatu eta hausnartu diren elementuen gardentasuna.
- Egindako ekarpenak kontuan hartzeko eta partaideei amaieran hartutako erabakiaren berri emateko konpromisoa.

Azkenik, legeak *gobernu irekiko plataforma* arautzen du administrazioaren eta herritarren arteko interakziorako etengabeko gune gisa. Hura ekintza publikoaren kudeaketa partaidekidetura xedaturik egongo da, eta informazio publiko garrantzitsua, herritarren ekarpenak, herri-administrazioako erabakiak hartzen dituzten pertsona arduradunen ikuspegiak eta denon ongizatean eragiten duten herritarren ekimenak erakutsiko dira, baita Interneteko beste sare eta ingurune batzuetan agertzen diren herritarren kezkek ere, horiek guztiak agenda publikora txertatzeko helburuarekin. Datuak eta erremintak partekatu eta herritarrek modu librean eta doan berrerabili ahal izateko formatuetan helaraziko dira.



II. ERANSKINA. Euskal osasun sistema publikoan herritarren partaidetza sustatzea

II. ERANSKINA. Euskal osasun sistema publikoan herritarren partaidetza sustatzea

0. SARRERA

Herritarren partaidetzan eta prozesu parte-hartzaileetan aurrera egiteko Eusko Jaurlaritzaren helburu nagusiarekin bat etorritik, eta Euskadira Demokraziari eta Herritarren Partaidetzari buruzko Liburu Zuriaren ikuspegi orokorra aintzat hartuta, **Euskal Osasun Sistema Publikoak herritarren partaidetza sustatu nahi du**. EAEko Antolamendu Sanitarioaren Legearen arabera, herritarren partaidetza Euskadiko osasun-sistemaren printzipio informatzaileetako bat da, unibertsitatearekin, elkartasunarekin, zuzentasunarekin, zerbitzuen kalitatearekin eta eraginkortasunarekin batera.

Horrela, 2013-2016 aldirako proposatutako **ekintzen ardatz zentrala pertsonen osatzen dutela** zehazten da Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren ildo estrategikoetan, eta partaidetza haren lehentasunen artean jasotzen da. Osakidetza 2013-2016 aldirako ildo estrategikoetan eta 2013-2020 Osasun Planean ere helburu eta ekintza zehatzak planteatzen dira herritarren partaidetza sustatzeko.

Nazioartean, **pazienteen partaidetza gero eta presenteago dago gaur egungo osasun-sistemen orientazioan**. Termino orokorretan, gero eta nabarmenagoa da pazienteen parte-hartzeak osasun-erantzukizuna hobekien eragin dezakeela^{1,2}, arretaren kalitatea eta pazienteen segurtasuna hobetzen lagun dezakeela^{3,4} eta arreta sanitarioa efizienteagoa izaten eta kostua zaintzen lagun dezakeela⁵. Dena

¹ Patient-centered care for the 21st century: physicians' roles, health systems and patients' preferences; R. Epstein, R. Street. 2008

² What The Evidence Shows About Patient Activation: Better Health Outcomes And Care Experiences; Fewer Data On Costs; JH. Hibbard, J. Greene. 2013

³ Effectiveness of strategies for informing, educating, and involving patients; A. Coulter, J. Ellins. 2007

⁴ Patient Participation: current knowledge and applicability to Patient Safety; Y. Longtin et al. 2010

⁵ Building the business case for patient centered care. PA Charmel, SB Frampton. 2008





den, oraindik zaila da gai horren inguruko ebidentzia garbi bat lortzea. Zailtasuna "osasan arloko partaidetza" kontzeptuaren izaera orokorrak eta proposatutako esku-hartzeen eta lortutako emaitzen arteko harreman zuzena ezartzeko behar den denborak eragiten du, hein handi batean.

Gainera, zerbitzu-erakundeen **governantzan eta osasun-politiken diseinuan** nahiz garapenean partaidetza komunitarioa handitzeak, demokrazia parte-hartzailearen eta etika hiritarraren irizpideei erantzuteaz gain (bereziki garrantzitsua osasun-sistema publikoetan), herritarren premietara hobeto egokitutako osasun-zerbitzuak diseinatzea eta martxan jartzea eragingo luke. Horrenbestez, partaidetzak osasun-emaitzak hobetzea eta pertsonak paziente, herritar edo pertsona erabiltzaile gisa egin ditzaketen eskaerei hobeto erantzutea eragin dezake.

Edonola ere, denok ez dugu partaidetza modu berean interpretatzen, eta horregatik, **haren irismena hobeto zehaztu behar da**. Hori zehaztea oso zaila izan daiteke, partaidetza oso "aterki" termino zabala baita; gainera, hark hainbat kontzeptu hartzen ditu barne, eta askotan antzeko beste termino batzuekin nahasten da.

Herritarren partaidetzari dagokion kontzeptu hori argitzeko bidean, azken urteetan partaidetza zenbait mailatan egituratzea proposatzen duten eredu teorikoak garatu dira nazioartean. Oro har, honako hauek dira maila horiek: pazienteek osasun-sistemarekin duten harreman pertsonalean oinarritzen den partaidetza (erabaki partekatuak hartzea, norbere zaintzak, osasun arloko alfabetatzea eta abar), osasun-politiketako partaidetza komunitario edo sozialagoa, eta osasun-zerbitzuetako erakundeen antolakuntza-diseinuan eta governantzan gehiago esku hartzea eta zerbitzuak eskaintzen laguntzea. **Partaidetzaren ikuspegi multidimentsional bat da**, eta hura abian jartzeko maila desberdinetan lan egin behar da, plano teorikotik praktikora igarotzeko urratsak zehaztuz eta errealitatea planteatu denera hurbiltzeko jarduketak abiaraziz. Arestian adierazi den moduan, EAEn maila horietako partaidetza sustatzeko hainbat proposamen egin dira



dagoeneko Osasun Sailaren eta Osakidetzaren aldetik (legeria, gomendioak⁶, dokumentu estrategikoak, osasun-planak eta abar).

Ikuspegi estrategiko horretatik egiten den proposamen kontzeptuala herritarren partaidetza parte-hartze jarraitu gisa ikustea da: lehendabizi informazioa, gero kontsulta eta ondoren parte-hartzea, herritarrak ahalduntzea lortu arte; izan ere, horrela, ikuspegi paternalista bertan behera utziko dugu, pazientearekiko informaziotzat hartzen baitu herritarren parte-hartzea. Ahalegina egiten jarraitu behar da herritarrek beren osasunarekiko kontzientzia eta konpromiso handiagoa izan dezaten, eta horren ondorioz, eragile aktibo bilaka daitezten osasun-zerbitzuak zehazten, antolatzen eta hobetzen.

Herritarren partaidetza sustatzeko hasierako fase honen lehenengo urratsetako bat herritarren partaidetza gisa identifika daitezkeen Euskal Osasun Sistema Publikoaren mekanismoak txertatzea izan da, horiek "mapa" batean islatuz (ikus 1. Osasun arloko herritarren partaidetza-mekanismoen mapa). Partaidetza bideratzeko ekimen eta mekanismo horiek osasun arloko profesionalen eta horien zerbitzu-elkarteen, pazienteen eta horien elkarten nahiz herri-administrazioaren beraren aldetik sortu dira. Mapa horrek ardatz gisa hartzen ditu partaidetza-maila (partaidetzaren jarraitutasunaren ideia hartzen du barne: informazioa, erabakiak modu bateratuan hartzea eta interesa duten kolektiboen arteko lankidetzak) eta partaidetzaren garrantzia (maila indibidualagoan, hori bereziki garrantzitsua baita pazientearen eta profesionalaren/osasun-erakundearen arteko harremanean, maila kolektiboagoan edo osasun-politiken makro batean, edo osasun-erakundeen zerbitzuak diseinatzeko eta hobetzen laguntzeko).

Ekimen horietako askok ibilbide luzea eta nolabaiteko heldutasuna dute dagoeneko, eta beste batzuk, ordea, duela gutxi abiarazi dira eta garatzeko potentzial handia dute oraindik; badira izaera berritzaile nabarmena duten eta

⁶ Aholku Batzordearen gomendioak euskal osasun publikoren gobernu onaren inguruan. Osasun eta Kontsumo Saila. 2012 (hemen eskuragarri: http://www.osakidetza.euskadi.net/r85-gkgnr100/es/contenidos/informacion/cbil_buengobierno/es_cbil/adjuntos/Buengobiernomarzo.pdf)




oraindik abian jartzea planteatu ez diren beste batzuk ere. Zentzu horretan, mapa itxi gabe dago oraindik, eta beraz, ekimen eta erreminta berriak txerta daitezke, tokiko izaera dutenak batez ere. Horiek Euskal Osasun Sistema Publikoan garatzen ari dira eta/edo partaidetza-prozesuetan sor daitezke.

Proposamen horretatik abiatuta, Osasun Sailaren eta Osakidetzaaren aldetik osasun arloko partaidetza-prozesuen dinamika bat sustatu nahi da 2015-2016 aldirako, betiere modu egituratuan, gardenean eta legitimatuan. Bertan, interesa duten kolektibo guztien iritziak jasoko dira (pazienteak, familiak eta pertsona zaintzaileak, hiritarrak oro har, paziente-elkarteak, osasun-langileak, zerbitzu-erakundeen arduradunak, kudeaketa politikoaren eta/edo legegilearen arduradunak, beste hornitzaile batzuk eta abar). Horrela, osotasuna eman nahi zaio ikaskuntzan eta aldaketa kulturean oinarrituriko prozesu esperimental honi, ibilbide luzeko prozesua izan arren.



HERRITARREK OSASUNAREN ESPARRUAN PARTE HARTZEKO MEKANISMOEN MAPA (OSATZEKO)





III. ERANSKINA. Herritarren parte-hartzeari lotutako nazioarteko eta tokiko jardunbide egokiak

III. Eranskina herritarren parte hartzeari lotutako nazioarteko eta tokiko jardunbide egokiak



elkarrekin eraikiz cocreando valor público

Herritarren parte-hartzeari buruzko nazioarteko jardunbide egokiak

Sarrera



Dokumentu honetako esperientzien bitartez, Liburu Zuriaren arabera balio publikoaren sorrera optimizatzen duten parte-hartzearen hiru dimentsioetan erreferentzia arrakastatsuak aurkeztuko ditugu. Dokumentuaren egiturari dagokionez, alde batetik, lehenik, "parte hartzeko ereduari" buruzko erreferentzia orokorrak aipatuko ditugu, hau da, botere publikoaren eta herritarren-sektore sozialaren arteko botere-harremanak nola egituratzen diren; bestetik, estrategikotzat jotako 5 eremuetan (Osasuna, Ingurumena, Ikaskuntza, Gizarte Kohesioa eta Garapen Ekonomikoa) erreferentziazkoak diren esperientziak; eta bukatzeko, aipatzeko modukoak diren beste zenbait kasu azalduko ditugu.

Irizpide horiek kontuan izanik, munduan izan diren eta soilik teknologian oinarritzen ez diren esperientzia garrantzitsuenetako zenbait aipatuko ditugu; izan ere, gure ustez, teknologia bide bat edo tresna bat baita, ez helburua. Horregatik, aipatutako erreferentzia horietako askoren kasuan, parte-hartzearen ingurune presentzialak eta web inguruneak uztartzen dira.

Hiru dimentsioak fitxa bakoitzaren eskuinaldean aipatuko ditugu; honako hauek dira:

Politikan parte hartzea

Parte-hartze politikoa, betiere politika publikoak diseinatu, planifikatu, monitorizatu eta ebaluatzeko xedez administrazioaren eta herritarren arteko interakzioetik sortzen den parte-hartzetat hartuta. Parte-hartze / lankidetzat publiko – pribatuaren dimentsio horrek eraginkortasun politikoa du ardatz eta izaera estrategikoa du: zer egin eta zertarako.

Zerbitzuen diseinua

Parte-hartzea zerbitzuak diseinatzeko. Parte-hartze horren xedea zera da, herritarrek prestazio horren diseinuan, berriz definitzean eta/edo hobekuntzan duten ikuspegia eta esperientzia (zerbitzu publikoen erabiltzaile diren aldetik) txertatzea. Parte-hartzearen dimentsio horren ardatz efizientzia da eta operatiboagoa da: zerbitzu publikoak emateko prozesua nola operatibizatu, egokitu eta, azken batean, nola hobetu.

Lankidetzako parte-hartzea

Lankidetzako parte-hartzea, betiere balio publikoa sortzeko ekimen pribatutik sortzen diren ekimen eta lankidetzat hartuta. Erantzunkidetasun-inguruneak ere sustatzen dituzte alderdi publiko horren kogestioan: nola jardun lankidetzan batzeko. "



a) Parte hartzeko eredua



Islands Nationalforum (Islandia)



Helburua

Konstituzio berria sortzea

Laburpena

2010eko Foro Nazionala egun bateko hausnarketarako eta parte hartzeko foroa da, eta Islandiako 950 herritarrek parte hartzen dute egun horretan. Islandiako Parlamentuak Foro sortzeko eskaera egin zuen krisialdi ekonomiko nazionalari aurre egiteko; izan ere, 2008. urteko urrian herrialde horretako burtsak, monetak eta bankuek behera jo zuten eta horrek eragin zuen krisialdi ekonomiko nazionala. Parlamentuaren eskaera ikusita, Islandiako herritarrek konstituzio berriaren sorreran parte hartu behar zutela erabaki zuten gobernuko alderdiek. Foro Nazionalako parte-hartzaileak errola nazionaletik ausaz egindako laginketa batean aukeratu zituzten

Beste datu batzuk

- Zein izan zen aurreikusitako helburua?: Kontsulta
- Errekrutatze metodoa: ausazko hautaketa
- Parte-hartzaileen arteko interakzio mota: eztabaida, elkarriketa, hausnarketa
- Erakunde antolatzaile mota: komunitatean oinarritutako antolaketa
- Erakunde finantzaile mota: gobernu nazionala
- Metodoak: herritarren konferentziak
- Hasieran, prozesua oso arrakastatsua izan zen, baina gorte gorenak batzar konstituziogilea eratzeko hauteskundeak bertan behera uzteko erabaki eztabaidagarria hartu zuenez, ezin izan zen ahal osoko benetako batzar konstituziogilerik eratu

Informazio gehiago

<http://www.participedia.net/en/cases/icelandic-national-forum-2010>

Irismena

✓ Nazionala

Prozesu mota

✓ Presentziala

P
O
L
I
T
I
K
A
N

P
A
R
T
E

H
A
R
T
Z
E
A

5



BürgerForum 2011 (Alemania)



P
O
L
I
T
I
K
A
N

P
A
R
T
E

H
A
R
T
Z
E
A

Helburua

BürgerForum 2011 foroa abiarazteko arrazoia hauteskundeetako parte-hartzearen beherakada izan zen, bai eta hautesleen eta funtzionario hautetsien arteko aldea handitu izana ere

Laburpena

BürgerForum 2011 foroan ez zen arazo zehatzik aztertu; aitzitik, herritarrei parte hartzeko aukera eskaini zitzaie eta Alemaniako gizarteak dituen premia handieneko arazoak ez ezik, konponbideak ere identifikatu ahal izan zituzten. Hiru helburu zituen. Lehenik, herritarrengan inspirazioa eragin nahi zen, politikarekin eta demokraziarekin ilusio handiagoa izan zezaten. Bigarrenik, herritarri ahots bateratua emateko diseinatu zen proiektua, eta ahots hori gobernuaren maila guztietan entzuteko. Azkenik, herritarren parte-hartzeak demokrazia indar dezakeela erakutsi behar zuen.

Beste datu batzuk

- Zein izan zen aurreikusitako helburua?: Kontzientzia publikoa areagotzeko eta gaitasun indibidualak garatzeko kontsulta
- Errekrutatze metodoa: Guztientzat irekita, Ausazko hautaketa
- Parte-hartzaileen arteko interakzio mota: eztabaida, elkarriketa, hausnarketa
- Erakundeei emandako babes motak: gobernu nazionala
- Espero ziren emaitzak ez zituzten lortu, kasu askotan, proposamenak ez zirelako bideragarriak; alabaina, eskualdeko foroetan, tokiko erabakiak hartzeko garaian herritarren parte-hartzea handiagoa izatea lortu zuten

Informazio gehiago

<http://www.participedia.net/en/cases/b-rgerforum-2011>

Irismena

✓ Nazionala eta eskualdekoa

Prozesu mota

✓ On line eta Presentziala

6



In Action with Citizens! Learning Communities for Local Citizens' Participation (Holanda)



P
O
L
I
T
I
K
A
N

P
A
R
T
E

H
A
R
T
Z
E
A

Helburua

Gobernuaren eta herritarren arteko harremana alda dadin eragitea eta sustatzea; ondasun erkidearen jabetzaren gaineko balantzea leheneratu egin behar zen. Herritarrak gehienak ezer egin gabe, zain geratzen ziren Estatuaren eta gobernuen nahiz politikoen arazo publikoen aurrean; konponbide guztien zain, parte hartu gabe

Laburpena

17 ikaskuntza-komunitate eratu zituzten programan, eta 12 esperimendu berri burutu zituzten horietan. Holandako 430 komunitateetatik, guztira 100 komunitatek parte hartu zuten programan, 180 funtzionarioekin. Parte-hartzaile guztiek ebaluazio oso positiboa egin zuten, batik bat, artearen egoeraren eta herritarrak ondasun publikoan tartean sartzeko metodoen inguruan tokiko hainbat gobernutan borrokan dabilzan profesionalak elkartzea lortu zelako.

Beste datu batzuk

- Errekrutatze metodoa: Guztientzat irekita
- Zein izan zen aurreikusitako helburua?: Kontsulta, Kontzientzia publikoa handitzea
- Errekrutatze metodoa: ausazko hautaketa
- Parte-hartzaileen arteko interakzio mota: eztabaida, elkarriketa, hausnarketa
- Erakunde antolatzaile mota: gobernu nazionala
- Metodoak: Partaidetzako aurrekontua, partaidetzako demokrazia
- Herritarren parte-hartzearen gaia tokiko gobernuaren agendan txertatu zen azkenean.

Iturria

<http://www.participedia.net/en/cases/action-citizens-learning-communities-local-citizens-participation>

Irismena

✓ Nazionala

Prozesu mota

✓ Presentziala

7





Leefbaarheidsbudget Participatory Budgeting (Holanda)



P
O
L
I
T
I
K
A
N

P
A
R
T
E

H
A
R
T
Z
E
A

Helburua

Partaidetzako aurrekontua; auzo edo kale bateko bizi-kalitateari dagokionez, auzo-ekimenei malgutasunez eta azkar erantzuteko, udalean oinarritzen da. Horretaz gain, herritarrek norberaren auzoko bizigarritasuna hobetzeko prozesuan parte hartzea sustatu nahi da.

Laburpena

Utrecht udalerriak partaidetzako aurrekontua eskaini zion hamar barrutietako bakoitzari; tokiko komunitatearentzat hausnarketarako gune izateko sortu zen, esplizituki, erakundea. Utrecht udalerrian bizi den eta/edo lan egiten duen edonork du prozesuan parte hartzeko aukera. Herritar eta enpresaburu bakoitzak barrutiko gerenteari aurkez diezaioke bere ekimena; kasu gehienetan, gerente horrek ebaluatzen ditu proposamenak

Beste datu batzuk

- Zein izan zen aurreikusitako helburua?: Kontsulta (hausnartze-prozesuko aholkularitza)
- Errekrutatze metodoa: Guztientzat irekita
- Erakundeei emandako babes motak: Tokiko gobernu
- Erakunde antolatzaile mota: Eskualdeko Gobernu
- Metodoak: Partaidetzako aurrekontua
- Hainbat udalerrian lau proiektu pilotu egin dira eta, lau horietatik, proiektuak bi kasutan lortu zuen arrakasta. Harrezkero, leefbaarheidsbudget-eko kontzeptua adibidetzat hartu izan da Herbehereetako beste hainbat udalerrian

Informazio gehiago

<http://www.participedia.net/en/cases/leefbaarheidsbudget-participatory-budgeting-utrecht-netherlands>

Irismena

Eskualdekoa

Prozesu mota

Presentziala

8



e-People (South Korea)



P
O
L
I
T
I
K
A
N

P
A
R
T
E

H
A
R
T
Z
E
A

Helburua

Proiektua bi prozesutan txertatu da: alde batetik, administrazio elektronikoa garatzeko buruzko eztabaida elektronikoa, herritarren proposamenen bultzada eta posta bidezko eskaerak uzartzen ditu; inkestaren arabera, Hego Korea lehen postuan kokatu zen 2013. urtean; eta bestetik, ustelkeriaren aurkako borrokaren prozesuan

Laburpena

E-people atari eleanitza da eta Hego Koreako gobernu kanpoko 303 erakunderen gai politiko garrantzitsuei buruzko eztabaida elektronikoa, herritarren proposamenen bultzada eta posta bidezko eskaerak uzartzen ditu; administrazio zentralaren erakundeak, tokiko erakunde autonomoak eta bestelako erakunde publikoak ere atarian sartuta daude. e-People atariaren bitartez, herritarrek hainbat gairi buruzko iritzia eman dezakete: administrazioaren manei desleialari, beren eskubide eta interesen urraketari, erakundeak eta politikak hobetzei buruz; horretarako, beste hainbat funtzionalitateen artean, on line leiho bat dago txertatuta.

Beste datu batzuk

- Zein izan zen aurreikusitako helburua?: Kontsulta (hausnartze-prozesuko aholkularitza)
- Errekrutatze metodoa: Guztientzat irekita
- Parte-hartzaileen arteko interakzio mota: eztabaida, elkarriketa, hausnarketa
- Erakunde antolatzaile mota: Gobernu nazionala
- Kexak eta eskaerak prozesatzeko denbora % 40 murriztu da
- Jasotako iradokizunen kopurua % 200 handitu da
- Gogobetetze-maila % 70 handitu da.

Informazio gehiago

<http://www.participedia.net/en/cases/e-people>

Irismena

Nazionala

Prozesu mota

On line

9



Ministerio Irekia (Finlandia)



P
O
L
I
T
I
K
A
N

P
A
R
T
E

H
A
R
T
Z
E
A

Helburua

Filandiako gobernuak kode irekiko web-plataforma bat sortu du, eta legeak egiten parte hartu nahi duten herritar guztientzat elkargune izatea du xede.

Laburpena

Kasu guztietan, legeak herritarren ekimenetik abiatzen dira eta plataformaren proiektua herritar boluntarioetan oinarritzen da. Legeak mikro-egiteko sistema hori Finlandiako konstituzio berria sartzen da. Herritarrek batek bere proposamena Parlamentuan aztertzea/bozkatzea nahi badu, sei hilabetean 50.000 herritarren babesu lortu behar du. Herri-ekimen batek laguntza ekonomikoa jasotzen badu antolatzeko, gardentasuna baliatzearen, dirua norik eman behar duen jakinarazi behar du 1.500 € baino gehiagoko ekarpenen kasuan

Beste datu batzuk

- Erakunde sustatzailea: Finlandiako gobernuak
- Gai-esparrua: Crowdsourcing, e-government, open government, gardentasuna
- Lurralde-esparrua: Herrialdea, Errepublikan parlamentarioa. (5,3 milioi biztanle)
- Ekimenaren bitartez boluntariotzari eman nahi zio garrantzia; izan ere, haien ustez, herritarrek lortu behar dute gauzak gertatzea.

Informazio gehiago

http://www.oidp.net/?eID=BCN_OIDP_Public_Files::ajax_Methods&function=DOWNLOAD&ref_type=20&ref_ID=140&ref_lang=ES

Irismena

Nazionala

Prozesu mota

On line

10



69 Eskualde Legea: Eskualdeko eta tokiko politikak egiteko parte-hartzea sustatzeari buruzko arauak. (Italia)



P
O
L
I
T
I
K
A
N

P
A
R
T
E

H
A
R
T
Z
E
A

Helburua

Herritarren parte-hartzea sustatzeko legea garatzea

Laburpena

2007. urtean, Toskana eskualdean 69 Eskualde Legea onartu zen. Lege horren arabera, eskualdeko erakundeek eztabaida publikoak egin behar dituzte, nahitaez, eskualdeko azpiegitura berriak gauzatu behar direnean. Bertan bizi diren herritarren eta hainbat modutara antolatuta dauden subjektu sozialen parte-hartzea sustatzen da: ekimen autonomo moduan, eskualdeko ekimenei egindako proposamen-ekarpen moduan, kontsulta-fase formalaren eskutitze moduan, eta eskualdeko politikaren efektuak egiaztatzeko laguntza moduan

Beste datu batzuk

- Erakunde sustatzailea: Toskanako eskualdea
- Legea ez da loteslea udalerrietzat, baina hala ere, zenbait udalerriren borondate politikoa ahalbidetu du eta gizarte-mugimenduei parte hartzeko eskubidea baliarazten lagundu die.

Informazio gehiago

http://www.oidp.net/?eID=BCN_OIDP_Public_Files::ajax_Methods&function=DOWNLOAD&ref_type=20&ref_ID=144&ref_lang=ES

Irismena

Eskualdekoa

Prozesu mota

On line

11



Mindlab (Danimarka)



Helburua

Zentroak herritarren ikuspegira hurbiltzen laguntzen dio administrazio publikoari, bai eta Co-Production prozesu batean bete-bete sartzeko ere edo, bestela esateko, "zerbitzu eta politika publiko berriak herritarrekin –ez herritarrentzat– sortzeko prozesu sistematikoan". Herritarrek gero eta gehiago jabetzen dira zeintzuk diren euren eskubideak, eta gero eta indar gehiago dute gogoratu eta gogoratu kontuak eskatzeko; testuinguru horretan, administrazioari herritar horiengana hurbiltzen laguntzen diote.

Laburpena

MindLab-ean, "herritarrek eta negozioak gizartearentzat konponbide berriak bilatzen inplikatzeko dira". Eragile horiek eta euren inguruneek "baliabideak dituzte eskura; erakunde publikoek gaitzaketen eronkez bestelakoei aurre egiteko moduko baliabideak"; kontua ez da herritarrek beti eta toki guztietan inplikatzeko politika publikoak diseinatzeko prozesuan, baizik eta elkarizketan beste eragile bat izatea lortu nahi da, eta are garrantzitsuagoa dena, elkarizketa hori "parekideen artean" izatea.

Beste datu batzuk

- Mundu osoan, estatuaren modernizazioarekin eta berrikuntza publikoarekin lotutako erakunderik ospetsuenetako bat da.
- MindLab proiektuan hiru ministeriotako funtzionarioekin lan egiten da: Enpresa eta Hazkunde Ministerioa, Hezkuntza Ministerioa eta Enplegu Ministerioa, betiere Ekonomikoa eta Herrizaingo Ministerioarekin lankidetzan.
- Danimarkako agentzia honek sustatzen duen Design Thinking ereduari esker, herritarrek herritar izateko aukera ez ezik, herri diren aldetik zuzen-zuzenean eragingo dieten politika publikoak sortzeko prozesuan parte hartzeko aukera ere izaten dute.
- Danimarkako elikagaigintza-sektorea bultzatzeko baterako estrategia diseinatzeko prozesua.
- Danimarkako Ogasunarekin batera jardutea zergak ordaintzen hasi diren gazteei ordaintzeko sistema errazteko.

Informazio gehiago

<http://mind-lab.dk/en/>

Irismena

✓ Nazionala

Prozesu mota

✓ On line eta Presentziala

12

P
O
L
I
T
I
K
A
N

P
A
R
T
E

H
A
R
T
Z
E
A



The Citizens' Panel of Valenciennes (Frantzia)



Helburua

Hauteskundeetan izan ezik, ahotsik ez duten herritarrei ahotsa ematea; horretarako, hiriko bizimoduan ahalik eta gehien txertatzeko ahalegina egin da.

Laburpena

Herritarren panela tresna berritzailea da partaidetzako demokrazian, eta horri esker, herritarrek hiriko bizimoduan gehiago parte hartzeko aukera izaten dute. Bertan bizi diren guztiak parte har dezakete, nahi izanez gero; ekimen honetan, tokiko bizimoduarekin lotura duten gaiak buruz norberaren ikuspuntua aldizka adierazteko baliabide guztiak eskaintzen dira, aldizka eskaintzen diren galdera-sorta laburrei emandako erantzunen bitartez.

Beste datu batzuk

- Ikerketa horiek erakunde independente batek kudeatzen ditu
- Indargunea: parte hartzeko ohiturarik ez duten herritarrei zabaltzen zaiela
- Tokiko bizimoduarekin lotura duten gaiak buruzko hitz egiten da, aldizka, haientzat
- Erantzun guztiak anonimoak izaten dira beti

Informazio gehiago

<http://www.valenciennes.fr/fr/minisites/vie-municipale/votre-mairie/panel-citoyen.html>

Irismena

✓ Tokikoa

Prozesu mota

✓ On line eta Presentziala

13

P
O
L
I
T
I
K
A
N

P
A
R
T
E

H
A
R
T
Z
E
A



Havering: E-Petition (Erresuma Batua)



P
O
L
I
T
I
K
A
N

P
A
R
T
E

H
A
R
T
Z
E
A

Helburua

Kontseiluak konpromiso iraunkorra hartu du jendearen ikuspegia entzuteko eta horren arabera jarduteko.

Laburpena

e-Petition bat zera da, sinaduran on line jasotzen diren eskaera bat da. Horri esker, eskaerak eta informazio lagungarria hartzaile potentzial askoz ere gehiagorengana iristen da, paperezko eskaera tradizional baten aldean. Norbanakoek, taldeek eta komunitateko elkarteek Kontseiluak egiten duen lanean parte hartzeko modua izaten da eskaera bat egitea edo horretan parte hartzea. Interes publikoko gaiak zinegotziekin partekatzeak aukera du jendeak. Behar bezala beteta dauden eskaerak Kontseiluan aztertuko dira, paperezkoak egiten diren bezalaxe.

Beste datu batzuk

- Havering-en bizi den, lan egiten duen edo ikasten duen edonork sinatu edo sor dezake eskaera bat
- Ez dago adin-mugarik; haur eta gazteek ere parte har edo sor dezakete eskaera bat.

Informazio gehiago

http://epetition.havering-public-i.tv/epetition_core/

Irismena

Eskualdekoa

Prozesu mota

On line

14



Curators of Sweden (Suedia)



Z
E
R
B
I
T
Z
U
E
N

D
I
S
E
I
N
U
A

Helburua

Proiektua Suediako Turismo Bulegoaren ekimena da; herrialdea herritarren bidez sustatzea du xede, Twitter baliatuta.

Laburpena

Suedia erabat aitzindari da proiektu honekin (ez dago antzeko aurrekaririk); bere Twitter-kontua herritarren esku utzi du eta, hartara, heritarrek herrialde-kontuaren aurkezle eta gobernatzaile, aldi berean, dira, demokraziaren adierazpen gorentzat har daitekeen proiektu batean. Astero, suediar batek @sweden kontua jasotzen du, zazpi egunerako eta berak bakar-bakarrik; kontua jasotzen duenak atzeritarrei Suedia bere ikuspegitik begiratuta ezagutarazteko aukera izaten du. Kontua jaso ahal izateko, herritar batek ezin du bere burua hautagai aurkeztu; beraz, hirugarrenek gomendatuta aurkeztu behar dira hautagaiak

Beste datu batzuk

- Izenburua: Suediak herritarren esku utzi du bere twitter-kontua
- Erakunde sustatzailea: Suediako Turismo Bulegoa
- Gai-esparrua: Participatory Community Management
- Ekimenak Cyber kategoriako sari ugari jaso ditu (Cannes edo Veneziako jaialdietan), berritzaile izateagatik.
- Holandak ere bide horri ekin dio

Informazio gehiago

http://www.oidp.net/?eID=BCN_OIDP_Public_Files::ajax_Methods&function=DOWNLOAD&ref_type=20&ref_ID=141&ref_lang=ES

Irismena

Nazionala

Prozesu mota

On line

15



b) **Jardunbideak, esparruaren arabera**



Hona hemen identifikatutako bost esparruak:

- Osasuna
- Gizarte-kohesioa
- Garapen ekonomikoa
- Ingurumena
- Ikaskuntza



**National Institute for Health and Clinical Excellence
Citizens Council (Erresuma Batua)**



Z
E
R
B
I
T
Z
U
E
N
D
I
S
E
I
N
U
A

Helburua

Ingalaterra eta Galeseko osasun-asistentzian posta-kodeen loteria esaten zioten hori zuzentzeko ezarri zen; izan ere, pazienteak toki baten edo bestean bizi zen arabera, tratamendu bat edo beste izango zuen eskura.

Osasuna

Laburpena

Osasunarekin lotutako programen ezarpenean eta erabakietan herritarrek modu aktiboagoan parte hartzeko aukera izan zezaten sortu zen Kontseilua, parte-hartze publikoa funtsezko elementua baita babes publikoa eta konfiantza eskuratzeko

Beste datu batzuk

- Zein izan zen aurreikusitako helburua?: Kontsulta
- Errekrutatze metodoa: Guztientzat irekita, kontratazio selektiboarekin
- Parte-hartzaileen arteko interakzio mota: eztabaida, elkarrizketa, hausnarketa
- Erakunde antolatzaile mota: Gobernu nazionala
- Metodoak: Herritarren Aholku Batzordea
- Oraindik martxan dago eta nazioartean ospe handia lortu du, jarraitu beharreko eredutzat hartuta.
- 2013. urtean, gizarte-arretaren arloan kalitate-estandarrak eta orientabiderako gidaliburuak argitaratzen hasi ziren

Informazio gehiago

<http://www.participedia.net/en/cases/national-institute-health-and-clinical-excellence-citizens-council>

Irismena
✓ Nazionala

Prozesu mota
✓ Presentziala

18



**Pis - "Programmiamo Insieme la Salute"
(Italia)**



Z
E
R
B
I
T
Z
U
E
N
D
I
S
E
I
N
U
A

Helburua

Egoera ahulean dauden pertsonen arazoak konpontzeko eta herritar guztien osasun-baldintzak hobetzeko konponbideak –sormenezkoak eta alternatiboak– aurkitzea.

Osasuna

Laburpena

PIS Osasunaren gizartearen dokumentua da, politika osasungarriak eta sozialak planifikatzeko dokumentua. Toskanako eskualdeko gizarte-osasunaren eremu bakoitzak bere Pis dokumentua du; Grossetoko eremuaren Salute Società dokumentuan, Integrato Piano di Salute 2012-2015 plan berria lantzeko prozesuan herritarrek txertatzea erabaki zen eta 150 herritarri baino gehiagori galdetu zioten zeintzuk diren lurraldeak dituen arazoak eta zer konponbide izan ditzaketen, euren ustez.

Beste datu batzuk

- Zein izan zen aurreikusitako helburua?: Baterako gobernuak, erabaki publikoak hartzea
- Errekrutatze metodoa: Guztientzat irekita
- Parte-hartzaileen arteko interakzio mota: eztabaida, elkarrizketa, hausnarketa
- Erakundeei emandako babes motak: Gobernu nazionala, eskualdeko gobernuak eta tokiko gobernuak
- Metodoak: Herritarren elkarrizketa
- Prozesua martxan dago oraindik. Azken proiektuak bozkatu egiten dira eta COESO Società della Salute de Grosseto Area erakundeak zabalduenak finantzatzen ditu

Informazio gehiago

<http://www.participedia.net/en/cases/pis-programmiamo-insieme-la-salute>

Irismena
✓ Eskualdekoa

Prozesu mota
✓ On line / Presentziala

19



Patient opinion (Erresuma Batua)



Helburua

Patient Opinion proiektuaren bitartez pazienteek jasotzen dituzten osasun-zerbitzuak hobetzen dira, webgunean ematen dituzten iritziei esker. Irlandara eta Australiara hedatu da.

Osasuna

Laburpena

Patient Opinion 2005. urtean abiarazi zen eta, orain, Erresuma Batuko irabazi-asmorik gabeko atzeraelikaduraren plataforma independente nagusia da osasun-zerbitzuetan. Kontua zera da, pazienteei sistema publiko britaniarrean jaso duten **asistentziaren kalitateari buruzko iritzia adierazteko** baliabide bat eskaintzea; datu horiek, gainera, hobekuntzak eragingo dituzten neurriak ezartzeko ere baliatu nahi dituzte. NHS (Osasun Sistema Nazionala) bera ere sartuta dago eta pazienteek webgunearen bidez egiten dituzten erreklamazioak aztertu ostean, iruzkin batekin erantzuten du edo hobekuntzak txertatzen ditu.

Beste datu batzuk

- Osasun-zerbitzu bat erabiltzearekin lotutako historia bat partekatu, argitaratu eta erantzun bat jasotzen da; hartara, zerbitzuak aldatzen lagun dakieke langileei, behar izanez gero.
- 600 erakunde baino gehiago daude izena emanda Patient Opinion-en webgunean; erakunde horrek ongi funtzionatzen du, zeren osasun-arloko eta gizarte-arretaren arloko erakundeek berehala ikus baitezakete informazio hori guztia webgunean eta, hartara, erantzuna lehenbailehen eman dezakete.

Informazio gehiago

<https://www.patientopinion.org.uk/>

Irismena

✓ Nazionala

Prozesu mota

✓ On line

L
P
A
R
T
E
-
H
E
R
T
A
Z
K
E
A

20



Caring together (Erresuma Batua)



Helburua

Asmo handiko programa honen xedea da osasun-arreta eta arreta soziala emateko modua aldatzea

Osasuna

Laburpena

Osasunaren arloko eta gizarte-arretaren arloko estamentu eta homitzaile guztiek bat egin dute Ekialdeko Cheshire-ko lurralde osoa integratuko duen zerbitzua lortzeko, guztion ongizatea hobetzearren kontsulta publiko baten bidez.

Beste datu batzuk

Hona hemen arretaren ardatzak:

- tartean sartutako guztientzat zerk funtzionatzen duen eta zerk ez duen funtzionatzen aztertzea
- esperientziak, jakintza eta informazioa partekatzea
- guztien arteko komunikazioa hobetzea
- arreta zerk eragozten duen jakitea, eta horren inguruan lan egitea nahiz integratzea
- jendeari zalantzak argitzea
- jendeari behar duen laguntza ematea zaintza bere kabuz egin dezan.

Informazio gehiago

<http://caringtogether.info/caring-together>

Irismena

✓ Tokikoa

Prozesu mota

✓ On line

L
P
A
R
T
E
-
H
E
R
T
A
Z
K
E
A

21



The 2010 UK Youth Parliament at the House of Commons (Erresuma Batua)



P
O
L
I
T
I
K
A
N

P
A
R
T
E

H
A
R
T
Z
E
A

Helburua

Gazteak kezkatzen dituzten gaiak eta haien iritzi politikoak ezagutzea eta artatzea, haien kezkak Londreseko Komunen Ganberan eztabaidatzeko aurkezteko aukera emanda

Gizarte-kohesioa

Laburpena

Erresuma Batuko Gazteen Parlamentua Londreseko Komunen Ganberan bildu zen, eta gazteen ustez herrialdeko bost kezka nagusiak direnak aztertu zituzten. Horren aurretik, Erresuma Batuko gazteek "on line" bozkatu zuten. Haien ustez eztabaida horretan ezinbestean landu beharreko gaiak 20ko zerrenda batetik, bost gai bozkatu zituzten eztabaidatzeko; hona hemen: lan-aukerak, sexu-hezkuntza, garraioa, unibertsitatea eta gerra. Komunen Ganberan izandako eztabaidaren eta antzeko beste batzuen bitartez, gazteek ez ezik, tokiko agintariak eta komunitateak ere lortu zuten onura.

Beste datu batzuk

- Zein izan zen aurreikusitako helburua?: Kontsulta
- Errekrutatze metodoa: Guztientzat irekita, kontratazio selektiboarekin
- Parte-hartzaileen arteko interakzio mota: eztabaida, elkarrizketa, hausnarketa
- Erakunde antolatzaile mota: Gobernu nazionala
- Metodoak: Herritarren Aholku Batzordea

Informazio gehiago

<http://www.participedia.net/en/cases/2010-uk-youth-parliament-house-commons>

Irismena

✓ Herrialdekoa / Eskualdekoa

Prozesu mota

✓ On line

22



Eztabaida Publikorako Batzorde Nazionala (Frantzia)



P
O
L
I
T
I
K
A
N

P
A
R
T
E

H
A
R
T
Z
E
A

Helburua

Agintaritza administratibo independente horren egitekoa herritarrei informazioa helaraztea da, bai eta erabakiak hartzeko prozesuan herritarren iritziak aintzat hartuko direla bermatzea ere: "Zuk hitza ematen duzu eta entzun egin behar zaizu".

Gizarte-kohesioa

Laburpena

Proiektu publiko edo pribatuak garatzeko prozesuan parte-hartze publikoa betetzen dela bermatzeaz arduratzen da; adibidez, interes nazionalako ekipamenduak edo garapena (errepideak, trenbideak, linea elektrikoak... sortzea), betiere arazo sozioekonomiko larriak badituzte edo ingurumenean edo plangintzan inpaktu esanguratsuak izan badituzkete. 2002. urteaz geroztik, txertatutako ehun proiektu baino gehiagori buruzko berrogeita hamar eztabaida baino gehiago antolatu ditu. Eztabaida publikoaren forma izan dezake. Garapeneko edo azpiegiturako proiektu handien nahitaezko ikerketa-fasea da; horri esker, herritarrek informazioa lortu eta euren ikuspuntua adieraz dezakete jarduteko proiektu horien garrantziari eta inpaktuari buruz.

Beste datu batzuk

Batzordearen ikuspegia lau printzipioren arabera bideratzen da:

- Tratu-berdintasuna (hitz egin nahi duen orok hitz egin dezake);
- argumentazioa (jarrera eta iritzi bakoitzak laguntza jaso behar du eztabaida eraikitzeko);
- gardentasuna (informazio guztiak egin behar du eskuragarri) eta
- neutraltasuna

Informazio gehiago

<http://www.debatpublic.fr/>

Irismena

✓ Nazionala

Prozesu mota

✓ On line eta Presentziala

23



Neighbors for neighbors (Estatu Batuak)



L
P
A
R
T
I
E
-
H
T
A
R
A
T
K
Z
E
A

Helburua

Auzotarrek in eta auzotarrentzat zerbait egin nahi duen jendea elkarren artean konektatzea eta ahalduntzea, eta neurriak hartzeko aukera izan dezaten baliabideak eskuratzen laguntzea.

Gizarte-kohesioa

Laburpena

Jende gehienak ez ditu auzotarrak ezagutzen eta ez du haiekin elkarreragiten, ez eta funtzionario publikoekin ere, eta ez dira jabetzen komunitateak eta gobernuak ezarritako baliabideez; ez dute konektatzeko, komunikatzeko eta lankidetzan jarduteko mekanismorik, eta horren ondorioz, zapuztuta eta gogogabe sentitzen dira. Abiapuntuko ikuspegia honako hau da: auzotarrek elkar ezagutzen duten auzoetan eta elkarrentzat lan egiten duten auzoetan zoriontsu eta seguru bizi dira, zerbitzuak eskura dituzte eta baliabideak partekatzen dituzte; beraz, motibatuta daude eta norberaren bizi-kalitatea hobetzen modu proaktiboan laguntzen dute.

Beste datu batzuk

- Auzotarrek finantzatzen dute
- Hona hemen abiapuntuko premisa: jendea ezagutzen baduzu, laguntza jasotzeko edo beste norbait zaintzeko aukera handiagoak dituzu
- Auzo-mugimendua sustatzea

Informazio gehiago

<http://neighborsforneighbors.org/>


Irismena

Tokikoa

Prozesu mota

On line

24



Board of Technology (Danimarka)



Z
E
R
B
I
T
Z
U
E
N

D
I
S
E
I
N
U
A

Helburua

Teknologiaren eremuan hartzen diren erabakiak bermatzen laguntzeko sortu da organismo hori

Garapen ekonomikoa

Laburpena

Teknologia Kontseiluak jende askorengana helarazten ditu proiektuak, garrantzi ekonomikoaren, demokratikoaren edo ingurumenekoaren arabera. Proiektu baten gaia herritar nahiz politikarientzat interesgarria izan daiteke, edo gai jakin bati buruzko kontzientziazio-maila handitzeko beharra egon daiteke. Gaiak teknologiarekin lotuta egon behar dute eta, oro har, gai polemikoek gatazkak eta zailtasunak eragiten dituzten erabakiak hartzeko garaian. Teknologiaren, gizartearen eta pertsonen arteko interakzioa argitzeari bereziki erreparatzen zaio.

Beste datu batzuk

- Zein izan zen aurreikusitako helburua?: Kontsulta
- Errekrutatze metodoa: Guztientzat irekita
- Parte-hartzaileen arteko interakzio mota: eztabaida, elkarrizketa, hausnarketa
- Erakundeei emandako babes motak: Gobernu nazionala
- Erakunde antolatzaile mota: Gobernu nazionala
- Hainbat proiekturen emaitzak laburbiltzen dituen txosten bat igortzen da Parlamentura
- Teknologia-gaien gaineko eztabaida eragiteko eta sustatzeko xedea duten argitalpenak

Informazio gehiago

<http://www.participedia.net/en/cases/board-technology-denmark>

Irismena

Nazionala

Prozesu mota

On line/Presentziala

25



Landshare. Connecting growers to people with land to share (Erresuma Batua)



Garapen
ekonomikoa

Helburua

Etxeko elikagaien zale diren pertsonak batzen ditu Landshare proiektuak; lur zati bat partekatu nahi dutenak eta produktuak lantzeko lurra behar dutenak harremanetan jartzen ditu.

Laburpena

2009. urtean sortu zenetik, 55.000 laborari eta laguntzaile baino gehiagoko komunitatea osatu da. Honako pertsona hauei zuzenduta dago: lurra landu nahi bai, baina non landu ez dutenei; partekatu nahi luketen lur zati bat dutenei; edo nola edo hala –dakitena partekatuta edo tresnak utzita– lagun dezaketenei; landu ahal izateko lur gehiago liberatzeko ideiarene alde daudenei, edo, jada elikagaiak lantzen ari badira, komunitatearekin bat egin nahi dutenei.

Beste datu batzuk

- Proiektuaren erabiltzaileak webgunean erregistratu behar dira eta 4 aukeretako bat hautatu behar dute:
- **Grower** (alegia, barazki eta frutak landu nahi dituen hautagaia)
- **Landowner** (edo lursail-jabea),
- **Land-spotter** (lursail baten berri baduena, baina lursaila behar ez bezala erabiltzen da)
- **Facilitator** (lurra landu nahi dutenei laguntzeko prest dagoena). Gaur egun, Landshare proiektuak 70 mila erabiltzaile baino gehiago ditu!

Informazio gehiago

<http://www.landshare.net/>
http://www.landcareonline.com.au/?page_id=3538

Irismena

Nazionala

Prozesu mota

On line

L
P
A
R
T
I
E
D
-
H
T
A
R
T
A
K
Z
E
A

26



Our Budget, Our Economy (Estatu Batuak)



Garapen
ekonomikoa

Helburua

Kaleko estatu batuarrei iritzia adierazteko aukera ematea; kasu honetan, Estatu Batuetako epe luzeko erronka fiskalen balizko konponbideak bilatzeari buruz.

Laburpena

AmericaSpeaks proiektuaren barruan, Estatu Batuetako 58 hiritan bilera nazionala egin zen eta 3500 herritar eztabaidan aritu ziren Estatu Batuetako epe luzeko erronka fiskalek izan ditzaketen balizko konponbideei buruz. Bileraren helburua sinple bezain zuzena zen; hain zuzen ere, parte-hartzaileek honako galdera honi erantzun behar zioten: "Amerikak nola egin behar dio aurre gero eta handiagoa den bere zor nazionalari?" Egunak aurrera egin ahala, gizarte-klase guztietako estatubatuarrek bildu eta euren baloreez hitz egin zuten, arazo horri konponbidea topatu nahian. Egunaren amaieran, parte-hartzaileek Washington-en dauden liderrei helarazteko mezuak idatzi zituzten.

Beste datu batzuk

- Zein izan zen aurreikusitako helburua?: Kontsulta
- Errekrutatze metodoa: Guztientzat irekita
- Parte-hartzaileen arteko interakzio mota: Eztabaida, Elkarrizketa.
- Erakunde antolatzaile mota: Gobernuz Kanpoko Erakundea
- Estatu Batuetan orain arte inoiz antolatutako hausnarketa publikoko esperimentu nazional handiena izan da

Informazio gehiago

<http://participedia.net/en/cases/our-budget-our-economy-united-states>

Irismena

Nazionala

Prozesu mota

On line / Presentziala

L
P
A
R
T
I
E
D
-
H
T
A
R
T
A
K
Z
E
A

27



Oregongo 1000 lagun (Estatu Batuak)



L
P
A
R
T
E
-
H
A
R
T
Z
A
I
L
E
N
D
I
S
E
I
N
U
A

Helburua

Bizi-kalitatea hobetzea hirian eta landa-ingurunean komunitate bizigarriak eratuta, familia-nekazaritza eta basoak babestuta, eta naturaguneak zainduta

Ingurumena

Laburpena

Oregongo 1000 lagun irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatua da; komunitate jasagarriak, nekazaritzarako lurrak eta basoak babestea eta naturaguneak nahiz baliabideak zaintzea defendatzen du, Oregon estatuan. Taldeak egiten duen lana hiru kategoria nagusitan banatzen da gaur egun: klimarako eta auzoetan komunitate bizien alde egitea, Oregongo landa-ekonomikoa sustatzea politiken bitartez, eta nekazaritza planifikatzea eta bultzatzea, Oregongo lurzorua erabileran etorkizuneko lidergoia sustatzeko ahalegina eginez. Taldearen egoitza Portland-en dago eta beste hiru eskualde-bulego ere baditu, estatu osoan lan egiteko hiri eta konderriekin, eta Oregongo legediarekin.

Beste datu batzuk

- Zein izan zen aurreikusitako helburua?: Bizi-kalitatea hobetzea
- Errekrutatze metodoa: Guztientzat irekita
- Parte-hartzaileen arteko interakzio mota: Negoziatzea

Informazio gehiago

<http://www.friends.org/about/our-focus>

Irismena

✓ Eskualdekoa

Prozesu mota

✓ Presentziala

28



Landscape Town Meeting (Italia)



Z
E
R
B
I
T
Z
U
E
N
D
I
S
E
I
N
U
A

Helburua

Paisaia-plana erabaki ostean –lurralde-bermeak bamean hartuta–, plana behin betiko onetsi aurretik esparu zientifikoko aditu profesionalekin eta herritarrekin eztabaida publikoa egin nahi izan zuen Toskanako eskualdeak.

Ingurumena

Laburpena

Parte hartuko duten 150 herritarrak aukeratzeko, Toskanako eskualdean garrantzi paisajistikoa dutelako bereziki hautatu ziren bost tokitan bizi direnen artean egin zuten hautaketa, norberak bere bizilekuari buruzko iritzia adierazteko aukera izan zezan. Proiektua ongi atera zedin, parte-hartzaileei ekarpenak egiteko eskatu zitzaizkien, sormena eta entzuteko ahalmena baliatuta. Helburua ez zen parte-hartzaile guztiak proposamenak egitea, baizik eta Toskanako paisaiaren kontserbazioaren eta eraldaketaren arazoarekin lotura duten iritzien aniztasuna aztertzea eta paisaiari buruzko euren pertzepzioak jasotzea

Beste datu batzuk

- Zein izan zen aurreikusitako helburua?: Kontsulta
- Errekrutatze metodoa: Guztientzat irekita, kontratazio selektiboarekin
- Parte-hartzaileen arteko interakzio mota: eztabaida, elkarrizketa, hausnarketa
- Erakundeei emandako babes motak: Tokiko gobernua
- Erakunde antolatzaile mota: Eskualdeko Gobernua
- Metodoak: Deliberazioa

Informazio gehiago

<http://www.participedia.net/en/cases/landscape-town-meeting-tuscany-italy>

Irismena

✓ Eskualdekoa

Prozesu mota

✓ Presentziala

29

Z
E
R
B
I
T
Z
U
E
N

D
I
S
E
I
N
U
A



Buona Mobilità (Italia)



Ingurumena

Helburua

Eskualdeko garraio-plan berria garatzea.

Laburpena

Partaidetzako proiektu honen helburu nagusiak honako hauek ziren: Planifikazioko aurreko Eskualdeko konferentziaren emaitzak parte-hartzaileei transmititzea; eskualdeko proiektu eta ekingen kalitatea hobetzea, administrazioaren eta herritarren arteko harremanari bereziki erreparatuta, herritar eta erakunde interesdunak hurrengo garraio-plana egiteko baliagarria izango den elkarri entzuteko prozesu batean inplikatzea; garraioarekin eta eskualdeko mugikortasunaren lotutako gai buruzko esperientziak, ikuspegiak eta iradokizunak biltzea, eta herritarrek garraio- eta mugikortasun-arazoen berri izan dezaten komunikazioko metodo onenak aukeratzea.

Beste datu batzuk

- Zein izan zen aurreikusitako helburua?: Kontsulta
- Errekrutatze metodoa: Guztientzat irekita
- Parte-hartzaileen arteko interakzio mota: eztabaida, elkarriketa, hausnarketa
- Erakunde emandako babes motak: Tokiko gobernua
- Metodoak: Herritarren elkarriketa
- Partaidetzako demokrazia erakunde-politikan txertatzeko saio berritzailea.

Informazio gehiago

<http://www.participedia.net/en/cases/buona-mobilit>

Irismena


Eskualdekoa

Prozesu mota

On line / Presentziala

30

L
P
A
A
R
T
I
E
D
-
E
H
T
A
Z
R
A
T
K
Z
E
A



High School Participatory Budget (Frantzia)



Ikaskuntza

Helburua

Eskualde-mailako partaidetzako lehen aurrekontua da Europan, bigarren hezkuntzako ikastetxeei dagokiena

Laburpena

Partaidetzako aurrekontu honen ezaugarri nagusia da parte-hartzaileei erabakiak hartzeko prozesuan benetako ahalmena eman zitzaiela, zenbateko garrantzitsu batean, hau da, bigarren hezkuntzako ikastetxeei zuzendutako aurrekontuaren guztizkoaren % 10. Partaidetzako aurrekontu horretan, eskualdeko bigarren hezkuntzako ikastetxe publiko guztiak (93) sartzen dira, eta 2008. urteaz geroztik, kontratupeko ikastetxe pribatu guztietara ere zabaldu da, eskaeraren arabera eta metodologia bereziarekin. Ikastetxe bakoitzeko ikasle, guraso, irakasle eta langile guztiak gonbidatzen dira «ikastetxean hobeto bizi eta lan egiteko» lehentasunezko zat jotako proiektuak eztabaidatu eta bozkatzera.

Beste datu batzuk

- Zein izan zen aurreikusitako helburua?: Erabaki publikoak hartzea
- Errekrutatze metodoa: Guztientzat irekita
- Parte-hartzaileen arteko interakzio mota: Negoziatzea
- Erakunde antolatzaile mota: Eskualdeko Gobernua
- Metodoak: Partaidetzako aurrekontua
- Eskualdeko jarduna demokratizatzea, batik bat, hezkuntza-politikaren esparruan.
- Eskualdeko administrazioa modernizatzea

Informazio gehiago

<http://www.participedia.net/en/cases/high-school-participatory-budget-poitou-charentes-france>

Irismena

Eskualdekoa

Prozesu mota

Presentziala

31



A Deliberative Poll on Education Policy in Northern Ireland (Erresuma Batua)



Ikaskuntza

Helburua

Ikasleen parte-hartzea oso txikia zenez, ezinbesteko bihurtu zen hezkuntza-politikan egokitzapenak egitea; hori egin aurretik, Ipar Irlandako Hezkuntza Sailak gurasoen iritzia aintzat hartzea eskatu zuen. Arau berri horiek sortzea zen helburua, lankidetzagiroan

Laburpena

Hezkuntza oso-oso zatikatuta egon da Ipar Irlandan. Erlijioarekin lotutako desberdintasunen ondorioz, komunitateko hezkuntza-joeren artean tentsioak sortu dira. Izen-emateen kopuruak jaisten ari zirenez, gubemua "hezkuntzaren azterketa estrategiko independentea" egiteko agindu zuen. Azterketa horretan, instalazioen eta baliabideen erabilera eskolen artean partekatzea komeni zela adierazi zen. Herritarrek gaiari buruz zer pentsatzen zuten jakitearren, hausnarketa-inkesta bat egitea erabaki zen. Lankidetzagiroan, hausnarketa-inkesta bat egin zen; ausaz hautatutako gurasoek erantzun zuten inkesta eta, gero, hausnarketa-egun batera gonbidatu zituzten

Beste datu batzuk

- Nor da ekimenaren antolatzaile nagusia?: Tokiko Gubernua
- Zein izan zen aurreikusitako helburua?: Kontsulta
- Errekrutatze metodoa: Guztientzat irekita
- Parte-hartzaileen arteko interakzio mota: Eztabaida, Elkarrizketa
- Hausnarketei esker, hezkuntza-sisteman aldaketak onartzearen aldeko jarrera areagotu zen.
- Hausnarketen ondoren, gurasoek Ipar Irlandako hezkuntza-sistema hobeto ezagutzen zuten.

Informazio gehiago

<http://participedia.net/en/cases/deliberative-poll-education-policy-northern-ireland>

Irismena

✓ Tokikoa

Prozesu mota

✓ Presentziala

L
P
A
R
T
E
-
H
A
R
T
Z
A
K
E
A

32



Ideas for global citizenship (Erresuma Batua)



Ikaskuntza

Helburua

Herritar-sare honen helburua zera da, hezkuntza formalaren eta ez-formalaren sektore guztietan eta ikaskuntza iraunkorrean eragitea, irakasleak, politikariak, gazteak eta helduen hezkuntzako langileak ere barnean hartuta

Laburpena

Garapenerako Hezkuntzan eta Eskoziaren bidez Herritartasun globalerako hezkuntzan inplikaturako norbanako eta erakundearen sarea. Ikaskuntza-prozesu aktibo horren bitartez, pertsonak euren bizitzaren eta mundu osoko pertsonen bizitzaren arteko loturak ulertzen dituzte, eta gure bizitzari forma ematen dieten indar ekonomikoak, politikoak eta ingurumen-indarrak hobeto ulertzen dituzte; hartara, elkarrekin lan egitea ahalbidetzen dieten trebetasun, jarrera eta balioak garatzen dituzte, aldaketa lortzearen eta euren bizimoduaren gidaritzak eskuratzearen, eta bidezkoagoa eta jasangarriagoa izango den mundua lortzen laguntzen dute, boterea eta baliabideak gehiago partekatuta.

Beste datu batzuk

- Garapenerako hezkuntzarekin eta herritartasun globalerako hezkuntzarekin konprometitutako pertsonen sarea, elkarri lagunduz eta informazio nahiz ideiak partekatuz
- Buletinen, webgunearen eta on-line aldizkariaren bitartez Eskozian, Erresuma Batuan, Europan eta nazioartean garrantzitsuak diren aldaketen berri ematen dute
- Egiten ari diren partekatze bilerak eta ekitaldiak, eta beste kide batzuekin lankidetzan jardutea proiektua lantzeko eta sustatzeko ideiei dagokienez

Informazio gehiago

<http://www.ideas-forum.org.uk/>

Irismena

✓ Nazionala

Prozesu mota

✓ On line eta Presentziala

L
P
A
R
T
E
-
H
A
R
T
Z
A
K
E
A

33



Schoolscope (Erresuma Batua)



Ikaskuntza

Helburua

Web-tresna horren bitartez, Erresuma Batuko eskolei buruzko informazio estatistiko konplexua ulergarri bihurtzen da. Schoolscope tresnari esker, Gobernuaren hezkuntzari buruzko datuak sinpleagoak, hurbilagokoak eta ulertzeko errazagoak dira Ingalaterrako guraso guztientzat.

Laburpena

Web aplikazioaren bidez, bilaketa eta konparazioak egin daitezke hainbat zentzoren artean, ikasleek irakasgaietan duten errendimenduaren arabera, edo jarreraren arabera. Erakunde sorta batek neurtzen du Ingalaterrako eskola bakoitza, eta horietako bakoitzak ikasleei eta eskolei buruzko neurketa estatistikoak eskaintzen ditu; Schoolscope aplikazioak datu konplexu horiek hartu eta jendeari eskaintzen dizkio begiratu bakarrean ulertzeko moduan, bisualizazioen eta mapa-tresnen bidez. Horretaz gain, eraikin bakoitza mapa batean irudikatuta agertzen da eta eraikinaren teilatuaren kolorea aldatu egiten da irakaskuntzaren "kalitatearen" arabera: teilatua berdea, horia edo gorria izan daiteke.

Beste datu batzuk

- Finantzazio pribatua
- Eskola bat ligako taulan betetzen duen postua baino gehiago da; eskola bat pertsonen komunitatea da. Webgunean egoera adierazteko ahalegina egiten dute, informazio-grafiko ulerterrazzen bitartez eskola bakoitzaren gogo-aldarteak laburtuz; gainera, gobernuak datuekin gehien egiten dituen txosten eta estatistikak ulertzeko bidea eskaintzen du.

Informazio gehiago

<http://berglondon.com/projects/schoolscope>

Irismena

Nazionala

Prozesu mota

On line

L
P
A
R
T
I
D
E
H
T
A
Z
R
A
T
K
Z
O
E
A

34



Where is my public servant? (Erresuma Batua)



Ikaskuntza

Helburua

WIMPS siglek zera esan nahi dute, "Non Dago Nire Zerbitzari Publikoa?". Gazteek gazteentzat egiten duten proiektua da. Ideia bat izan zen abiapuntu: zer egin dezakegu politika gazteentzat garrantzitsuago izan dadin? Politikariei herritarrentzat lan egiten dutela gogoraraztea hori lortzeko bide bat zela erabaki zuten. Gazteentzako gune hori sortu zuten gaien buruz hitz egin eta eztabaidatzeko, baina antolatzeko, kanpaina egiteko eta euren ikuspegia politikariei eta gainerakoei zuzenean adierazteko ere balio du, bai eta euren bizimoduan eragiten duten erabakietan eragina izateko ere.

Laburpena

Hasierako helburua honako hau zen: tokiko agintaritzarako, Ipar Irlandako Asanbladarako, Westminster-erako eta Europako Parlamenturako hautatutako ordezkariak identifikatzen eta haiekin kontaktatzen laguntzea gazteei. Proiektua handitu egin da eta, orain, zinema, kazetaritza... lantzeko trebetasunak ikasten ere laguntzen zaie gazteei. Esperientzia horri esker, gazteek eguneroko bizitzan lagunduko dieten trebetasunak eta konfiantza eskuratzen dute. WIMPS proiektua programan inplikatu nahi duen gazte orori zabalik dago.

Beste datu batzuk

- 2014ko Tech4Good sariketa nazionalean garaile izan zen, 'komunitatean inpaktua' kategorian
- WIMPS talde guztiek "entrenatzaile" boluntario baten laguntza izaten dute proiektu edo kanpaina bat pentsatu, diseinatu, ezarri eta abiarazteko.

Informazio gehiago

<http://wimps.tv/>

Irismena

Nazionala

Prozesu mota

On line

L
P
A
R
T
I
D
E
H
T
A
Z
R
A
T
K
Z
O
E
A

35



Beste jardunbide batzuk



Ireland Constitutional Convention (2012) (Irlanda)



P
O
L
I
T
I
K
A
N

P
A
R
T
E

H
A
R
T
Z
E
A

Helburua

Konstituzioa aldatzea

Laburpena

Politika berritzeko premiaren ondorioz, hausnarketako demokraziaren forma berriak sortu dira. Irlandan dinamika berri bat jaio da Konstituzioaren erreforma bat eztabaidatzeko: politikarien eta herritarren arteko konbentzio bat; herritarrak ausaz hautatzen dira, baina biztanleria ordezkatzeko moduan. 18 hilabetez eztabaidan jardun ostean, 2014ko apirilean zortzigarren eta azken txostena aurkeztu dute

Beste datu batzuk

- Zein izan zen aurreikusitako helburua?: Kontsulta, Baterako gobernua, Komunitatearen eraikuntza
- Errekrutatze metodoa: ausazko hautaketa
- Parte-hartzaileen arteko interakzio mota: eztabaida, elkarrizketa, hausnarketa
- Erakundeei emandako babes motak: Gobernu Nazionala, Erakunde akademikoa
- Erakunde antolatzaile mota: Gobernu nazionala
- Gaur egun, konbentzioa egiten ari da oraindik; beraz, ezinezkoa da emaitzak eta efektuak osorik neurtzea. Dena den, hasiera-hasieratik argi geratu da Parlamentua ez dagoela Konbentzioaren gomendioak onartzera behartuta.

Informazio gehiago

<http://www.participedia.net/en/cases/ireland-constitutional-convention-2012>

Irismena

✓ Nazionala

Prozesu mota

✓ On line



Arizona Voices (Estatu Batuak)



Helburua

Herritarrek politikan eta legegintza-gaietan gehiago parte hartzea

Laburpena

Arizona Voices online plataforma bat da; hain zuzen ere, Arizonako estatuaren legegintza-prozesuan parte hartzeko eta baterako sorkuntzako plataforma. Herritarrek aztergai diren lege-proiektuei buruzko iritzia eman dezakete, eta estatua hobetzeko ideia berriak aurkeztu. Parte hartu nahi duten herritarrek profil bat sor dezakete helbide elektronikoko batean oinarrituta edo Facebook-eko profilaren bitartez (sarrerako oztupoak murriztearren).

Beste datu batzuk

- Gai-esparrua: Online plataforma, legegintzaren arloko baterako sorkuntza
- Bi osagai nagusi ditu:
 - Legeak
 - Ideiak

Informazio gehiago

<http://www.azvoices.gov/>

Irismena

✓ Eskualdekoa

Prozesu mota

✓ On line

L
P
A
R
T
E
-
H
A
R
T
Z
E
A

38



Your Voice Your Choice (Erresuma Batua)



Helburua

Partaidetzako aurrekontua gai garrantzitsuenetarako: haur eta gazteak, egonkortasun ekonomikoa eta pertsona kalteberak

Laburpena

2009. urtean, Leicestershire Toguether-ek 20.000 £ esleitu zizkion komunitatearen 27 foroetako bakoitzari, partaidetzako aurrekontuaren prozesurako. Komunitatearen foroei 20.000 £ horiek baliatzeko ideiak sortzeko eskatu zitzaizkien, gai garrantzitsuenei zegokienez. Saioak hausnarketarako tailer moduan diseinatu ziren, esleitutako funtsak zertan gastatu erabakitzen laguntzeko Komunitatearen foroei. Ahalegin handia egin zen bileran ahalik eta jende gehienek parte har zezan bermatzeko.

Beste datu batzuk

- Zein izan zen aurreikusitako helburua?: Baterako gobernua
- Parte-hartzaileen arteko interakzio mota: eztabaida, elkarrizketa, hausnarketa
- Erakunde antolatzaile mota: Eskualdeko Gobernua
- Erakunde finantzatzaile mota: Eskualdeko Gobernua
- proiektuen ideia berriak, hausnarketarako eztabaiden bitartez.
- parte-hartzaile eta bazkideek ebaluazio oso positiboa egin zuten prozesuan erabili ziren pilotuetan.

Informazio gehiago

<http://www.participedia.net/en/cases/your-voice-your-choice>

Irismena

✓ Eskualdekoa

Prozesu mota

✓ Presentziala

P
O
L
I
T
I
K
A
N

P
A
R
T
E

H
A
R
T
Z
E
A

39



Praga E-Govt (Txekiar Errepublika)



P
O
L
I
T
I
K
A
N

P
A
R
T
E

H
A
R
T
Z
E
A

Helburua

Praga nazioarteko lider da e-government esaten zaionaren esparruan, lehenik, herritarrei erabiltzeko erraza den webgune bat eskaini dielako eta, bigarrenik, pribatutasuna eta herritarren parte-hartzea sustatzen duen webgunea delako

Laburpena

Gobernuarekin transakzioak egiteko eta elkarreragiteko garaian herritarren konfiantza areagotzearen, webgunearen erabilgarritasuna erraztu dute eta pribatutasun-politika oso irigarria eskaini dute. Gainera, webgunearen bitartez, herritarrek iritzia emateko aukera dute, bai eta administrazioaren edo hautetsien erantzunak jasotzekoa ere.

Beste datu batzuk

- Erakunde sustatzailea: Pragako udala
- Gai-esparrua: e-government, open government, gardentasuna
- Nazio Batuen arabera, Praga hiria bigarren postuan dago e-government webguneen bikaintasunaren sailkapenean

Informazio gehiago

http://www.oidp.net/?elD=BCN_OIDP_Public_Files::ajax_Methods&function=DOWNLOAD&ref_type=20&ref_ID=146&ref_lang=ES

Irismena

✓ **Nazionala**

Prozesu mota

✓ **On line**

40



Boston Youth Participatory Budgeting (Estatu Batuak)



P
O
L
I
T
I
K
A
N

P
A
R
T
E

H
A
R
T
Z
E
A

Helburua

Gazteek politikan parte-hartze oso bikia zutela, Bostongo udalak gazteen parte-hartzea sustatu zuen mekanismo berrien eta gazteek parte hartzeko esperientzia berrien bitartez; milioi bat dolarreko aurrekontua jarri zen gazteen esku, hiria hobetzeko eta eraberritzeko proiektuetarako.

Laburpena

Udalak proposatutako prozesuaren xede 12-25 urteko gazteak inplikatzeko izan zen, eskola, parke, liburutegi eta hiriko beste espazio publiko batzuetako inbertsioak diseinatu, bozkatu eta jarraipena egiteko garaian. Lehen fasean, prozesua diseinatu zen; gero, partaidetzako aurrekontua aurkeztu zen ofizialki, eta Zuzendaritza Batzordeak arauak erabaki eta prozesua planifikatu zuen. Prozesua abiarazitakoan, Bostongo gazteen ideiak biltzeko etapari ekin zitzaion. Jarraian, aldaketa-agenteei aurkeztu ziren ideia orokorrak proposamenean proiektu zehatz bihurtu zituzten, aurrekontu zehaztu eta txosten tekniko eta guzti.

Beste datu batzuk

- Erakunde sustatzailea: Proiektua Mayor's Youth Council (Alkatezaren Gazteria Kontseilua), Boston Centers for Youth and Families (Bostongo Gazteen eta Familien Zentroa) eta The Participatory Budgeting Project (PBP) gobernu kanpoko erakundearen lankidetzarekin gauzatu zen.
- Epea: 2014an lehen edizioa garatu zen.
- Gai-esparrua: Partaidetzako aurrekontua / partaidetzako aurrekontua online / gazteen parte-hartzea.

Informazio gehiago

http://www.oidp.net/?id=189&L=1&action=detail&OIDP_content_ID=320&language=ES

Irismena

✓ **Tokikoa**

Prozesu mota

✓ **On line / Presentziala**

41



Community Planning (Erresuma Batua)



Helburua

Zerbitzu publikoak hobetzea eta zerbitzu horiek erabiltzen dituztenen bizimodua hobetzea dira Eskoziako gobernuaren, tokiko gobernuaren eta Eskoziako beste erakunde publiko batzuen erronka garrantzitsuenak. Zerbitzu publikoek erabiltzaileen premiei erantzuteko esparruaren barruan jardutea du xede; horretarako, komunitateen premien arabera antolatzen da

Laburpena

Prozesuaren bitartez, erakunde publikoek komunitatearekin batera lan egiten laguntzen zaie, pertsonen bizimoduan benetako aldea eragiten duten zerbitzu hobek eskaintzeko eta planifikatzeko.

Hona hemen bi helburu nagusiak:

- Pertsonak eta komunitateak eurei dagozkien zerbitzu publikoek buruz hartutako erabakiak benetan gauzatzen dituztela ziurtatzea
- Erakundeek elkarrekin –ez bakoitza bere kabuz– lan egiteko konpromisoa hartzea, zerbitzu publikoak hobek lortzeko.

Beste datu batzuk

- Errekrutatze metodoa: Guztientzat irekita
- Parte-hartzaileen arteko interakzio mota: eztabaida, elkarriketa, hausnarketa
- Erakundeek emandako babes motak: Gobernu Nazionala, Tokiko Gobernuak, Komunitateen oinarritutako antolaketa
- Erakunde antolatzaile mota: Tokiko gobernuak
- Metodoak: Lankidetzako kudeaketa

Informazio gehiago

<http://www.participedia.net/en/cases/community-planning-scotland>

Irismena

✓ Eskualdekoa

Prozesu mota

✓ On line eta Presentziala



elkarrekin eraikiz

cocreando valor público

Herritarren parte-hartzeari buruzko tokiko jardunbide egokiak

L
A
N
K
I
D
E
T
Z
A
K
O

P
A
R
T
E
-
H
A
R
T
Z
E
A

Maixa



Eremua

Herritarren parte-hartzea

Helburua

- Udalak herritarren parte-hartzea garatzea
- Herritarrek parte hartzea
- Herritarren arazoak, gabeziak eta nahiak konpontzea

Metodologia

- Maixaren webean argitaratzea
- Komunikazioak, datu-baseetara
- Komunikazioak, komunikabideen bidez
- Bilerak udalarekin

Emaitzak/eragina

- Udala kontzientziatzea, berriro auzo-bilerak egiten has dadin
- Mugikortasuneko eta irisgarritasuneko arazo zehatzak konpontzea
- Azpiakutuen ospitalea sustatzea

Ikasketa-prozesua

- Bai, herritarren erantzukizunari dagokionez

Iruzkina eta informazio gehiago

- <http://maixa.kzcomunidades.net/es/html/>
- Web horretan Maixaren historia, filosofia eta lorpenak jaso dira. Bai eta herritarren mugimenduari buruzko material pedagogikoa ere.

Egoera

Jarraitu egiten du

Irismena

2009az geroztik, herri mailan

Berrikuntza-maila

Gutziz berria eta berritzailea da. Herritarren ekimenaren emaitza, erakunde publikoen parte-hartzerik gabe sortua

Transferigarritasuna

Herri guztiek izan behar lukete **gurearen antzeko** partaidetza-mahai bat.

Dibertsitatea

Norbanakoak, norbere izenean eta adinekoren elkarrekin ordezkaritza gisa

Lankidetzua

Bai

Gizarte zibilaren ekimenen kasuan, zer paper bete du administrazio publikoak?

Bat ere ez

L
A
N
K
I
D
E
T
Z
A
K
O

P
A
R
T
E
-
H
A
R
T
Z
E
A

BIKOnsulting S Coop



Eremua _____
Mota guzietako antolakundeak, benetan sinisten dutenak posible dela Guztion Ongirako izango den ekonomia mota bat egitea.

Helburua _____

- GOB Guztion Ongiaren Balantzea, antolakundeek ibilbide-orri bat sortu dezakete, balioak berreskuratzeko, hala nola justizia soziala, berdintasuna, ingurumenaren jasagarritasuna, gardentasuna eta parte-hartze demokratikoa.

Metodologia _____

- Guztion Ongiaren Ekonomia ezartzea GOB Guztion Ongiaren Balantzea tresna gisa erabilita.

Emaitzak/eragina _____

- Parte hartzen duten antolakundeen balantzea hobetzea eta GOEK GOBaren bidez proposatzen duen balantze soziala eta ingurumenekoarekin orekatzea.

Ikasketa-prozesua _____

- Argia; tresna eta eskuliburu guztiak kode irekian daude, nazioarteko web baten bidez.
- Guk kontsulta eskatzen digunarekin lan egiten dugu, eta antolakundeei metodoa ulertzen eta ezartzen laguntzen diegu.

Iruzkinak eta informazio gehiago _____
<http://www.bikonsulting.com/es/consultora-por-el-bien-comun-1-1.html>

Egoera _____
Jarraitu egiten du

Irismena _____
Globala

Berrikuntza-maila _____
Proposamenaren berrikuntza-maila hain da handia, non inkesta honetan ez baitago aukerarik ondo islatzeko hiru aukerak jarriko baikenituzke.

Transferigarratasuna _____
Sortu zenetik lau urte baino igaro ez diren arren, ia 20 herrialdetan erabiltzen da.

Dibertsitatea _____
Enpresak, udalak, alderdi politikoak, GKEak...

Lankidetzak _____
Eten gabe ari gara tresna berdiseinatzen; are gehiago, antolakundearen ezaugarrien arabera, nor berea diseinatzeko aukera ere ematen du.


Gizarte zibilaren ekimenen kasuan, zer paper bete du administrazio publikoak? _____
Bat ere ez

3

L
A
N
K
I
D
E
T
Z
A
K
O

P
A
R
T
E
-
H
A
R
T
Z
E
A

Web1.0 tailerra



Eremua _____
Zerbitzu publikoak Interneten

Helburua _____

- Erakunde publikoek Interneten duten presentzia hobetzea: web-orrietako informazioa, haien irisgarritasun- eta erabilgarritasun-maila...
- Erakustea posible dela beste begiratu eta ahots batzuen ekarpenak izatea, alde batetik, Interneteko presentzia hobetzeko, eta, bestetik, Interneten dauden zerbitzu publikoak hobeto erantzuteko erabiltzaileen igurikimen eta beharrei.

Metodologia _____
 Online: internauten ideiak eta hobekuntza-iradokizunak jaso ziren, kolektiboekin lan-saio batzuk antolatuta.
 Presentziala: hainbat egunetan, lehen ere horretan aritutako pertsona batzuk jasotako iradokizunak aztertu zituzten, eta erakunde publikoen Interneteko presentzia hobetzeko txosten bat eta gomendioen dekalogo bat prestatu zuten.

Emaitzak/eragina _____

- Gizarte zibilak bultzatutako proiektu honetara herritarrekiko feedback-a izatea eta haiekin lankidetzan jardutea interesatzen zitzairen erakunde publikoak biltzea.
- Ideiak eta iradokizunak aurkeztu zituzten pertsonak animatzea
- "Veni, vidi, wiki" filosofia hedatzea.

Ikasketa-prozesua _____
Bai

Iruzkinak eta informazio gehiago _____

- http://aulablog.wikispaces.com/file/view/Mentxu_taller_web10.pdf/30115753/Mentxu_taller_web10.pdf
- http://mentxu.wikispaces.com/TallerWeb1_0

Egoera _____
Amaitua

Irismena _____
Tokikoa/Eskualdekoa

Berrikuntza-maila _____
 - Herritarrak ahalduntzea
 - Inteligentzia kolektiboa sortzea
 - Dirua ez xahutzea eta herritarren benetako beharrei erantzutea

Transferigarratasuna _____
Ekimen hauek, oro har, edozein politika eta zerbitzu publikotan aplika daitezke; Interneteko presentzia eta zerbitzu telematikoak

Dibertsitatea _____
Erakunde publikoak
Internautak
Kolektibo bereziak:

Lankidetzak _____
Bai


Gizarte zibilaren ekimenen kasuan, zer paper bete du administrazio publikoak? _____
Finantzaketa-iturri, Subjektu/Objektu

4

L
A
N
K
I
D
E
T
Z
A
K
O

P
A
R
T
E
-
H
A
R
T
Z
E
A

EcoEuskadi 2020



Eremua

Herritarrek, oro har, eta, batik bat, eragile sozio-ekonomikoak eta Administrazioa.

Helburua

Administrazioek: zuzenean parte hartu Ingurumeneko esparru-programa (2020) egiten; hori aurrera ateratzea hitzeman eta egindakoaren erantzukizuna hartu. Interes-taldeek eta herritarrek: lankidetzarako espazio hori baliatu gizartearen erantzuna aktibatzen, esparru-programaren berri emateko, eta, hartara, guztiok ingurumenaren balioaren sentsibilizazioan eta hedapenean konprometitzea.

Metodologia

Gizarte-berrikuntzako printzipioak eta teknikak biltzen dituen lankidetzaren prozesua: hainbat metodologia eta teknika berritzaile erabili dira; emaitzetara bideratua; estrategia eta helburu kolektiboen xerka; gobernantza, gardentasuna eta erakunde publiko eta pribatuaren arteko lankidetzaren bultzada.

Emaitzak/eragina

Datu azpimarragarrienen artean, esan beharra dago prozesu honek aukera eman duela 8.000 pertsona baino gehiagori zuzenean informazioa emateko; enpresen, ezagutzaren eta gizarte-mugimenduen arloko 110 eragile aurrez aurre biltzeko eta, hartara, haien hausnarketak ingurumeneko esparru-programa egiten erabiltzeko, eta 800 pertsona eta erakunde baino gehiagoren ekarpenak jasotzeko.

Ikasketa-prozesua

Ingurumeneko esparru-programa (2020) egiten parte hartu duten pertsona guztiak gaitzea eta haiek hobeto ulertzea.

Iruzkinek eta informazio gehiago

http://www.irekia.euskadi.net/uploads/attachments/5075/anexo_1_metodologia_y_resultados_pma_2020.pdf?1406707139

Egoera

Amaitua

Irismena

EAE

Berrikuntza-maila

Plangintza-agiria egitea, bi norabidetan: goitik behera eta behetik gora.

Transferigarritasuna

Eusko Jaurlaritzaren edozein plangintza estrategiko eta sektorialetan

Dibertsitatea

Zabala

Lankidetzak

Bai

Gizarte zibilaren ekimenen kasuan, zer paper bete du administrazio publikoak?

Idea-iturri, lankidetzako bazkide, finantzaketa-iturri, prozesuaren lider.


5

P
O
L
I
T
I
K
A
N

P
A
R
T
E

H
A
R
T
Z
E
A

Immigrazioari buruzko itun soziala



Eremua

Immigrazioa

Helburua

Euskadin, immigrazioaren inguruan esparru partekatua bat eta adostu bat prestatzea.

Metodologia

Jardunaldi irekien bidez, adituen komite baten laguntzarekin

Irismena

Eskualdekoa

Atzera egiteko modurik izango bazenu, zer egingo zenuke beste era batera? Zer ez zenuke egingo? Zer egingo zenuke?

Ez nuke partaidetza-prozesurik egingo. Adituei esango nieke txostena idazteko, eta, gero, jendaurrean aurkeztu.

Iruzkinek

Zure ustez, zerk huts egin du? Zergatik ez dugu lortu nahi genuena?

- 1.- Prozesuan, igurikimenak ez ziren argi geratu: hau da, jendea zertarako deitu zitzaion. Txosten bat egiteko partaidetza-prozesu bat aipatu zen, baina txostena ordurako idatzita zegoen.
- 2.- Prozesuaren lider-lanak egiten zituen taldeak parte-hartzaile gehienon iritzia kontrako erabakiak hartu zituen. Esate baterako, fokua immigrazioan jartzea erabaki zuten, nahiz eta partehartzaileak dibertsitateaz edo elkarbizitzaz hitz egitearen alde agertu.
- 3.- Partaidetza-prozesuari ekitea benetan jakin gabe prozesu horrek zer eman dezakeen, zer balio erantsi duen.
- 4.- Erakunde arteko esparruetan, hedapen politiko-teknikorik eza.
- 5.- Gaia puri-purian dago, eta partaidetza-prozesuan garbi geratu zen Administrazioari asmo onak baino zerbait gehiago eskatzen zaiola une honetan: gauzak egitea eskatzen zaio, zehatza izatea eta, batez ere, koherentzia. Hau da, prozesu mota honen barne-hedapenean fase bat izan behar du (beste sail batzuetan, adibidez).

6



IV. ERANSKINA. Liburu zuriaren lantze- prozesua eta lortutako produktuak

IV. ERANSKINA. Liburu Zuriaren lantze-prozesua eta lortutako produktuak

Eranskin honetan honako eduki hauek jasota daude:

- a) Prozesu orokorreko txostenak
 - [Lehenengo jardunaldiko ekarpenak](#)
 - [Bigarren jardunaldiko ekarpenak](#)
 - [Hirugarren jardunaldiko ekarpenak](#)


- b) Taldekako prozesuko txostenak
 - [Belaunaldien arteko Lego saioa](#)
 - [Partaidetzaren inguruko beste begirada batzuk – Lego saioa](#)
 - [Gazteekin Lego saioa. El Regato Ikastetxea](#)
 - [Teknikari eta kargu politikoeekin saioa. HAEE](#)
 - [Unibertsitateko ikasleekin saioa. Mondragon Unibertsitatea](#)
 - [Etorkinekin saioa. Harresiak apurtuz](#)
 - [Unibertsitateko ikasleekin saioa. Deustuko Unibertsitatea](#)
 - [Adimen Urritasuna duten pertsoekin saioa. Entzun gure nahia](#)
 - [Auzokide elkarteekin saioa. Basurtuko Auzokide Elkarte](#)
 - [Langabetuekin saioa. Behargintza Leioa](#)

- c) [Irekian jasotako ekarpenak](#)

- d) Kontraste prozesuaren txostena



a) Prozesu orokorreko txostenak



EUSKADIRAKO DEMOKRAZIAREN ETA HERRITARREN PARTE-HARTZERAREN LIBURU ZURI BATERANTZ

**PROZESUARI HASIERA EMATEKO JARDUNALDIAREN ONDORIOAK
2013KO ABENDUAREN 18A**



Sarrera

2012-2016 aldirako Eusko Jaurlaritzaren programak, Herri Administrazio eta Ogasunaren atalean, proposatzen ditu lerro estrategiko batzuk Administrazio eraginkorra eta gardena, eta, aldi berean, Administrazio irekia lortzera bideratutakoak.

Helburuen artean, proposatzen du gardentasuna, herritarrei entzutea eta kontsulta sustatzeko mekanismoak martxan jartzea, eta, besteak beste, jasotzen du "Euskadirako Demokraziaren eta Herritarren Parte-hartzearen Liburu Zuri" bat lantzeko ekimen bat martxan jartzea, euskal gizartearekin lankidetzan, nazioartean jada badauden –Europar Batasunean batez ere– demokraziako eta parte-hartzeko praktika ezberdinak jasotzen dituen, Euskadiko Herri Administrazioetan eta haientzat egokitu daitezkeenak.

Baina, zer da Liburu Zuri bat?

Liburu Zuri bat agiri bat da, politika espezifiko bati eta gizartearentzako oro har interes handiko bati buruzko proposamen ofizial bat biltzen duena (ekintza zehatzak eta konpromisoak), herritarren parte-hartzea, esaterako, eta politika horren inguruko baterako ekintza eta ekintza espezifikoko proposamenak barne hartzen dituena. Txostenok erabiltzen dira, batetik, arazo bat konpontzeko edo erabaki bat hartzeko erreferentzia-txosten gisa, eta, bestetik, gobernuen lehenetsunak aurkezteko tresna gisa, legea sartu baino lehen; hala, Liburu Zuri bat argitaratzeak balio du iritzi publikoak gai politiko batekiko duen giroa probatzeko, eta, gisa horretan, gobernua haren eragin gertagarria neur dezake.

Zer lortu nahi da Euskadirako Demokraziaren eta Herritarren Parte-hartzearen Liburu Zuriaren lanketarekin?

Administrazio moderno batek ezin ditu bere jarduna eta gaitasuna zerbitzuak arautzera eta era eraginkorrean ematera soilik mugatu; aitzitik, herritarren galdeei erantzuna emateaz eta bere kudeaketa moduz eta lortzen dituen emaitzez kontuak emateaz ere arduratu behar du. Eskubideak dituzten herritarrek konpromisoak hartzen dituen Administrazioa behar dute, eta, beraz, Jaurlaritzatik interakzio-prozesu bat martxan jarri da, inplikaturako aktoreekin eta adostasunaren gainean eraikitzeko oinarritzko premiarekin. Prozesu horretan, alderdiek konpromisoa hartzen dute elkarrekin zerbait eraiki eta ikasteko, izan ere, taldearen lana lankidetzan eta komunikazioa eta negoziazioa prozesuko faktore-giltzarri gisa aintzat hartuz egiten bada soilik lor baitaiteke eraiki eta ikasi beharrekoa.

Euskadirako Demokraziaren eta Herritarren Parte-hartzearen Liburu Zuri honen lanketarekin, Eusko Jaurlaritzak bi helburu ditu: lehenik, **herritarrengan sinesgarritasuna sortzea** abiarazi duen moduko prozesu bat martxan jarri, erakusten duena Jaurlaritzari egiazki interesatzen zaiona herritarrek gaitan eta erabaki publikoetan parte hartzea dela, eta, bigarrenik, **haren eraginkortasunean konfiantza handiagoa sortzea**, Euskadiko herritarrekin konfiantza- eta tolerantzia-giroa sortuz eta sustatuz.

Bestalde, Jaurlaritzak espero du euskal herritarrek **erantzukizunez jokatu** dutela parte-hartzeko eskubideetan, haien eskubideez baliatuz eta haien betebeharrak haien gain hartuz, eta, era berean, **errespetu- eta hurbiltasun-egoerak** eta Administrazioarekiko herritarren **konpromisoa ere sortuz**.



Abiarazi den proiektuak nahi du aktore sozial ezberdinekiko harremanak birpentsatzea (herritarrak eta elkarte-sareak, politikariak, teknikariak, interes-taldeak), horiek lidergo partekatutako bat sortzera orientatuz. Dena den, horrek ez du esan nahi politikarien, teknikarien eta herritarren rola, erantzukizunak eta eskubideak nahasi behar direnik. Proposatzen den prozesuaren formulazioan eta aplikazioan, ahalik eta pertsona eta erakunde gehien txertatu nahi dira. Horren ondorioz, gardentasun handiagoa eta parte-hartzaile guztien erantzukizun-hartze handiagoa izango da.

Baina, gainera, lortu nahi dena da jardueren eta konpromisoen agiri bat, gure errealitate instituzionalera, sozialera, kulturalera eta linguistikora, gure esparru juridikora eta parte-hartze sozialean eta komunitarioan dugun ibilbidera egokitua. Agiri teoriko eta kontzeptual bat da, baina Liburu Zuriaren aurrekustean den ekimen bakoitzerako neurri eta jarduerak zehatzak ere badituen, eta "jarduerara bideratua eta jarduerak zehatzekin".

Azkenik, eta abiarazi dugun prozesuarekin hauek ere lortu nahi ditugu: sustatzea eragile-giltzarriak eta oro har herritarrak parte-hartzearen bidez ahalbidetzea, parte-hartzea herritarren ikasprozesu gisa ulertuta, eta herritarrekin; konplizitateak eta sinergiak sortzea erantzukizun partekatutako balore publikoak sortzeko ikuspegitik lanean ari diren eragileen artean, eta adieraziak partekatzea eta ikuspegi eta hurbilketa dibergenteak erakustea, baina emaitza hobekiak lor daitezela ahalbidetzeko gutxienezko izendatzaile komun batekin.

Liburu Zuriaren eraikuntzarako ekarpen eta eztabaida guztiak Eusko Jaurlaritzaren IREKIA plataforman eskuragarri izango dira eta era berean, prozesuan zehar martxan jarriko diren internet bidezko eztabaidetan parte hartzeko aukera izango da ere hurrengo estekan:

<http://www.irekia.euskadi.net/eu/debates/946-euskadiko-demokraziari-eta-herritarren-partehartzeari-buruzko-liburu-zuria>

Prozesuaren hasiera

Joan den abenduaren 18an abiarazi zen Euskadirako Demokraziaren eta Herritarren Parte-hartzearen Liburu Zuria lantzeko prozesua.

Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justiziako sailburu den Josu Erkorekak Liburu Zuri hau prestatzeko erronka jaurti zien herritarrei, 130 bat lagun eta herritarrengandik eratorritako hainbat erakunde bildu ziren jardunaldi parte-hartzaile batean, herritarren eta herri-erakundeen parte-hartzean adituak denak ere.

Irekiera hitzaldian, arduradun politikoen konpromiso argia jarri zuen abiapuntu gisa sailburuak, eta, ildo horretan, Eusko Jaurlaritzak demokrazian eta herritarren parte-hartzean sakontzeko duen konpromiso irmoa adierazi zuen, erregenerazio-politikoko prozesu baten lider izanez eta elkarrizketa- eta gardentasun-printzipioa biziberrituz. Herritarrekiko elkarrizketa-prozesua arazoei heltzeko, entzuteko eta irtenbideak partekatzeko, eta baita gardentasun-prozesua ere, herritarrek uneoro politika publikoei buruzko informazioa izan dezaten, autokritikatik eta umiltasunetik, etengabe hobetzeko espirituarekin.

Era berean, Joaquim Brugué partaidetzan adituak prozesuari hasiera emateko hitzaldi bat eman zuen "Herri partaidetza: hain zaila, hain beharrezkoa" izenburupean eta han esandakoak 5 ardatz nagusitan banatu zituen: zergatik gobernatu behar den era parte-hartzailean, zer da partaidetza,



eredu aldaketaren beharra eta edozein prozesu parte-hartzaitik eratortzen diren emaitza eta etsipenak.

Jardunaldiaren baitan eta hasierako eztabaida kokatzeko, "Parte-hartzearen korapiloak" izenburua duen argitalpen elektronikoaren berri eman zen. Innobasque-Euskal Berrikuntzaren Agentziak bere Gobernabide i-Taldearen bidez sustatutako lan honetan parte-hartze prozesuak martxan jartzerako orduan gainditu beharreko korapilo edo arazo ohikoenak zeintzuk diren zehazten dira. Txostena parte-hartze egoera errelak aintzat hartuz egina dago eta uharrak saihesteko bidelagun izateaz gain, besteen esperientziatik, gaur egungo edo etorkizuneko norberaren egoeraren inguruan hausnartzeko tresna ere izan nahi du. Argitalpena eskuratzeko: <http://www.innobasque.com/partaidetzakorapiloak/index.html>

Egin asmo den bezalako Liburu Zuria lantzeak Euskadiren eraikuntza demokratikoan aurrera egitea dakar, ezen, herritarren parte-hartzea kudeaketa publikoan txertatzeak gobernuak indartzen baititu, politika publikoak legitimatzen, aniztasun soziala sartzen, interes sozialak agenda publikoan sartzea laguntzen, herritarrak bizitza publikoa ordenatzeko prozesuetan nahasten eta gizarte zibilaren funtzioa indartzen. Gizarteek ez dute etengabeko gogoeta kolektiboa egitea eta euren ahalmena erabiltzea beste aukerarik, horrela, ikuspegi partekatu baten bidez, herritarren komunitatea giza garapen jasangarri baten alde elkartzeko.

Eta gogoetako eta eraikuntza kolektiboko prozesu honen esparruan, prozesua bultzatzeko lehen jardunaldi hartan, herritarren parte-hartzea terminoaren inguruko "esanahiak partekatzen" saiatu ziren. Jardunaldi hartan, bertaratutako guztiek helburu den prozesua hasteko garrantzitsuak direla iritzitako 3 gai landu zituzten. Hauek dira, zehazki:

- Zer da eta zer ez da herritarren parte-hartzea?
- Zer da parte-hartzea Administrazioarentzat? Eta herritarrentzat?
- Zer barne hartu behar du Liburu Zuriak praktikotasuna izateko? Azken agirirako aurkibide baten proposamena.

Ondoren, galdera bakoitzarentzat eta bertaratutakoen arteko lankidetzaren bidez, jardunaldian lortu ziren ondorioak eta ekarpenak aurkezten ditugu.

1. GALDERA Zer da eta zer ez da herritarren parte-hartzea?

ZER DA herritarren parte-hartzea, bada, kontzeptu honi buruzko **ekarpenak hiru atal nagusitan bildu daitezke, eta hauei egiten diete aipamena:**

- parte hartzeko beharrezko **jarrerai**,
- bere **prozesuko** dimentsioari,
- parte-hartzeari lotutako **eskubide-betebehar** dikotomiari.

Parte-hartzeak **JARRERAREKIN** oso hertsiki uztarturik dauden elementuak ditu. Parte-hartzeak berekin dakartza autonomia, askatasuna eta, orobat, erantzukizuna. Parte-hartzea izatea

da, beraz, nahitaezkoa da parte hartzeko / esku hartzeko / eta parte izateko beharrezko baldintzak ahalbidetzea.

Berarekin dakar, orobat, on kolektiboaren bilaketaren aurreko jarrera irekia, borondatezkoa eta eskuzabala, eta **komunikazio** handia, elkarriketa eta entzute aktiboa, informazioa eta gardentasuna eskatzen ditu. Entzutea berez da balio bat norbanakoarentzat, baina herritarren heldutasunaren seinale ere bada, eta parte-hartzea bultzatzen du, enpatiatik egiten bada, betiere (parte hartzeko lehenengoetariko pausu gisa ulertuz norberaren iritzia adierazteko eta besteenak entzuteko gaitasuna).

Konpromiso eta inplikazio-maila handia ere eskatzen du herritar-zentzua berreskuratzeko "bezero/erabiltzaile" ikuspegiaren parean. Parte-hartzearen bi noranzkotasuna (edo noranzkotasun anitza) konpromiso kolektibotik soilik gauza daiteke, jardun publikoa eta politikoa garatzeko motor gisa berau sustatzen duten erakunde batzuetatik eta errealitate hurbilenean partaide aktibo izateaz kezkatzen eta arduratzen diren herritar batzuegandik.

Horregatik, **partaidetza eta hurbiltasun** sentimenduak komunitatearekiko, komunitatekoa denarekiko eraikitze partekatatu bat eskatzen du lehenik, ondoren antolaketa kolektiboari ekiteko, non pertsona guztiek euren irrikak erakuts baititzakete eta euren iritziek, ideiek eta ekintzek garrantzia dutela sentitzen baitute.

Errealitate hurbilenearekiko, haren arazo eta proiektuekiko ezagupidea **konfiantza**-printzipiotik eta jarrera **aktibo eta eraikitzailetik** abiatzen da, oztopoei eta arazoei heltzeko. Finean, gatazka aukera gisa ikustean, ezberdintasuna azpimarratzean, hazkunde pertsonal eta kolektiboaren oinarriak finkatzen dira: parte-hartzea bizi-filosofia bilakatzen da, aginte-eredu baino gehiago.

Baina komunitate baten parte aktibo izateko, berau osatzen duten pertsonak **prestatu** behar dira, izan ere, parte-hartzeak eskatzen baitu zertarako galdetzea: ez dago parte-hartze baliotsurik eraiki nahi den horri buruzko edukirik ez bada, zeren parte hartzea etorkizuna diseinatzea baita, iritziekin eta, batzuetan, erantzun atipikoekin.

Norbere mugak eta denarentzat erantzunik ez dugula onartzeko, **umiltasuna** behar da. Edonoren gaitasuna aitortzeko, bere "kargu" edo "posiziotik" haratago balore publikoa emateko eta parte-hartzeko adierazpide guztiak onartzeko. Honela, parte-hartzearekin hertsiki loturik, **laguntasun zibikoa** terminoarekin egiten dugu topo, berreskuratu beharrekoa den terminoa. Aristotelesek zioenez, gizarteek aurrera egiteko, "lege eta erakunde justuak, agintari zuhurrak eta epaile zintzoak behar dituzte, baina baita beste osagai bat ere, zeina gabe bitza publikoak ezin baitu funtzionatu: *laguntasun zibikoa*". Laguntasun zibikoa estatu bateko partaide izate hutsagatik helburu komunak lortu behar dituzten herritarren aitortza da. Elkartzen dituen eta helburu horiek lortzen saiatzera eramaten dituen lotura bat eragiten du horrek, ezberdintasun legitimoak errespetatuz eta neurri bakarrarekin neurtu gabe, betiere.

Herritartasun kontzeptu unibertsal batetik abiatzen da, beraz, zeinetan herritarrak baitira parte-hartzearen oinarri. Parte-hartzea da pertsona zaugarriak "herritar" horren parte gisa aintzat hartzea; pertsona horiek ez dira zerbitzuen jasotzaile edo onuradun soilik, gizartearen aktore ere badira. Interes berdintsuak dituzten pertsonak dira (ez interes komunak, izan ere, komunek parte-hartzea urruntzen baitute), elkarrekin erabakitze konpromisoa partekatzen dutenak, inor baztertu gabe.

Baina, gainera, parte-hartzea **PROZESU** bat ere bada. Lehen aipatu bezala, prozesu batek **inklusiboa** izan behar du, espazioa eta ahotsa emanaz pertsona guztiei, egon daitezen eta



eraginkorrak izan daitezzen, aniztasun-balioa (soziala, politika, adina, generoa...), eta, orobat, erresistentzia posibleak txertatuz, ikuspegi partekatuetara ailegatzeko saiatzeko.

Jardunaldiko ekarpenetan nabarmentzen da prozesu **jarraitua eta transbertsala** izateko beharra, eta proiektu eta politikak aldatzeko gai diren jarduera iraunkorrak sortuko dituen, esparru publikoan funtsezko presentzia izango dutenak, "une jakinetako" dinamika gaudituz eta haren **eskalagarritasuna** sustatuz (prototipoekin, esperientziekin hasiko dena eredu bat eraikitzen joateko). Dena den, eta eredu-idea honi dagokionean, zalantza batzuk sortzen dira denboran eusteko duen gaitasunari buruz.

Parte-hartzea, beraz, harremanak, erantzunak, pertsonak... **eraldatzea** bilatzen duen prozesu bat da, ez bakarrik formari dagozkion aldaketak sustatuz, baita hondoan ere, eta jarduera politikoa indartzea laguntzen duen prozesu bat ere bada. Parte-hartzeak elkarrekin eraikitzea dakar, iritzia ematetik haratago, eta horregatik eskatzen du pentsamolde irekia eta **prozesuaren beraren eta emaitzaren arteko koherentzia** handia. Eskatzen du beharrianak antzematea eta konplexutasuna eta ziurgabetasuna kudeatzeko gaitasun handia.

"Statu quo" aldatzeko eta erronka konplexuei aurre egiteko gaitasun horrek beharrezko egiten du parte-hartzeak berarekin ekartzea **uztardura- edo erabaki-dimentsio** bat (moldagarria izan daitekeena, egindako ekarpen askoren iritzi). Erabakitzeko gaitasun hori gabe, txeragabetasun eta frustrazio handiagoa sortzen da, eta erabilera publikoaren zentzua desagertzen. Beraz, parte-hartzeko prozesuak, eraldaketa-prozesu gisa ulertuak, ezin dira kontsulta egitekoak soilik izan, eta parte hartzen duten guztiei eskaini behar diete aukera eta bermea eragiten dieten erabakiak hartzerakoan gisa batera edo bestera alderdi aktibo izateko.

Ikuspegi horretatik, parte-hartzeak ahalduntzea ere bilatzen du, eta *pertsona herritar bilakatzen den* *une* gisa ulertua izan daiteke. Partekatuz, erabaki... , finean, erabaki ahal izateko espazioetan egotea, zoritxarrez, ez baita aski praktikatzeko. Besteengandik ikasteko modua da, iritzi-aldaketak ahalbidetzen ditu, eta, era berean, mekanismo sinplea eta eraginkorra da ezagutza partekatuzko, oreka berrien bilaketan intelijentzia kolektiboa azpimarratzeko.

Baina, bertaratuen ustez, eraikuntza-prozesu hau **erantzukizun partekatuaren eta kooperazioaren** bidez soilik gauzatu daiteke. Balio publikoa sortzeko, herritarrek erantzukizun partekatuaren bidez ekiten diote parte-hartzeari, botere tradizionalaren logika hausten da, non adituari egiten baitzitzaion kontsulta. Eraldatzea bilatu nahi da fokua gizartea osatzen duten pertsonengan ipiniz, herritar-zentzua, inguruaren eta ondasun komunaren kide izatearen eta horiekiko konpromisoaren zentzua sustatuz. Berrikuntza publikoko prozesuek herritarrek txertatu behar dituzte, ez soilik azken erabiltzaile gisa, diseinatzaile eta ezartzaile gisa baizik, arazoa jasaten dutenen edo beharrianak eta/edo irtenbideak ikusten dituztenen ikuspegi anitzetik. **Parte-hartzea botere-banaketa da, ez alde bakarreko erabakiak.**

Halaber, kooperazio-prozesu bat da, *ez top down, ez bottom up*, egiazko topaketa bat eduki nabariekin eta egiazko konpromisoarekin, eta **banatua eta bi noranzkoko** behar lukeena. Elkarrekotasun harreman berriak eta kooperazio eredu berriak sortzea ahalbidetuko dute jautzia ematea "mikrotik", egun gertatzen den bezala, "makrora", hantxe baitago erronka. Interes kolektiboak interes pertsonalari aurre egingo dion konfiantza-giroan balio publikoko sorkuntza partekatua gerta dadin, garrantzitsua da informazio partekatua eta gardentasuna egotea eta baita ikuspegi kolektibo bat egotea ere (baina ez horregatik homogeneoa), ikuspegi kritikoenak barne hartuko dituen sormen eta kudeaketa partekatuaren prozesuan.

Dena den, parte-hartzea gertatzeko, beharrezkoa da parte hartzen jakitea, nahi izatea eta ahal izatea, baina, baita ere, prozesu guztietan bezala, planifikatzea eta erantzutea zeri (tema), nori (rolak), nola (metodoa), zer baliabiderek (IKT, aurrekontua...), noiz (denborak), zergatik (arrazoiak), zertarako (helburuak), joko-arauak eta konpromisoak argiki definituz prozesuan zehar, eta bukaeran ere bai. Gardentasunak jasotako ideien edo proposamenen itzulketa edo erantzuna ere barne hartu behar du.

Azkenik, eta herritarren parte-hartzearen definizioaren bilaketa honetan, parte-hartzea **ESKUBIDE** gisa planteatzen da, baina baita **BETEBEHAR** bezala ere.

Parte-hartzea berezkoa du pertsonak, bere izaera humanoaren parte da, eta bizitzaren esparru guztietan ematen da. "Desiratua" izan behar du, eta "eskubide" bat den heinean, posible izan behar da pertsona ororentzat arautzea.


Beraz, eskubidea jarduera eta erabaki publikoetan parte aktibo izateko aukeraren, eta herritarren funtsezko presentzia bermatzearen azpian dago. Baina, hain justu ere, horregatik sortzen dira parte-hartzea borondatezkoa izan behar den ala ez zalantzak. Ezin ukatua da, interes anitza, diziplina eta iritzia, etengabeko ikaskuntza eta erakundeen inplikazioa eskatzen dituela. Eta hori gabe, onartu beharko litzateke baten batek parte hartu nahi ez izatea. Parte sentitzen denak parte hartzen du, eta parte hartzea ez parte hartzeko modu bat ere bilaka daiteke.

Hau esanik, eta jasotako ekarpenen ondorio gisa, parte-hartzea inoiz baino beharrezkoagotzat jotzen da une hauetan, eta, gainera, egungo segiziozaletasuna espazio publikoaren utzikeriaren eta ondasun komunaren ukazioaren sorburu izan daitekeela uste da.

Parte-hartzea jarduera publikoaren aurreko beharrezko baldintzatzat hartzen da. Administrazioak bide bat ireki behar dut herritarrekiko, klase politikoaren eta erakundeen egungo aldentzea eta deslegitimazio-prozesua ikusirik. Parte-hartzeak bere zentzua aurkituko duen espazio publikoa definitu behar du, eta, jardun politikoaren esentzia berreskuratzeko, babestu egin behar du herritarren desio eta borondateak gobernuaren jardunari gehitzean, baina pareen arteko harreman-ikuspegia duen parte-hartzearen agenda baldintzatu gabe.



ZER EZ DEN parte-hartzea definitzeko atalean, ekarpen nagusiak kontzeptuen laino-honetan biltzen dira:





2. GALDERA: Zer da parte-hartzea Administrazioarentzat? Eta herritarrentzat?

ADMINISTRAZIOARENTZAT

Jardunaldian bildutako ekarpenak balioetan, jarreretan, Administrazioaren **IZATEAN** bertan dakartzan eraldaketen inguruan dabilta, eta baita parte-hartzeak Administrazioaren **EGITEKOETAN** dituen eraginetan ere. Jaurlaritzaren jardunaren **EMAITZETAN** ere laburki nabarmentzen da parte-hartzearen eragina.

Parte-hartzea **balio aldaketa** bat da Administrazioarentzat. **Konpromisoan eta erantzukizunean** sakontzea dakar jardun publikoaren transzendentziatik abiatuak, **enpatiatik** (parte-hartzea norbera bezala pentsatzen ez duten pertsonen entzutea baita) eta **umiltasunetik** (erantzun guziak ez ditugula jakinik), elkarrizketaren eta lankidetzaren euskarri diren eskumen emozional berriak landuz.

Bildutako ekarpen gehien arabera, parte-hartzeak gardentasun handiagoa dakar Administrazioarentzat. Informazioa irekitzea, eskura jartzea era ulergarrian eta hainbat mailatan, finean, informazio egiazkoa, nahikoa eta argia ematea denbora errealean, ez edukiei buruzkoa soilik, baita baldintzei eta inguruari buruzkoa ere, faktore garrantzitsutzat jotzen da. Soilik gardentasunaren-printzipiotik, informazioa eta mugen eta eskumenen definiziotik eraiki daiteke Administrazio **hurbila eta konfiantzazkoa**, erantzukizun partekatua sustatzen duena. Halaber, parte-hartzeak berarekin dakar **aniztasuna**, eta aukeren **berdintasuna** sustatzen du.

Dena den, parte-hartzeak bere **beldurrak, ziurgabetasuna eta arriskua** hobeto kudeatzera ere behartzen du Administrazioa. Behartzen du gauzak egiteko moduak aldatzera eta lan- eskemak birpentsatzera, autokritika garatzera, proiektu bakoitzaren ezberdintasuna eta berezko deriba onartuz (*tango batean bezala, non kontrolik eza dagoen itxura batean*). Parte-hartzea, horrenbestez, erabaki hobeak hartzeko eta **gauzak beste era batera egiteko** aukera bat da Administrazioarentzat.

Parte-hartzeak politika **proaktiboago** bat sortzen duela uste da, zeinetan berreskuratzen baitu **herritarrekiko zerbitzuaren** esentzia, eta lortzen baitu, finean, herritarren kexei, beharrezkoen, eta abarrei buruzko informazio handiagoa eta hobea. Egindako zenbait ekarpenen arabera, dena ez da parte-hartzearen bidez garatzekoa, baina onartzen dute arazo konplexuei heltzeko aukera ematen duela parte-hartzeak.

Horretarako, nahitaezkoa da Administrazioa **iragazkorragoa** izatea, herritarrekiko etengabeko elkarrizketa eta lankidetzaren sustatuko dituen. Egungo administrazio-eredua krisian dagoela antzematen da, eta indar handia egin beharra du entzuteko, aztertzeko, erantzuteko eta parte-hartzeko prozesuetatik ondorioak ateratzeko, horiek informazio gehiago ematen baitigute erabakiak hartzeko. "Herritarrentzako herritarrik gabe" ari da lanean, eta egoera hau ez da jasagarria.

Espazio publikoa birdefinitu nahi da, oinarri harturik espazio publikoa ez dela Administrazioarena soilik, herritarrena ere badela. Beharrezkoa da pertsonen eta kolektiboen **ahalduntze-prozesuak**



aktibatzea, eta, "antolatu-agindu-kudeatu" norabide bakarreko eredutik, eredu irekiago eta parte-hartzaileago batera pasatzea, zeinetan, sarritan, bideratzaile papera jokatzen baita (*auzoeraketa*, *auzolana*) gidari-papera baino gehiago. Honek, alditan, ekar lezake Administrazioak boterea galdu edo lagatzea, izan ere, botere partekatu bilakatzen baita berdinen arteko harremanean oinarriturik eraikitzen dena eta erabakien zilegitasuna indartzen duena. Erroka esperientziak "proposatu-eskaintzeko" **erantzukizuna hartzean** eta "gertakari parte-hartzaileak" onartu/hartzean datza.

Nahitaezkoa da **espazioak sortzen** sakontzea ekarpen berriak lortzeko, erabaki-hartze partekatua onerako izango diren duten ideia eta perspektiba berriak (horretarako tresnak eskainiz), baina, era berean, jada badauden parte-hartzeko prozesuak aintzat hartzea ere eskatzen du, eta horiek administrazioaren berezko prozesuetan sartzea. Herritarrengana hurbiltzeak (ikuspegi zein hizkuntzan, herritarrekiko etengabeko komunikazio-kanalak garatuz) **argitasuna** eskatzen du: bai landu beharreko gaitan eta prozesuaren helburuetan, itxaropen faltsuak ez sortzeko, eta bai joko-arau eta emaitzetan eta prozesuen ondorengo ebaluazioan.

Horretarako, beharrezkoa da erakundeen **barne-egitura eta -antolaketa** eraldatzea, izan ere, sarritan oztopo handia baitira parte-hartzea eraginkorra izan dadin, eta **zeharkakotasuna** (kutxa estankoen ikuspegi teknokratatik askoz ere orokorrago batera pasatzea, non sailek euren artean baitihardute, denbora eta baliabideak behar diren lekuan ezarriz) eta **malgutasuna** ematea. Malgutasun hori ez du egitura ez hain zurrinak hartzeak soilik ekarriko, **antolaketa-kultura aldaketa** bat ere beharko da, sormena eta parte-hartzeko prestakuntza ahalbidetuko (eta akuilatuko) dituen, non parte-hartzea gure administrazioen barne-errealitate bat ere izango baita.

Parte-hartzeak **erakundeen arteko koordinazioa** hobetzeko eta akordio eta **konpromiso politikoak** bilatzeko premia agerian uzten du, epe laburrera baino haratago. Epe luzerako prozesuak planteatzea da, osoki eta ezastrukturaliki; beraz, legegintzaldi bat baino gehiagotara helduko den planifikazio estrategikoari ekin behar zaio. **Parte-hartzearen erabilgarritasunaren aitortza** nahitaezkoa da aldaketa horiek sortzeko, eta, beraz, beharrezkoa da horrek **emaitzetan** duen eragina azpimarratzea. Parte-hartzeak berarekin dakartza **erabaki hobeak** (aberatsagoak, justuagoak, anitzagoak, partekatuagoak, sortzaileagoak...), eta Administrazioaren **eraginkortasuna** hobetzen du. Ondo eginez gero, gainera, *bozak* ere erakartzen ditu.

HERRITARRENTZAT

Herritarren kasuan, parte-hartzeak hau dakarrela uste da:

- **Garapen pertsonaleko esperientzia bat**

Prozesu parte-hartzaileek kezkak eta arazoak beste pertsona batzuekin partekatzea ahalbidetzen dute, eta, beraz, aberasgarriak dira. Era kooperatiboan lan egiteak aitzakiak bistaratzen ditu, eta, **hari esker, "ergel" izateari uzten diogu** (Quim Burgue jardunaldiko hizlariak azpimarratu zuen bezala). **Ahaziazko pertsonalak eta sozialak** garatzen laguntzen digu, entzuteko gaitasuna, enpatia edo komunikazio-gaitasuna esaterako, eta ezagutza berriak erdiesten, eta aldarrikapenetatik haratago eramaten gaitu, **geure errealitatean erasateko borondatea** zirriborrotuz. Dena den, nabarmentzen dena da ez zaigula parte hartzen irakatsi, eta, horregatik, prestatu egin behar garela eta nola egiten den ikasi: zuk defendatzen duzuna gertatzeko zain egon gabe, eta jakinik zeure parte-hartzeak beste emaitza batera ailegatzeko balio izan duela.

- Geure inguruan paper aktiboagoa jokatzea ahalbidetzen digu

Lehenago aipatu dugun bezala, parte-hartzeak politiken subjektu pasibo izatetik subjektu aktibo izatera pasarazten gaitu (**jarrera-aldaketa** ahalbidetzen du). Entzunak izate hutsak, arazoen ebazpenean herritarren ahotsa eta papera aitortze hutsaren ondorioz, herritarrak gehiago **inpliketzen dira** eraikuntza kolektiboko proiektuetan, eta **politikarekiko** eta horretan diharduten pertsonenganako **konfiantza** berreskuratzen dute.

Simplifikatzen laguntzen duen "izaki sozialaren berreskurapeneko" prozesu horretan, publikoa denak paper erabakigarria du **kultura-aldaketan**. Jardunaldian parte hartu dutenek adierazten duten bezala, paradigma oso indibidualean gaude, eta beharrezkoa da **kolektibismora itzultzea**. Parte hartzeko motibazioa eta interesak dakar "hau ez dagokit niri" ideia aldatzea, eta "parte hartu nahi eza" nondik datorren ulertzea ere bai. Parte hartzeko, egiten duguna onuragarria dela sentitu beharra daukagu, zertaz den jakin, informazioa eta inguru argia izan. Parte-hartzea, beraz, hormak eraisteko aukera bat da, baina baita egungo lokartze-egoeratik ateratzeko aukera bat ere.

- Publikoa/kolektiboa denarekiko konpromisoa dakar berekin

Parte-hartzea indibidualismotik ateratzeko eta taldean pentsatzeko konpromiso, ahalegin gisa ulertzen badugu, parte-hartzeak **erantzukizuna eta konpromisoa** dakartza. Eskuordetze/segiziozaletasun-dinamika eten behar dugu, eta, hein batean, herriaren gobernagarritasuna geure gain hartu espazio publikoan jardutean. Espazio publikoa berreskuratzeak **denbora, esfortzua eta dedikazioa** ekarriko du, "lan estra", finean, baina baita **galdutako balioak eta geure komunitatearen partaide izatearen sentimendua berreskuratzea** ere.

ETA BAI ADMINISTRAZIOARENTZAT ETA BAI HERRITARRENTZAT, PARTE-HARTZEA DA





3. GALDERA: Zer barne hartu behar du Liburu Zuriak praktikotasuna izateko?

Galdera honen xedea da Liburu Zuria prestatzean aintzat hartu beharreko **edukien aurkibide** bat lortzea, burutuko diren parte-hartzeko prozesuko **hurrengo jardunaldietan ekiteko** gaien gida bat ere izango dena, orobat.

Edukiei dagokienez, jasotako ekarpenetatik hainbat **puntu kritiko behin eta berriz** ondorioztatzen dira, eta, beraz, Liburu Zurirako **aurkibide zirriborro** gisa planteatu daitekeela uste da. Dena den, eta talde gehientzako **aldamio komun hauetatik abiatuz**, jasotako **ezberdintasun** zenbait ere azpimarratuko da.

Zenbait ekarpenek azpimarratzen dute liburu hau praktikoa egin dezaketen **nolakotasunak definitzeko** garrantzia, bai **eduki** horiek **jasotzeko moduan** (prozesuaren azken emaitzak aplikagarria eta ulergarria izan behar duela uste izanik); beste batzuek, aldiz, nabarmentzen dute **Liburu Zuriaren parte-hartze prozesua** bera izan behar den praktikoa eta ulergarria.

Ze eduki izan behar du Liburu Zuri honek?

Jarraian, jardunaldian jasotako ekarpenei jarraikiz, Liburu Zurian jaso beharreko edukien eskema aurkezten da:

1. Liburu Zuriaren **helburuen azalpena**
2. **Marko kontzeptuala: oinarri komun bat**
3. **Analisisa eta prospektiba**: hasi baino lehen, non gauden eta nora heldu nahi dugun.
4. **Parte-hartzea: nork eta zertarako?**
5. **Zertan parte hartu**: parte-hartzearen eremuak eta dimentsioak
6. **Nola parte hartu**: kanalak, espazioak, mekanismoak eta metodologiak.
7. Parte-hartzearen **eraginak eta ondorioak** eta **aldaketa-prozesuak**
8. **Egiazki hasiera diren ondorioak**: eta nik zer egin dezaket?

Hainbat ekarpen bildu ziren puntu horietako bakoitzerako, puntu bakoitzean landu beharreko aspektu kritikoak agertzen zituztenak (definitzea, mugatzea, eraikitzea, ñabartzea...). Ekarpen horietan, eraikuntza partekatuko prozesu hauetan gertatu ohi diren bet-egiteak zein desadostasunak ageri dira.



1. Liburu Zuriaren helburuen azalpena

Atal honen xedea Demokrazia eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuri honen **zergatia** definitzea litzateke, zer lortu nahi den bere lanketa parte-hartzailearen bidez eta zein den haren planteamenduan dagoen apustu eta borondate politikoa: Euskadirako gobernatzeko eredu berri bat zirriborratzeko eta ezartzeko beharra, etorkizunik onenera bideratzen lagunduko diguna herritarren parte-hartzearen esentziaren bidez.

Europako testuinguruan eta parte-hartzearen esparruan, Europako hainbat erakundek (Batzordea, Komitea...) burututako lanean kokatu beharko litzateke, europar izaerako beste ekimen batzuekin lerrokatuz.

Azpimarratu behar da haren **praktikotasuna** eta egoera eta espazio ezberdinetan moldatzeko eta aplikatzeko duen gaitasuna. **Aplikatzekoa, erabiltzekoa eta jardun publikokoa** izan behar du, eta ez da Administrazioarentzat soilik balio duen eta gidari den erreferentzia gisa planteatu behar. Halere, Administrazioak, arau gisa, Liburu Zurian jasotzen dena bere gain hartzeko **konpromiso etikoa (eta baita legezkoa ere)** hartu behar luke, edukiari eta formari dagokionean.

2. Marko kontzeptuala: oinarri komun bat

Atal honetan, beharrezkotzat jotzen da hurrengo kapituluaren oinarriak ezarriko dituen marko kontzeptual bat zirriborratzea, **oinarrizko kontzeptuak eta horien irismena definituz**. Parte-hartzea **zer den eta zer ez** definitu behar da ahalik eta soilen, eta ahalik eta argien utziz *zertaz dihardugun eta zertaz ez*.

Atal honetan, interesgarritzat jo da dauden parte-hartzeko **eredu ezberdinak** zein diren jakin eta azaltzea, haren alde on eta txarrak (hainbat eragilerentzako inplikazioak, administrazioarentzat eta herritarrentzat, batez ere), eta parte-hartzetik sortzen diren **balioak** erakustea (etika, gardentasuna, konpromisoa, sormena...), berrikuntza sozialaren berezko balioak direnak. Parte-hartzeko ereduak dagokienez, adierazten da landu nahi den Liburu Zurian planteatzen den parte-hartzeko kontzeptuak **zuzenean kanpo utz dezala erabakiak hartzea, kudeaketa partekatua. Gobernu parte-hartzaile baterantz** jotzeko unea dela uste da (gobernu irekien prozesuetatik).

Azkenik, azpimarratzen da, prozesu honetan zehar, *gehiengo batzuetara iriste hutsak gutxieneko akordioetan uzten gaituela batzuetan*, eta positiboa dela **kontsentsuaren** edo izendatzaile komunaren bila jardutea, hori ez da **aitzakia izan behar** parte-hartzearen inguruan **ikuspegi ausartenak biltzearen alde egiteko**. Honela, marko teoriko partekatu argi batetik abiatzea aholkatzen da, ez soilik gehiengoak sentitutakoa biltzen duena, **orobat biltzen** duena gutxiengoak, aniztasuna, parte-hartzeari buruzko teoria berriak barne hartzea, eta, era berean. aholkatzen da beharrezko baldintzei heltzea atal honetan parte-hartzea gerta dadin (borondatea, denbora, baliabideak, espazioak, kanalak, informazioa, eta abar).

3. Analisia eta prospektiba

Beharrezkoa da Liburu Zurian **abiaburuko egoeraren analisia edo diagnosis** sartzea (*hasi baino lehen, non gauden*), Euskadin parte-hartzeak duen egungo argazkia biltzen duena: esperientzia berriak, Euskadin parte-hartzeak duen tradizioa (*auzolana* aipatzen da, esate baterako).

Horretarako, **AMIA** bat egitea planteatzen da, parte-hartzearen indarrak eta ahuleziak biltzeaz gain, berau garatu ahal izateko mehatxuak eta aukerak ere aztertuko dituen, *nora heldu nahi dugun* beti presente izanez.

Interesgarritzat jotzen da diagnosi hori **erreferentziako praktiken analisi** batekin osatzea (funtsezkoan, ez formari dagokionean soilik) **toki-mailan zein nazioartean**, arlo honetako artearen egoera hobeto ezagutzeko. Arrakasta izan duten esperientziak zein "porrotak" aztertzeko aukera ere planteatzen da.

4. Parte-hartzea: nork eta zertarako?

Atal honen izenburuak adierazten duen bezala, beharrezkoa da parte-hartzearen zergatia eta prozesu-mota hauetan pertsona bakoitzak hartzen duen inplikazioa definitzea. **Bi parte-hartze mota** nabarmentzen dira: Administrazioek bultzatutakoa eta herritarrek bultzatutakoa (*autogestionatua*). Biak artikulatu behar dira, batari edo besteari betoa jarri edo bata bestea baino gehiago baloratu gabe.

Idea honi loturik dago konpromisoak (errealak) hartzea eta parte-hartzeko prozesuei lotutako edo lotu gabeko erabakitze gaitasuna, partziala edo osoa. Parte-hartzeko prozesuen **mugak eta mugaketak** (zein diren, baldin badaude) eta parte-hartzeko **parametroak** eta **joko-arauak** definitzeko beharra ezein parte-hartzeko dinamika edo prozesu abiarazi baino lehen (are gehiago, parte-hartzea "egituratzea" bilatzen bada).

Parte-hartzeak, publikoa denaren ekarpen gisa ulertua, harekin dakartza bermatu eta bete beharreko eskubideak eta betebeharrak, eta eginkizunak, konpromisoak eta balioak hartzea.

Marko horretan, beharrezkoa da parte-hartzearen eragileak identifikatzea, erakartzea, aktibatzea, artikulatzea... Parte-hartzearen bi jatorri horiek (Administrazioak sustatutakoa eta herritarrek sustatutakoa) **parte-hartzeko bide** ezberdinetara garamatzate, zeinetan eragileek (administrazioek, erakundeek, herritarrek) sustatzailearen zein parte-hartzailearen rola har baitezakete berdin-berdin, eta **parte-hartzearen subjektu eta objektu** izan daitezke aldi berean (parte-hartzeak eragile publikoak eta pribatuak bildu behar dituela ahantzi gabe, betiere).

Jasotako ekarpen batzuek dikotomia horrek parte-hartzearen perbertsioren bat ekar dezakeela diote (eraikuntza partekatua eredu gisa ulertua), eta, honela, parte-hartzearen esparruan intereseko taldeak edo berriazko eragileak egoteari buruzko eztabaida irekitzen da (kasu zehatz bakoitzerako).

Edonola ere, akordio zabala dago, batetik, aniztasunen (generoa, ezintasuna, sexua, immigrazioa...) presentzia bermatzeko behararen inguruan, izan maila indibidualean zein kolektiboan (interes indibidualen eta/edo kolektiboen adierazgarri, ondasun komuna) eta parte-hartzeko prozesu osoan eta, bestetik, helburu argiak, betegarriak eta maila guztietan (diseinuaren fasea funtsezkoa da) emaitza neurgarriak izateko behararen inguruan.

5. Zertan parte hartu

Parte-hartzearen esparruei dagokienean, ez dago bertaratuen arteko adostasun argirik prozesu parte-hartzailearen edukia (edo objektua) zenbait esparrutara soilik mugatu behar izateari buruz (denari ekin dakioko parte-hartzetik?)



Zenbait esparrutara mugatze posible hori argudiatua dago, zenbait kasutan, erreferentziatzen prozesuari edo erabaki-motari lotutako erabaki-maila hartuta, eta, besteetan, berarekin dakartzen jardueren izaeraren arabera ("estrategikoaren" eremuko parte-hartzearen derrigortasuna planteatuz, ez kudeaketaren eta burutzapen operatiboaren dimentsioan). Parte-hartzeak zein erabaki publikotan duen zentzua eta zeinetan ez erabakitzea litzateke, finean.

Talde batzuetan esparruen zerrenda bat ere planteatzen da, interes orokorreko eta ondasun publikotzat hartuak, nahitaez partaidetuak behar luketenak (hirigintza, hiri-plangintza, berdintasuna eta osasuna, gaztaroa eta zahartzea, bizi osoko ikasketa, lana, ingurumena...) Dena den, parte-hartzearen inguruabarrei buruzko (haren irismena, helburua -kontsulta egitekoa, erabakitzea...) argitasunaren garrantzia nabarmentzen da oro har, itxaropenak ez zapuzteko.

6. Nola parte hartu:

Nola parte hartu galderari ekitea zer galderari ekitea bezain garrantzitsua da, eta horrelaxe islatzen dute parte-hartzaileen ekarpenek. Prozesu parte-hartzaileen **kanal eta espazioen, mekanismo eta metodologiaren** inguruan eztabaidatzea planteatzen da, egoera bakoitzaren **abantailak eta desabantailak** aztertuz.

Azpiratzen da toki-mailan zein lurralde-mailan garatzen diren prozesuei bideek erantzuna ematearen garrantzia, prozesuen eskalari lotutako berezitasunei erantzunez. Halaber, eta kanalei dagokienean, kanal presentzialak eta ez-presentzialak konbinatzeko beharra zirriborrotzen da, gisa horretan parte-hartzaileak hautatzea ahalbidetuz. Irekiera horri eusteari dagokionean, aniztasunaren **formatu** egokiak planteatzea proposatzen da, denek eskuratu eta ulertzeko modukoak eta euren diseinuan aniztasuna barne hartzen dutenak (generoa, adina, soziala...) eta prozesuetan egitura arin batekin sustatzen direnak, burokraziarik sortzen ez duten administrazio-eskakizunik gabe.

Metodologiei ekiterakoan, *nola egin* nabarmentzea proposatzen da, **malgutasun eta hurbiltasunetik** betiere, eta jada badauden kanal eta espazioak optimizatuz, metodologiaren garrantzia azpiratuz, baina definitu gabe, *galderei erantzutera* iritsi gabe. Kontua ez da jarraibide zehatzak ematea, horiek sortzea baizik, egindakoa nabarmentzea eta prozesuak "kopiatzea" saihestea. **Informazio-fluxuaren kudeaketa dinamikoa eta bi noranzkoko** (hizkuntza, terminologia komuna, plangintza, irisgarritasuna), era berean, bertaratuentzat, parte-hartzeko prozesuei sinesgarritasuna emateko giltzarrietako bat da.

7. Parte-hartzearen eraginak eta ondorioak eta aldaketa-prozesuak

Parte-hartzea prozesu gisa ulertzen badugu, haren eraginak eta ondorioak aintzat hartu behar ditugu, eta, beraz, **komunikazioa, ebaluazioa, aitortza eta ikaskuntza** giltzarri dira haren eragina baloratzeko.

Komunikazio-esparruari dagokionean, egindako ekarpenetatik ohartzen gara parte-hartzearen garrantzia eta **aitortza soziala** nabarmendu beharraz, giltzarri gisa. Gai izan behar dugu lan kolektiboaren alderdi positiboak ikusteko, gure inguruko pertsonak eta eragileak informatzeko eta motibatuzko.



Liburu Zuriak parte-hartzea herritarrengana helarazteko eta ilusioa pizteko mekanismoak bildu beharko ditu. **Legezko zenbait alderdi** sartzeak (babesa, segurtasuna...) eta Administrazioaren eta herritarren betebeharrak eta eskubideak zehazteak publikoa denaren balioa handitzen lagun dezakete.

Nahitaezkozat jotzen da parte-hartzeak sortzen dituen **eraginaren ebaluazioa eta neurketa** lantzea. Horretarako, prozesua bere osotasunean neurtzeko adierazleak hartu eta/edo landu beharko dira (ez prozesuaren amaieran bakarrik), partaidetzako jarraipen-mekanismoak eta kontuak emateko mekanismoak ezarriz (*egiazko gardentasuna*). *Epaitegi etikoaren* edo *sindikoaren* figurak tresna baliagarriak izan daitezke horretarako, auto-eskakizunerako eta auto-ebaluaziorako neurriak hartzeko beharraz haratago.

Jardunaldiko ekarpenetan ikus daitekeen akordio nagusienetako bat parte-hartzea baloratzeko behararekin lotuta dago, ez haren emaitzengatik soilik, baina **ikasprozesu** gisa egiten duen ekarpenarengatik ere, zeinetan gure balioetatik gure jarrerak garatzen baititugu (ikasketaren esparru pertsonala), esparru komuneraino eramaten gaituztenak.

Parte-hartzeak eragiten dituen aldaketa-prozesuak esparru pertsonalean, antolaketari buruzkoan eta sozialean gertatzen dira. Ikasketak "eseri eta entzun" egoeratik "nik erronka planteatzen dizut", "hemen gaude, banaiz, parte hartzen dut, ikasten dut" egoerara eramaten gaitu. Horretarako, funtsezkozat jotzen da hezkuntza-eragileak (eskola, familia...) barne hartzea jakin dezaten eta ikaskuntza-prozesu honetan lagun gaitzaten (haurtzaroan zein helduaroan, erakunde-edo administrazio-mailan zein informalean eta komunitarioan). **Parte hartzeko hezte**a (barne-antolaketa eta belaunaldi-arteko maila ezberdinetan) gaitzen eta ahalduntzen gaituzten entrenamenduko abilezia- eta prozesu-garapenean laguntzea da.

Parte-hartzearen balioa ikaskuntza pertsonaleko eta irakaskuntza kolektiboko prozesu gisa, haren ordain emozionalak –bertaratu ziren batzuek aipatzen duten bezala– "herritar" bilakatzen gaitu "ergel" izateari uzteko. Parte-hartzea **kultura demokratikoko** funtsezko ardatzetako bat da.

Baina parte-hartzaileen iritziz, aldaketa horiek **egitura berriak** behar dituzte, administratiboak bereziki, parte-hartzeari egokituak. **"Parte-hartzea burokratizatze**ko" beharrez ere jarduten da, herritar ororentzat ulergarri eta eskuragarri bilakatuz, sail-arteko, erakunde-arteko kooperazio-printzipioetan eta jarduera publikoa herritarren beharrezanetarako berrorientatzean finkatuz. Horretarako, **barne-kudeaketako prozedurak eta jarraibideak** aldatu bakarrik ez, administrazioaren barne-harremanetako parte-hartzea inokulatu ere egin beharko da, zilegitasuna eta erabakiak hartzeko ardura duten pertsonen konplizitate bilatuz, informatzearen kulturatik kontuak ematera eramango gaituena, gutxienez.

8. Egiazki hasiera diren ondorioak: eta nik zer egin dezaket?

Liburua ixteko, proposatzen du hurrengo urratsen zerrenda bat lantzea, berau lantzen parte hartu duten pertsonak eta erakundeak konprometituko dituen eta abiarazitako prozesuari jarduera zehatzen bidez jarraitutasuna emango dietena.

Landu litezkeen zenbait jarduera planteatzen dira, berau betetzeko epeak (epe laburrera eta ertainera) eta nahikoa baliabide ezarriz:

- Herritarren lantaldeak eta/edo herritarren ekimenak bultzatzea kritikotzat jotzen diren esparruetan hedadura duten 4-5 proiektu-pilotu martxan jarriz (gazteak, droga-mendekotasuna, lokalak, komunikabideak...) eta horien lanketan lagunduz.
- Dekalogo bat lantzea: zer da, zertarako da, eta, batez ere, zertara konprometitzen gaitu berariaz.
- Euskal Herrian parte-hartzearen inguruko kulturari eta jakituriari buruzko ikerketa aplikatuko azterketa bat martxan jartzea (zein jardunbide egoki dugun eta zertan hobe dezakegun).
- Liburu Zuriaren edukiei buruzko barne-prestakuntzako prozesu bat Herri Administrazioako langileen artean (teknikariak eta politikariak), bertan jasotakoa errealitate bihurtuko duen kultura-aldaketa bat ahalbidetzen duena.
- Euskal herritarren parte-hartzea sustatzeko komunikazio-estrategiak eta biltze/aktibazio-estrategiak.
- Euskadirako parte-hartzearen ibilbide-orri bat lantzea, Legebiltzarrean aurkeztuko dena eta denboran iraungo duen akordio politiko eta instituzional baten sorburu izango diren adostasun politikoak bilduko dituen (parte-hartzea "gotortzea" eta alderdikeriazko borrokatik ateratzea).
- Parte-hartzea erraztuko duten baliabideak identifikatzea eta publikoaren eskura jartzea.
- Parte-hartzea arautzea parte-hartzeari buruzko araudia onartuz.
- Hezkuntzaren esparrurako proposamen didaktikoak (*eskolatik hasi beharra dugu*) eta kurrikulumean sartzea.
- Kontsulta izaerako organoen ordenazioa eta funtzionamendua berrikustea berau birmoldatzeko.

Nola landu behar dugu Liburu Zuri honen prestaketa praktiko gerta dadin?


Atal honetan, eta **azken emaitzari** aipamen eginez, Liburu Zuriaren idazketan sar daitezkeen elementuak iradokitzen dira izaera praktikoagoa izan dezan, eta Liburuaren alderdi teorikoenean lantzen denarekin koherentzian baloratu beharko da berau sartzea. Azpimarratzekoak:

- Termino-giltzarrien glosario bat, hizkuntza komun eta zuzenekoak.
- Erreminta-kutxa bat, ez jarraitu beharreko eredu bat emateko, baizik eta ikusten laguntzeko eta hauek barne hartzeko balio duena:
 - Ikaskuntzak
 - Prozesu bat kalitatezkoa izateko orientazio-irizpideak: prozesu ezberdinetarako, denbora egokiak, eman beharreko informazioa, beharrezko masa kritikoa...
 - Jardun onei lotutako metodologiak
- Bibliografia-erreferentziak, testu nagusiaren trinkotzea saihestuz
- Adierazle bisualak euskarri publiko batean
- Liburua aldakorra izan daiteke? Birpasa dadila, alda dadila... ez dadila itxia izan.
- Esperientziak edo parte-hartzeko forma berriak sartu



Prozesuari dagokionez (nola egingo dugu praktiko, ulergarri eta eskuragarri?), jarduketa hauek iradokitzen dira:

- "Besteak" sartzea: eragileen eta ikuspegien aniztasuna, eztabaida herritarrei eta parte hartu ohi ez duten pertsoneri irekitzea. Parte-hartzeak plurala izan behar du.
- Prozesuan egon behar duten eragileak identifikatzea. Egon behar duten eragile guztiak daude? Aniztasun eta konplexutasun soziala ordezkatua egon dadila.
- Prozesuaren kronograma eta haren mugarri nagusiak ekartzea eta komunikazioa trinkotzea prozesuan zehar.



DEMOKRAZIARI ETA HERRITARREN PARTE-HARTZEARI BURUZKO EUSKADIKO LIBURU ZURIRANTZ

**PROZESUAREN 2. JARDUNALDIKO
ONDORIOAK
VITORIA-GASTEIZ, 2014KO MARTXOAK 21**



Sarrera

2014ko martxoaren 21ean izan genuen demokraziari eta herritarren parte-hartzeari buruzko Euskadiko Liburu Zuria eraikitzeke herritarrekin batera lantzen ari garen parte-hartze prozesuko **bigarren jardunaldia**, joan zen abenduaren 18an Bilbon hasitako Demokraziari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuria eraikitzeke prozesu partekatuan aurrera egiteko xedearekin.

Bigarren jardunaldi hau Gasteizen izan zen, Udalarekin elkarlanean, eta 80 eragile baino gehiagok hartu zuten parte: pertsonak, herritarren erakundeetatik zetozenak, herritarren parte-hartzean adituak eta erakunde publikoak. Baina, oraingoan, Gasteiz hiriko **elkartesarearen presentzia handia** nabarmendu nahi dugu, izan ere, bai saio nagusian eta bai parte-hartzearen inguruan sortu ziren hainbat eztabaidatan hartu baitzuten parte.

Lehenik, jardunaldiari hasiera emateko, sarrera labur bat eskaini zen Demokraziari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuri hau egitearekin lortu nahi diren helburuak gai hartuta, izan ere, 2013ko abenduan prozesuaren **sustapen saioa** egin zenean adierazi zen bezala (ikus [1. jardunaldiko ondorioen dokumentua](#)), Euskadiren eraikitze demokratikoan aurrera egitea ekarriko du horrek, herritarren parte-hartzea kudeaketa publikoan txertatzea ahalbidetuko baitu hainbat helbururekin: gobernuak sendotzea, politika publikoak zilegitzea, gizarte pluraltasuna sustatzea, gizarte interesak agenda publikora gehitzen laguntzea, bizitza publikoa antolatzeke prozesuetan herritarrak inplikaraztea, eta gizarte zibilaren eginkizuna indartzea. Gizarteek ez dute, gaur egun, gogoeta kolektiboa eta beren potentzialaren erabilera etengabe praktikatzea beste aukerarik, ikuspegi partekatu baten bitartez, herritarren komunitatea giza aurrerabide iraungarri baten alde elkartzeko.

Ondoren, **prozesua** deskribatu zen, zeina kanpoko eragileekin batera ari baita garatzen berariazko saio hauen bitartez; hala, joan zen abenduko lehen jardunaldian plazaratutako gai espezifikoko ari dira jorratzen, beharrezkoa ikusten baita esandako gaien gainean eztabaidatzea. Gainera, iruzkinak egin ziren hainbat mailatan eta [paraleloki garatzen ari diren beste prozesu batzuez](#), non euskal gizarteko hainbat kolektibo ari baitira parte hartzen. Kolektibo horien ekarpenak oso garrantzizkoak jotzen dira prozesu honetan zehar lortzen ari garen emaitzak finkatzeko (kolektiboen ondorioen dokumentua). Ildo horretan, topaketak egin dira –edo egingo dira– gazteekin, adineko pertsonekin, ahalmen-urritasuna dutenekin, etorkinekin, eta beste hainbat kolektiborekin. Hortik lortzen diren emaitzak ere eraiki nahi dugun Demokraziari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zurian jasoko dira.

Administrazioaren konpromisoak

Lehen saioan, Josu Erkoreka sailburuak aipatu zuen **arduradun politikoek, abiapuntuko baldintza gisa, konpromiso argia dutela prozesu honekin**, eta, zentzu horretan, Eusko Jaurlaritzak konpromiso zalantza gabea duela adierazi zuen demokrazian eta herritarren



parte-hartzean sakontzeko, eraberritze politikoa xede duen prozesu bat aurrera eramanez eta elkarrizketa eta gardentasun printzipioak biziberrituz. Herritarrekiko elkarrizketa prozesu hori beharrezkoa da arazoei ekiteko, entzuteko, eta soluzioak partekatzeko; gardentasuna ere premiazkoa izango da herritarrek, uneoro, politika publikoei buruzko informazioa izan dezaten, autokritikatik eta apaltasunetik abiatuta, etengabe hobetzeko espirituarekin. Azken batean, prozesu honen bidez, **erreferentzia-esparru bat sortu nahi da Euskadira gobernantza-eredu berri bat bultzatzeko, mobilizatzeko eta garatzeko.**

Lehen jardunaldiko ondorioen dokumentuan Eusko Jaurlaritzari behin eta berriro eskatu zitzaionez azal zitzala garbi zein diren bere gain hartzen dituen konpromisoak Demokraziari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuri hau prestatzean, bai hasitako prozesuari dagokionez eta bai berorretatik lortzen diren emaitzen erabilgarritasunari buruz, instituzioen aldetik, Eusko Jaurlaritzak prozesu honetan bere egiten dituen konpromisoak aurkeztu ziren, hau da, hainbat maila eta esparrutan garatzen ari den ekimen honekiko duen inplikazioa.

Hona zein diren **konpromiso** horiek:

Konpromiso-esparru partekatu batetik

Prozesu parte-hartzaile inklusibo bat gauzatzea, hainbat interesetako pertsona *eta* taldeen proposamenei harrera egiteko dinamikak eta kanalak aurreikusiko dituen

Gardena, gaiari buruzko adostasunak eta desadostasunak leialki islatuko dituen, baita lortzeko behar diren baliabideak ere

Eskuragarria, ondorioztatzen den informazioa herritarrek ulertzeko moduan hurbilduko duena



Eragileen arteko lankidetza bultzatuko duena; helburu bera duten artekariez baliaturik, kanalak eta bitartekoak erabiliko ditu ahalik eta kolektibo gehienetara heltzeko, ahalegin eta bitarteko bikoiztasunak ekidinez eta funtsezkoak ez diren aurrekontu-baliabideen kontsumoa saihestuz

Berritzailea, metodologia eta bide berriak erabiliko dituena kolektibo desberdinen sentsibilitateak, iritziak eta ikuspegiak jasotzea errazteko

Jaurlaritzaren **lidergo politikoarekin**, Liburu Zuria gizartearen aurrean aurkeztea konpromisoaren erakusgarri ez ezik, eztabaidarako akuilu izan dadin, eta erakunde guztiek aintzat har dezaten.

Konprometitua, adostasun zabala lortzen duten eta beren garapena bermatzeko tresna arautuak behar dituzten gaiak arau-proposamen bihurtzeko. Bereziki, Euskal Administrazio Publikoaren Lege Aurreproiektuaren prestakuntzarekin bat etorririk, hainbat konpromiso hartuko dira aurreproiektu horretan, herritarren parte-hartze eskubideen aitortza, sustapen-neurriak, eta parte-hartze prozesuen eraginkortasuna bermatuko duten oinarritzko hainbat tresna aintzat hartuko dituztenak.

Eredugarria, parte-hartze prozesuaren jardunbide egoki gisa balioko duena, bere eraginkortasunagatik eta herritarrekiko sortze prozesu baten oinarritzko printzipioei erakusten dien errespetuagatik

Esperimentala, esperientzia berritzaileak abian jarriko dituena, gure kultura demokratikoan berriak izan daitezkeen eta parte-hartzea errazteko beste formula batzuk esperimentatzea ahalbidetuko duten bizpahiru proiektu piloturen bitartez

Jarraitasun bokazioa duena, Administrazioan gai publikoak kudeatzeko modu berri bat –herritarrekiko lankidetz– txertatzen saiatzeko

Denboran iraungo duena, eta enplegatu eta zuzendari publikoak ere inplikatu dituen, haien ikuspegia jaso eta aldaketarako motor lana egin dezan, gaur egun prozeduran gehiegi zentratuta dagoen Administrazioa herritarrengana orientatzen dadin.



Gainera, ondorengo **joko-arauak** erabaki dira prozesuan zehar aplika daitezzen:



Jardunaldian jorratzeko gaiak eta metodologia

Bigarren jardunaldi honetan, lehen jardunaldian jasota zeuden baina gehiago sakontzeko premia zuten zenbait alderdi jorratu ziren, hala nola:

- **Parte-hartzearen eta erabakiaren arteko lotura maila.** Zenbateraino dago parte-hartzea erabakiarekin lotuta?
- **Kalitateko parte-hartze prozesuak garatzeko kanalak eta metodologiak.** Zeintzuk bai? Zeintzuk ez? Norentzat, eta noiz?

Coach and Play enpresak jardunaldirako berriaz diseinatutako metodologia baten bitartez (BEGITHINK), jorratu beharreko gai bakoitzaren inguruko zenbait baieztapen bitarteko gisa erabilia, esparru bakoitzera hurbiltzeko balio zezaketen argudioak eta posturak kolektiboki aztertzen eta sortzen saiatu ziren; zehaztapenetara heltzeko elkarrizketak lotzeko ahaleginak ere egin ziren, gai bakoitzaren formulazioa begirada eta sentsibiltate desberdinen ikuspegitik egiten saiatuz.

Ondorengo eskeman ikus daitezke saioan jorratu ziren esparru bakoitzerako egindako baieztapenak eta haietako bakoitzerako aurreikusi ziren begirada desberdinak:

begiTHINK aurturatzeak begirada sozialera		Parte-hartze loteslea			Parte-hartze kanalak		
		Sustatzailearentzat loteslea ez den parte-hartze prozesu edo momentu oro iruzur bat da	Herritarren parte-hartze arduratsurako gaitasun pertsonalik ez izateak zaildu egiten du prozesuak lotesleak izatea	Parte-hartze momentuak edo prozesuak jorratzen duen arazoaren izaeraren arabera, parte-hartzea loteslea izan daiteke edo ez	Ekimen publikotik sortzen diren parte-hartze prozesu formalak erreminta baliagarriak eta eraginkorrek dira gobernantza inklusiborako	Gizarte sareak dira tresnarik erabilgarrienak XXI. mendean herritarren parte-hartzea artikulatzeko	Lehetasuna dute herritarren ekimenak (banakakoak zein taldekoak) Administrazioarekin konektatzen dituzten euskarriek
BEGIRADA SOZIALA	Asaldura Autokonplazentzia Beligeranta Arduraduna	i					
BEGIRADA ARRAKASTA	Populismoa Efizientzia Demokrazia		i				
BEGIRADA FUNTZIONALA	Gaitasuna Konplexutasuna Especializazioa			i			
BEGIRADA JARRERAZKOA	Eraikitzailea Suntsitzailea Berdin dit Utopikoa				i		
BEGIRADA HISTORIKOA	Honela koxeai izan zen Honela koxeai da Honela koxeai izango da					i	
BEGIRADA EGITURAZKOA	Erakundeak Pertsonak Erakundeak Alderdi politikoak						i

1. Parte-hartzearen eta erabakiaren arteko lotura maila

Demokraziari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuriaren 2. jardunaldian eztabaidatutako lehenengo eduki-ardatza izan zen **zenbateraino dagoen edo egon behar duen parte-hartzeak** hura motibatzen duten arazoei buruz **erabakitzeko ahalmenari lotuta**. Horretarako, ondorengo baieztapenen inguruan lan egin zen:

- *Sustatzailearentzat loteslea ez den parte-hartze prozesu edo momentu oro iruzur bat da*
- *Herritarren parte-hartze arduratsurako gaitasun pertsonalik ez izateak zaildu egiten du prozesuak lotesleak izatea*
- *Parte-hartze momentuak edo prozesuak jorratzen duen arazoaren izaeraren arabera, parte-hartzea loteslea izan daiteke edo ez*

Paragrafo honetan jasotako ekarpenak ondorengo hauek dira:

Parte-hartzeak loteslea izan behar al du?

Adostasun zabal bat dago dioena **herritarren parte-hartzeak, loteslea izan baino gehiago, eragina izan behar duela gobernu-ekintzan**. Alegia, motibatzen duen xederako erabilgarri izan behar du. Prozesuaren sustatzailearen papera nabarmendu da, berak erabaki eta komunikatu behar baitu parte-hartze prozesuaren hasieran, zer irismen eta eragin izango duen azkeneko erabakian. Hau da, kontsultaren xedea erabaki bat hartzea baldin bada,

parte-hartzeak loteslea izan beharko du, baina beti ez da beharrezkoa baldintza hori parte-hartzeak balioa izan dezan eta herritarren iritzia kontuan hartua izan dadin.

Zentzu horretan, ezinbestekoa jotzen da **beharrezko informazioa prozesuaren eskura jartzea, arrakastarako lehen urrats gisa**. Hasieratik esperantzak doitzea eta behar bezainbeste informazio izatea elementu giltzarriak dira herritarrek beren gain har dezaten parte-hartzeari estu lotuta doan erantzukizuna.

Erantzukizun partekatuaren ideia horretatik, nabarmendu nahi izan da, orobat, parte-hartzeak bere mugak izan ditzakeela, pertsona guztiak ez baitira gai sentitzen (edo ez daude prestaturik) zenbait gairi buruz erabakiak hartzeko (edo iritzia emateko). Kasu horretan, **parte-hartzearen kalitateak eta kantitateak** zuzeneko eragina izan dezake berorren kalitatean, eta hortaz, kontuan hartu beharko da.

Baina, zer da «herritarren iritzia kontuan hartzea»?

Onarturik erabateko lotura ez dela ezinbesteko baldintza parte-hartze prozesu batean, nahitaezkoa jotzen da, aldiz, **parte-hartze prozesu orotan sustatzaileak minimoen konpromiso bat hartzea parte hartzera deitzen dituen pertsonekin**. Konpromiso hori, lehenik, soluzio partekatuak sortzeko herritarren parte-hartzeak duen balioa aitortzean oinarrituko da, inor kanpoan utzi gabe ezagutza espezifikoak ez dituelako edo desiragarriak liratekeen gaitasunak falta zaizkiolako.

Entzuteko gaitasuna ere, egiaz entzuteko jarrera gisa ulertuta, ezinbesteko alde aurreko urratsa da. Behin prozesua hasita denean, beharrezkoa da aitortzea bertan jasotako ekarpenen balioa eta ekarpen horiek parte-hartzearen xedearen inguruko lan-lerroak markatzeko balio behar dute. Gainera, premiazkoa izango da **prozesuaren emaitzak berriro herritarrei jakinaraztea**, eta adierazi beharko da zer gaik izango duten zuzeneko eragina azken erabakian (eta zergatik) eta zein izan diren atzera bota direnak (eta zergatik).

Botere publikoek egiten duten parte-hartze prozesuen erabilera txarrari buruzko pertzepzioa –egiazkoa izan edo ez– eta parte-hartzea aintzat hartu izan ez den hainbat prozesuren inguruan sortutako konfiantza eza eta frustrazioa direla eta (esperantzak egoki kudeatu ez zirelako, gaizki jakinarazi zirelako edota erabilera txarraren eraginez), guztiz premiazkoa da, ezinbestean, konpromisoa hartzea eta **hasieratik zehaztea zer nolako eragina izango duen parte-hartze prozesuak erabakiak hartzeko orduan**.

Prestatuta al gaude parte hartzeko? Prestatuta al gaude gure erabakiek espazio publikoan benetako eragina izan dezaten? Nahi dugu, badezakegu, badakigu?

Erabakiak hartzeko espazioak eraldatzeko xedez parte-hartzea palanka gisa erabiltzeko ahalmenei, gaitasunei eta desioei buruz jasotako ekarpenek herritarrei ez ezik, Administrazioari ere egiten diote erreferentzia.



1. Pertsonak / Herritarrak

Lehenik azpimarratu da pertsona guztiek dutela nahikoa «zentzu komun» eta ez dela titulurik edo prestakuntza teknikorik behar parte hartu ahal izateko: **hortaz, mundu guztiak du «parte hartzeko gaitasuna»**, izan ere, neurri batean, pertsona batek prozesu batekiko duen interesak markatzen baitu gaitasun hori. Alegia, informatu den eta prozesuan parte hartzen duen pertsona orok (trebezia handiagoarekin edo eskasagoarekin) adierazten du iritzia eman nahi duela, informazioa nahi duela eta, erantzukizunetik, erantzun kolektibo baten parte izan nahi duela. Borondateak, kasu hauetan, garrantzi handiagoa du gaitasunak baino.

Onartu badaiteke ere badirela zenbait gai alde zuzeneko ezagutza espezializatua eska dezaketena, parte hartu duten pertsonen iritzien diote berriazko ezagutza hori duten pertsonen galdetuta prozesu batean lor genitzakeen «erantzun onetatik» harago, **azken emaitza askotarikoagoa eta konpondu nahi den arazora hobeto egokitua izango litzatekeela parte-hartzea orokorra baldin bada eta ikuspegiak zabalagotzen badira.**

Nahiz eta jendea ados dagoen «**parte hartzen ikasi**» beharra dagoela eta onartzen den herritarrei mota honetako prozesuetan esperientzia falta zaiela (eta, batzuetan, mendekotasunak dituztela), azpimarratu da, kasu askotan, **herritarren gaitasun eta ahalmen eskasia banderatzat erabili izan dela erabaki publikoak hartzerakoan herritarren ikuspegi gehitzea ez sustatzeko.**

Beste batzuetan, **herritarrak eurak izan dira, nolabait, beren buruari parte hartzeko langak jarri dizkiotenak**, uste izan dutelako ez dituztela horretarako beharrezkoak jotzen dituzten ezagutzak, edota ez daudela behar bezala gaituta erabakiak hartzeko; horregatik erakundeen eta intereseko taldeen esku utzi dituzte haiengan eragina duten hainbat erabaki.

Hori dela eta **herritarren pasibotasun** sentrazio bat zabaldu da eta pertsona askok iskin egiten diote espazio komunaren eraldaketan dagokien rolari eta, gehienez ere, beren ahotsa edo iritzia entzuna izatea besterik ez dute bilatzen. Baina **herritarrak oso kapaz dira eragin handiko aktore politiko izateko, guztiok baikara «bizikidetzan aditu»**: nahiz eta, behin baino gehiagotan, ez den erraza izaten posturak bateratzea eta interesak elkartzea; arazoak guregan eragina badu, gaitasunez erantzungo dugu guztiok.

2. Sustatzaile papera: administrazioak

Parte-hartze prozesu bati ekin aurretik, garrantzitsua da Administrazioek horretan sinestea. Hau da, parte-hartzeak diseinua eta politika publikoaren talka hobetu ditzakeela sinestea. Gainera, prozesua sustatzen duten pertsonen zehaztu behar dute **zer konpromiso hartzen duten** prozesua sustatzean, haien borondatea faktore erabakigarria izango baita hura ondo atera dadin.

Ez dago ukatzerik **herritarren parte-hartzeak beldurrak eta zalantzak eragiten dituela Administrazioan**. Parte-hartzearen aurkako erresistentzia natural bat dago, **konplexuago egiten baititu plangintzak eta erabakiak hartzeko prozesuak**. Askotan ulertzen da parte-hartzeak berarekin dakarrela botere politikoa herritarren esku uztea, baina, oinarrian, botereen batuketa baizik ez da gertatzen.

Bestalde, **parte-hartze prozesu batek lidergoa eskatzen du**. Ardura nagusia prozesua sustatzen duenarena da, eta ez parte hartzera deituarena, beraz, beharrezkoa ikusten da **ideia sendoak dituzten liderrak izatea, parte hartzera motibatzen dutenak onartze borondatek abiatuta eta gaitasun kritikoarekin**. Horretarako, ezinbestekoa da **politikariek prozesuetan gehiago parte hartzea, lehen eskutik ezagutu ditzaten herritarren iritziak eta ikuspegiak eta, entzuteaz gainera, haien garapenerako oztoporik jar ez dezaten**. Administrazioak nahi baldin badu herritarrek parte-hartzea mezu hori helarazi beharra dauka (eta, askotan, esaten dena egiteak erakusten du ematen zaion garrantzia).

Parte hartu duten pertsonen prozesuari buruz ematen zaien **itzulerako** informazioa eta haien parte-hartzeak prozesuaren azken emaitzan izan duen **eragina** ere erabakigarriak dira. **Administrazioak ezin du ametitu herritarrek ikustea politika mailan «interesatzen ez denean», prozesutik ateratzen dena «moztu» egiten dela**, kasu horretan argi geratuko baita ez dela inoiz gauzak eraldatzeko egiazko borondaterik egon.

Azkenik, nabarmendu da askotan hitz egiten dela **herritarren gaitasun faltaz eta aitzakia gisa erabiltzen dela parte-hartze prozesuak ez artikulatzeko**. Baina, **zer esan politikarien gaitasunaz?** Ezinbestekoa da erantzukizun publikoa duten pertsonak ongi prestatuta egotea eta behar diren gaitasunak edukitzea parte-hartze prozesuak eraginkortasunez eta modu iraungarrian sustatzeko eta bultzatzeko.

Beraz, bi kasuetan, bai herritarren eta bai politikarien mailan, hiru dimentsiotan lan egin behar da: jakitea, nahi izatea eta ahal izatea.

Zeinahi parte-hartze prozesuren bizkarrezurra **jarrera** izango da, hau da, **lankidetzara eta ateratzen den emaitzetara irekita egongo den jarrera**. Gaitasunak parte hartu ahala hartzen dira, beharrezkoak baitira prozesu hauek garatzeko (garrantzitsuagoak dira entzuteko gaitasunarekin, negoziaketarekin, eta abar, zerikusia dutenak, gaitasun teknikoak baino), betiere ideia honetatik abiatuta: **«ikasteko eta irakasteko intentzioa dagoenean ikasten dugu»**.

Nolanahi ere, «jakite, nahi izate eta ahal izatetik» **harago, badira zenbait faktore baldintzatzaile parte-hartze prozesuaren kalitatean eta, hortaz, berorri itsatsirik doan lotura mailan zuzeneko eragina dutenak** eta, beraz, kontuan hartu beharko direnak:



Parte hartu aurretik: esperantzak, informazioa eta gardentasuna

- Asperdura eta desilusia emaitzetan eraginik izan ez delako.
- Beharrezkoa da azaltzea zergatik, nola eta zertarako den parte-hartzea («iruzur» sentsazioa ekiditeko era bakarra da). Informazioa lortzeko bakarrik den, soluzio partekatu batera heldu nahi den, erabaki bat hartu nahi den...
- Joko-arauak ezagutu behar dira prozesuaren aurretik (eta hasieratik).
- Zergatik ez suspertu eta motibatu parte-hartzea, enpresa pribatuak egiten duen bezala (pizgarri edo oparien bidez).
- Parte-hartzeak azalpen argiak eta zehatzak ematea eskatzen du: interesak, zer nahi den, ondorioak... Hori da erarik onena prozesuaren sustatzaileak informazioa manipulatzeko eragozteko edo prozesuaren beraren manipulazioa ekiditeko.
- Parte-hartzea sustatzeko edukiak egokitu behar dira: erabakia ez dute adituek soilik hartu behar, horregatik hainbat modu garatu behar dira herritarrek gai teknikoetan parte hartu ahal izan dezaten (ez dira berdinak herritarrentzat egindako dokumentu bat eta txosten tekniko bat, arreta berezia eskaini behar zaie itzulpenei...).
- Informazioa beharrezkoa da (argia, eskuragarria, baliabideak, mekanismoak...), baina ez herritarrek «intoxikatu» arterainokoa. Informazio faltak ezgai egiten gaitu, baina informazio gehiegik ere bai.

Nork parte hartu

- Lotura maila parte-hartze mailaren eta haren kalitatearen mende egongo da. Bi elementu horiek, neurri batean, zilegitasuna ematen diote azken emaitzari.
- Prozesuak kontuan eduki behar du aniztasuna bere diseinuan, hizkeran, gaietan,...
- Parte-hartzean zenbat eta aniztasun handiagoa izan, are handiagoa prozesuan ere.
- Askotarikotasuna da oinarrizko printzipioa eta ez da lortzen intereseko taldeetara mugatuz, antolatu gabeko herritarrek ere eduki behar dituzte parte hartzeko bideak.
- Belaunaldien arteko desberdintasunak, kultura artekoak,... beharrezkoak dira proiektuetarako, inklusiboak izan behar baitute (kolektiboak identifikatu behar dira)
- Gizarte geruza guztiek parte hartzen duten aztertu behar litzateke (zergatik bai eta zergatik ez) eta horrek proiektuei erantzen dien konplexutasuna balioetsi, eta urardotzeko arriskua.
- Parte hartzen parte hartuz ikasten da: «ni»tik «gu»ra igaro behar da, interes erkidearen ikuspegira.



Nola parte hartu

- Prozesuaren liderra Administrazioa baldin bada, hark bermatu behar ditu mekanismoak parte-hartze inklusibo bat sustatzeko, diseinutik hasita.
- Prozesuaren diseinua nolakoa den, zenbait pertsona «ezgai» bihur daitezke, edo ezingo dute parte hartu gutxieneko berme batekin.
- Lotura maila prozesua diseinatzen den unetik erabaki behar da, eta hasieratik azaldu behar dira bai prozesuaren faseak eta bai emaitzaren eragina. Parte hartzeko prozesu orok hasiera eta amaiera argiak eduki behar ditu.
- Prozesuak hainbat fasetan planteatu daitezke: lehen fasean iritzi guztiak hartuko dira kontuan, eta bigarren batean erabaki teknikoagoak hartuko dira (beraz, gaitasun desberdinak daude batean eta bestean). Nolanahi ere, prozesuak ez badu abian jartzen denetik parte-hartzea bermatzen ez da baliozkoa izango.
- Zuzeneko lotura egon behar du «nola» eta helburuaren (zer) artean. Erreferenduma ez da izango tresna bakarra.
- Orain existitzen diren kanalak ez dira herritar askorengana iristen. Pertsona guztiak dituzte ideia onak, arazoa da nola identifikatu eta garatu ideia horiek ekintza bihur daitezkeen.
- Arazoa ez dago gaitasunean, baizik eta nola parte hartzen dugun: guztiok dakigu eta egin ditzakegu ekarpenak

Zertan eta zertarako parte hartu

- Hasteko, ongi planteatu behar da prozesuaren zergatia (adibidez, lege bat egiteko den, edo kontsulta bat egiteko).
- Edozer gaitan egon behar litzateke parte hartzeko aukera, nahiz eta egon daitezkeen egin behar ez diren kontsultak.
- Helburuak, gaiak eta prozesua elementu erabakigarriak dira lotura maila zehazteko.
- Parte-hartzea ez da helburu bat, bitarteko bat da. Herritarren parte-hartzea proposatzeko unea gaiaren eta prozesu motaren mendean egongo da.

Azkenik, nabarmendu da kudeaketa publikora herritarren ikuspegia gehitzearen azken helburua **adostasunak eta soluzio partekatuak bilatzea** izan behar duela. **Parte-hartzea borondate on eta zintzotasun kontua da, akordiora iristeko gogoarena, aberasteko modu bat.** Prozesuek, hortaz, ez dute «ideia baten bozgorailu» izan behar, baizik eta, errespetutik eta desberdintasuna onartzetik abiatuta, **eraikitze mekanismo bat**, interesak adostu eta mugak gaingintzeko (hori da parte-hartzearen bertutea, ez gehiengoak).



Horretarako, bi elementu giltzarri daude: **hezi/ikasi eta egin**. Hezi eta ikasi zeren adostasun bilaketa horrek (negoziaketa) gaitasun batzuk eta ikuspegi bat eskatzen baititu (herritartasuna norabide bikoitzetik eraikitzen da), horregatik azpimarratzen da parte-hartze prozesuek hezitzaileak izan behar dutela: ez da ahaztu behar hezkuntza dela parte-hartze arduratsuaren oinarria.

Eta «egin», zeren azturak eta ohiturak, hau da, kultura, ekintzatik jaiotzen baitira. **Parte-hartze kultura duen gizarte bat eraiki nahi badugu, beharrezkoa da «parte-hartze hori egitea, gauzatzea».**

Kultura aldaketa horrekin batera, **arauak ere aldatu egin beharko dira, eta garatzen den erregelamendu berriak, sostengatu ez ezik, sustatu egin beharko du politika publikoetan parte hartzea.**

2. Kalitateko parte-hartze prozesuak garatzeko kanalak eta metodologiak

Jardunaldiko bigarren eduki-blokea «nola» **parte hartu** galderan eta kanalek eta metodologiek prozesuen kalitatean izan dezaketen eraginean zentratu zen.

Horretarako, **hiru baieztapenen inguruan eztabaidatu zen:**

- *Ekimen publikotik sortzen diren parte-hartze prozesu formalak erreminta baliagarriak eta eraginkorrek dira gobernantza inklusiborako*
- *Gizarte sareak dira tresnarik erabilgarrienak XXI. mendean herritarren parte-hartzea artikulatzeko*
- *Lehentasuna dute herritarren ekimenak (banakakoak zein taldekoak) Administrazioarekin konektatzen dituzten euskarriek*



Jarraian, jasotako ekarpen nagusiak aurkezten dira:

Ekimen publikotik sortzen diren parte-hartze prozesu formalak erreminta baliagarriak eta eraginkorrak al dira gobernantza inklusiborako?

Jardunaldira etorri diren pertsonak nabarmendu dute zenbait **kontzeptu zehaztu eta argitu** behar direla lehenbizi, hala nola «ekimen publikoa», «ekimen formala» eta «governantza inklusiboa».

Zer da ekimen publikoa?

Azpimarratu da ez direla gauza bera ekimen publikoa (izaera edo xede publikoa duena) eta Administrazio Publikoek sustatutako ekimena. Nahasmen horrek, «publikoa» dena zuzenean administrazioekin lotzeak, eragin kaltegarria du parte-hartzea ulertzeko moduan.

Zer da ekimen formala?

Formala egituratu gisa uler daiteke, baina instituzioen esparruarekin zerikusia duten prozesuei ere formalak deitzen zaie. Halaber, formal hitzarekin programa bat zorrotz betetzea adierazi nahi bada, batzuetan pentsa daiteke «itxurak egiteko» modu bat dela (alegia, ez dagoela egiazko borondaterik gai publikoak herritarrek parte hartuz kudeatzeko).

Zer da gobernantza inklusiboa?

Governantza inklusiboa diogunean, izatez, errepikatzen ari gara, gobernantza izateko inklusiboa izan behar baitu. Beste kontu bat da parte-hartzea, gaur egun esparru askotan formulatuta dagoen bezala, sektore kasik elitista batera mugatzen dela (izaera eskusiboa du, ez inklusiboa, eta hortaz herritarren erabateko parte-hartzea ez da sekula benetakoa izan). Azpimarratu da parte-hartzeari buruzko eztabaidan askotan ateratzen dela hizpidera gobernantza (inklusiboa), baina oraindik ez gara goragoko fase horretara iritsi. Joko-arauak zehaztea falta da (bai Administrazioaren eta bai herritarren aldetik), eta aldaketa sustatzea hiru mailatan: pertsonalean, antolakuntza mailan eta gizartean.

Esanahi partekatuen esparru bat eraiki beharra behin nabarmendu ostean, **Administrazioek sustatutako prozesuen erabilgarritasuna balioetsi da eta haien ahalmena goraiatu da, baina azpimarratu da ez dutela, askotan, nahi litzatekeen eraginkortasunik**. Parte hartu duten pertsonen iritzian, parte-hartze prozesu formalak tresna eraginkorrak izan **daitezke** gobernantza (inklusiborako), **baina, gaur egun, ez dira horrela**.

Alde batetik, **sinesgogortasun** maila handia dago «parte hartzeko horrenbeste deiren» aurrean, eta **eszeptizismoa** ere bai abian jartzen diren hainbat prozesuri buruz (esku artean dugun Liburu Zuria, kasu), gobernuaren ardurapeko beste eremu batzuetan,



eragotzi edo baldintzatu egiten baita parte-hartzea. Nabarmendu da parte-hartzea ez dela «herritarrentzat», «herritarrekin» baizik, eta **governantza ahalduentza dela; horregatik da beharrezkoa klase politikoan aldaketa bat izatea («desahalduntzea», alegia), kudeaketa arduratsuekin talka egiten duten errezeloak eta interes politikoak gainditzeko. Onartuta ere erakunde eta alderdi politiko gehienek askoz gehiago errespetatzen dutela herritarren parte-hartzetik ondorioztatzen dena (baita herritarren ekimen autonomoetatik datozenak ere), adierazi da oso zaila dela benetako aldaketa bat sustatzea Administrazioaren laguntzarik gabe, kasu gehienetan, soluzioa eta erabakitze eskubidea inplementatzeko behar diren baliabideak Administrazioaren esku baitaude. Hortaz, politikariak «paseko hegaztiak» («maizterrak») diren arren, lidergo politiko ezinbestekoa da.**

Bestalde, **autokritika falta eta parte-hartzearen ebaluaziorik eza** nabari dira **Administrazio publikoen aldetik**. Administrazio publiko batek parte-hartze prozesu bat sustatu eta hasten duenean, garrantzitsua da parte hartzera deitzen dituen pertsonen kezka eta interesen ezagutza errealetik abiatzea, alegia, alde aurretik diagnostiko bat egitea, aldi berean, prozesuan eztabaidatu nahi diren «galderak edo gaiak» doitasun handiagoz diseinatu eta formulatu ahal izateko.

Gainera, **Administrazioak sustatutako prozesu orok «lan pedagogikoa» egin behar du** eta aditzera eman behar die herritarrei guztiok dugula parte hartzeko gaitasuna (*horrela, ingurura begiratu eta aurpegi berberak, beti deitzen dituztenak, ikustea saihestuko dugu*). Era berean, bai erakundeetan eta bai herritarren artean aldatzeari erresistentzia jarri ohi zaionez, beharrezkoa da **parte-hartzeko espazioak guztiz gardenak izatea**.

Gai horiek berberak jarri dira mahai gainean **Administrazioak sustatutako prozesuen «itxiera»** aipatu denean. Beharrezkoa da prozesuaren emaitza jasotzea eta herritarrei jakinaraztea, eta jakinarazpen horretan adieraztea zer gai hartu diren kontuan eta nola (zer puntutaraino, zer aldaketarekin, zer nolako eragina izango duten). **Behin itzulerako informazio hori eman denean, Administrazioaren ardura da prozesu horiek ebaluatzea**. Hona hemen ebaluazio hori egiteko aintzat hartu beharrezkotzat aipatu diren galdera batzuk:

- Prozesuaren konplexutasuna: beharrezkoa al da? Sinpleagoa egin al zitekeen? Hartu al dira kontuan alde aurreko beste prozesu batzuk –eta berorien ebaluazioa– diseinua egitean?
- Nola: metodologia egokia izan al da? Zer eman/kendu digu egindako aukerak? Eta kanalek?
- Prozesuaren emaitza: prozesuaren aldaketarik gertatu al da? Eta zerbitzuarena? Eta arauena? «Tiradera batean sartuta» geratu al da?

Bigarrenik, bertaratu diren pertsonen galdetu zaie ea **zein den gizarte sareen papera (erreal, izan behar lukeena, etab.) parte-hartze prozesuetan**; horretarako, ondorengo galdera hau egin zaie:



Gizarte sareak al dira tresnarik erabilgarriena XXI. mendean herritarren parte-hartzea artikulatzeko?

Paragrafo honetan, gizarte sareen **potentziala** nabarmendu da harreman berritzaileak sustatzeko oinarri gisa, izan ere, espazio fisikotik harago doazen konexioak ahalbidetzen baititu. Abantaila hori ukaezina bada ere, aipatu da, era berean, gizarte-sareen berehalakotasuna ez dela, agian, beti mesedegarri parte-hartze prozesu batean (biralengatik, elkarrekin gogoeta bat edo eraiketa bat garatzeko zailtasunengatik –asmamena eta, batzuetan, azalergia saritzen direlako–,...).

Nolanahi ere, azpimarratu da **bitarteko bat direla, ez helburu bat**, eta proposatutako xederako baliagarri badira tresna ona izan daitezkeela (parte-hartzearen xede bihurtzen ez baditugu eta osagarritzat hartzen baditugu). Bertaratutako pertsona gehienek diote gizarte sareak ez direla idealizatu behar (*oraindik jolaserako erabiltzen ditugu*), baina, era berean, hutsegite bat litzatekeela parte-hartzea erraztu dezaketen kanal gisa kontuan ez hartzea (tresna erabilgarria dira, baina ez nahikoa).

Gizarte sareen **erabilgarritasunari** dagokionez, uste da gora egingo duela, gero eta gehiago erabiltzeaz gainera, «kalitate handiagokoa» baita erabilera hori, nahiz eta, gaur gaurkoz, «mobilizatze» erabilgarriago izan, «parte hartzeko espazio» gisa erabiltzeko baino.

Beraz, zabalkunderako kanal gisa egokiago jotzen dira, eraikuntzarako baino, eta **entzuteko espazio aktibo** ere izan daitezke Administrazioentzat. Hurrengo pausoa emateko (gizarte sareetan eraikitzea) **segurtasuna** garatu behar litzatekeela aipatu da, gizarte sareen anonimotasunaren atzean parte-hartzea uxatu dezaketen mesfidantza egoerak sortzeko arriskua baitago.

Aipatu den beste alderdi bat izan da beharrezkoa dela **Administrazioek gizarte sareetan duten presentziak eta parte-hartzeak** bat egitea *offline* duten presentziarekin eta parte-hartzearekin. Gizarte sareak ez dago araupetzerik, ez kontrolatzerik, eta herritarrentzat kanal birtualak irekitzen baldin badira, ahalmen handia beharko da haien eskaerei eta galderei erantzun ahal izateko. Aukera ona dira, batez ere, herriko sektore gazteenekin harremana sustatzeko, baina haien **erabilera txarrak** eragin kaltegarria izan dezake pertsona horiek Administrazioari buruz izan dezaketen pertzepzioan. **Haien kudeaketa eta dinamizazioa, hortaz, garrantzi handikoa da.**

Gizarte sareen kudeaketa ez ezik, beharrezkoa da kontuan hartzea parte-hartze prozesu batean zer ekarpen egiten duten gizarte sareek **inklusibitateari** dagokionez. Interesatzen da teknologia berriak erabiltzea parte-hartze kultura sustatzeko, sarbide unibertsaleko kanala baita, baina parte-hartze prozesuak hainbat talde desberdin barnean hartzea bilatzen badu, ez dago **«apustu guztia» kanal bakar baten alde egiterik**. Eten digitala oraindik benetakoa da eta hainbat kolektiboren erantzuna oztopatzen eta mugatzen du. «Analfabeto digitalak» dauden bitartean, baztertzaitzaileak izaten jarraituko dute, neurri batean.



Bestalde, gizarte sareen erabilera sobera desberdina eta ezegonkorra da eta, batzuetan, **konpromiso apaleko** parte-hartze gisa ulertzen da (*gustatzera edo ez gustatzera mugatzen da*). Edonola ere, **edukiak sortzeko** espazio garrantzitsuak dira, eta dagokien garapen logikoa izan beharko dute, belaunaldi «digitalizatuak» gizartera gehituz doazen neurrian.

Azkenik, azpimarratu da **gizarte sareak birtualak direla, baina, era berean, presentzialak ere badirela eta izan behar dutela**. Hurbiltasuna eta giza osagarria ez dira galdu behar parte hartzerakoan, hala formatu presentzialetan nola ez-presentzialetan.

Kanalek eta metodologiek parte-hartze prozesuen kalitatean izan dezaketen eragina hizpide izan duen azkeneko eduki-bloke honi amaiera emateko, azken galdera bat planteatu zitzaizen parte hartu zuten pertsonen eta eskatu zitzaizen gogoeta egin zezatela zein ziren **lehentasuna eman** eta garatu beharreko **euskarriak**, ondorengo galdera honen bitartez:

Lehentasuna al dute herritarren ekimenak (banakakoak zein taldekoak) Administrazioarekin konektatzen dituzten euskarri haiek?

Paragrafo honetan, gehiengoak erantzun zuen **lehentasuna dutela edo izan behar luketela berorietan parte hartzen duten pertsonen ahalduak sustatzen duten euskarriak**.

Horretarako, pertsonak eta errealitateak konektatu aurretik, beharrezkoa da **eraldatzeko intentzioz entzutea eta ekarpenak egitea** (kontuan hartua izateko asmoz, errespetutik... egiteko intentzioz). Eta entzutea denez lehen urratsa parte hartzeko gutxieneko baldintzak eratzeko, entzuteak **pentsamolde aldaketa eskatzen du bai herritarrengana eta bai Administrazio publikoetan, azpian dauden botere harremanak beste era batean artikulatzeko** (*orain zuzeneko demokraziaz mintzatzen gara, zerbait ari da aldatzen*), baina baita **rolak argitzeko** ere.

Ezjakintasun ikaragarria dago politikaz eta kudeaketa publikoaz; horregatik, beharrezkoa da herritarrengana hurbiltzea eta lan-arlo horretako konplexutasun eta mugetara gerturatzea; bestalde Administrazioak irekiagoa izan behar luke eta barne kudeaketarako sistema parte-hartzaileagoa proposatu.

Bai Administrazioak eta bai herritarrek huts egiteko beldurra gainditu eta hutsegiteetatik ikasi egiten dela onartu behar lukete. **Administrazioak gero eta argiago daki herritarren beharra duela, eta herritarrak gero eta jakitunago daude kexatzea ez dela eraldatzeko elementu eraginkorra eta instituzioei lagundu beharrean daudela balio publikoa sortzen.**

Aurrez aipatutako paradigma aldaketatik balio publiko hori sortzeko –alegia, parte hartzeko– ez dago lehentasuna duen kanalik: **edozein kanal da ona erabilgarria bada, eskuragarri badago eta herritarrek ezagutzen badute**. Kanal bakoitzak bere «publikoa»




du eta, beraz, parte hartzeko modu desberdinak ireki behar dira aniztasuna bermatzeko, baina segurtasuna ere balioetsi behar da, bai-eta lankide izan nahi ditugun pertsonen erosotasuna ere.

Eskuragarritasuna eta norabide bikoiztasuna beharrezkoak dira eta gardentasuna da, berriro ere, haiek sostengatzen dituen elementuetako bat. Interes publikoa duen informazioak eskuragarri egon behar du (eta ulertzeko moduan adierazita), herritarren egiazko kontrola bermatzeko, horixe baita, hain zuzen, demokraziaren oinarria. Ildo horretan, nabarmendu nahi izan da Gardentasun Legea plataforma ona izan daitekeela, berorretan kanalak antolatu eta herritarrek izan dezaten presioa egiteko eta eragiteko ahalmena non gauzatu.

Herritarren parte-hartzea sostengatzen duten euskarriek ez diote arazo/soluzio mekanikari soilik erantzun behar, baizik eta plangintzarekin, segimenduari eta/edo ebaluazioarekin lotuago dauden beste helburu batzuk ere zerbitzatu beharko dituzte.

Desiragarria da, hortaz, herritarren parte-hartzearen premia eta maila desberdinei erantzungo dieten berariazko mekanismoak egotea (ez dauka zertan etengabeko prozesua izanik, baina, betiere, kalitatea bermatu beharra dago). Baina, batez ere, jada eskura dauden mekanismoak eman behar dira ezagutzera eta kudeatu behar dira (adibidez, herri ekimenak aipatu dira, edota udaletan abian dauden tokiko informazio-batzordeak).

Mekanismo horiek eta beste batzuk ezagutzea ezinbestekoa da bai herritarrentzat eta bai Administrazioarentzat egokiena den kanala aukeratu eta erabili ahal izateko. Horretarako, **Administrazioak kudeatu behar ditu, osorik eta modu koordinatuan, herritarren esku jartzen dituen euskarri eta mekanismo guztiak, betiere, eta gutxienez, erantzuteko obligazioa bere gain harturik.**



DEMOKRAZIARI ETA HERRITARREN PARTE-HARTZEARI BURUZKO EUSKADIKO LIBURU ZURIRANTZ

**PROZESUAREN 3. JARDUNALDIKO
ONDORIOAK
DONOSTIA, 2014ko EKAINAK 13**



Hitzaurrea

2014ko ekainaren 13an izan genuen demokraziari eta herritarren parte-hartzeari buruzko Euskadiko Liburu Zuria eraikitzeke herritarrekin batera lantzen ari garen parte-hartze prozesuko **hirugarren jardunaldia**, joan zen abenduaren 18an Bilbon hasitako Demokraziari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuria eraikitzeke prozesu partekatuan aurrera egiteko xedearekin.

Donostian izan zen jardunaldia, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Donostia 2016rekin lankidetzan; herritarrek osaturiko 130 eragilek baino gehiagok parte hartu zuten, baita herritarrez osaturiko erakundeek, herritarren parte-hartzearen gaian adituek eta instituzioek ere, eta berriro azpimarratu nahi dugu **elkarte ugari ere izan zirela** saioan eta sortu ziren eztabaidetan.

Lehenik, jardunaldiari hasiera emateko, sarrera labur bat eskaini zen Demokraziari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuri hau egitearekin lortu nahi diren helburuak gai hartuta, izan ere, 2013ko abenduan prozesuaren **sustapen saioa** egin zenean adierazi zen bezala (ikus [1. jardunaldiko ondorioen dokumentua](#)), Euskadiren eraikitze demokratikoan aurrera egitea ekarriko du horrek, herritarren parte-hartzea kudeaketa publikoan txertatzea ahalbidetuko baitu hainbat helbururekin: gobernuak sendotzea, politika publikoak zilegitzea, gizarte pluraltasuna sustatzea, gizarte interesak agenda publikora gehitzen laguntzea, bizitza publikoa antolatzeke prozesuetan herritarrak inplikaraztea, eta gizarte zibilaren eginkizuna indartzea. Gizarteek ez dute, gaur egun, gogoeta kolektiboa eta beren potentzialaren erabilera etengabe praktikatzeko beste aukerarik, ikuspegi partekatu baten bitartez, herritarren komunitatea giza aurrerabide iraungarri baten alde elkartzeko.

Ondoren, **prozesua** azaldu zen, eta nola gauzatzen ari den saio espezifikoaren bidez; hala, saio bakoitzean prozesuaren edukia eta diseinua zehazten dira. Gainera, iruzkinak egin ziren hainbat mailatan eta [paraleloki garatzen ari diren beste prozesu batzuez](#), non euskal gizarteko hainbat kolektibo ari baitira parte hartzen. Kolektibo horien ekarpenak oso garrantzizkoak jotzen dira prozesu honetan zehar lortzen ari garen emaitzak finkatzeko. Ildo horretan, esan bezala, topaketak egin dira gazteekin, adineko pertsonekin, ahalmen-urritasuna dutenekin, etorkinekin, eta beste hainbat kolektiborekin. Hortik lortzen diren emaitzak ere eraiki nahi dugun Demokraziari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zurian jasoko dira.

Administrazioaren konpromisoak

Prozesuaren lehen saioan, Josu Erkoreka sailburuak aipatu zuen **arduradun politikoek, abiapuntuko baldintza gisa, konpromiso argia dutela prozesu honekin**, eta, zentzu horretan, Eusko Jaurlaritzak konpromiso zalantza gabea duela adierazi zuen demokrazian eta herritarren parte-hartzean sakontzeko, eraberritze politikoa xede duen prozesu bat aurrera eramanez eta elkarrizketa eta gardentasun printzipioak biziberrituz. Herritarrekiko elkarrizketa prozesu hori beharrezkoa da arazoei ekiteko, entzuteko, eta



soluzioak partekatzeko; gardentasuna ere premiazkoa izango da herritarrek, uneoro, politika publikoei buruzko informazioa izan dezaten, autokritikatik eta apaltasunetik abiatuta, etengabe hobetzeko espirituarekin. Azken batean, prozesu honen bidez, **erreferentzia-esparru bat sortu nahi da Euskadirako gobernantza-eredu berri bat bultzatzeko, mobilizatzeko eta garatzeko.**

Aurreko jardunaldietako ondorioen dokumentuetan Eusko Jaurlaritzari eskatu zitzaionez azal zitzala garbi zein ziren bere gain hartutako konpromisoak Demokraziari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuri hau prestatzean (bai hasitako prozesuari dagokionez eta bai berorretatik lortzen diren emaitzen erabilgarritasunari buruz), instituzioen aldetik, Eusko Jaurlaritzak prozesu honetan bere egiten dituen konpromisoak aurkeztu ziren berriro:

Konpromiso-esparru partekatu batetik

Prozesu parte-hartzaile inklusibo bat gauzatzea, hainbat interesetako pertsona eta taldeen proposamenei harrera egiteko dinamikak eta kanalak aurreikusiko dituen

Gardena, gaiari buruzko adostasunak eta desadostasunak leialki islatuko dituen, baita lortzeko behar diren baliabideak ere

Eskuragarria, ondorioztatzen den informazioa herritarrek ulertzeko moduan hurbilduko duena

Eragileen arteko lankidetza bultzatuko duena; helburu bera duten artekariet baliaturik, kanalak eta bitartekoak erabiliko ditu ahalik eta kolektibo gehienetara heltzeko, ahalegin eta bitarteko bikoiztasunak ekidinez eta funtsezkoak ez diren aurrekontu-baliabideen kontsumoa saihestuz

Berritzailea, metodologia eta bide berriak erabiliko dituen kolektibo desberdinen sentsibilitateak, iritziak eta ikuspegiak jasotzea errazteko

Jaurlaritzaren **lidergo politikoarekin**, Liburu Zuria gizartearen aurrean aurkeztea konpromisoaren erakusgarri ez ezik, eztabaidarako akuilu izan dadin, eta erakunde guztiek aintzat har dezaten.

Konprometitua, adostasun zabala lortzen duten eta beren garapena bermatzeko tresna arautuak behar dituzten gaiak arau-proposamen bihurtzeko. Bereziki, Euskal Administrazio Publikoaren Lege Aurreproiektuaren prestakuntzarekin bat etorririk, hainbat konpromiso hartuko dira aurreproiektu horretan, herritarren parte-hartze eskubideen aitortza, sustapen-neurriak, eta parte-hartze prozesuen eraginkortasuna bermatuko duten oinarritzko hainbat tresna aintzat hartuko dituztenak.

Eredugarria, parte-hartze prozesuaren jardunbide egoki gisa balioko duena, bere eraginkortasunagatik eta herritarrekiko sortze prozesu baten oinarritzko printzipioei erakusten dien errespetuagatik


Esperimentala, esperientzia berritzaileak abian jarriko dituen, gure kultura demokratikoan berriak izan daitezkeen eta parte-hartzea errazteko beste formula batzuk esperimentatzea ahalbidetuko duten bizpahiru proiektu piloturen bitartez

Jarraitasun bokazioa duena, Administrazioan gai publikoak kudeatzeko modu berri bat – herritarrekiko lankidetz – txertatzen saiatzeko

Denboran iraungo duena, eta enplegatu eta zuzendari publikoak ere inplikatu dituen, haien ikuspegi jaso eta aldaketarako motor lana egin dezan, gaur egun prozeduran gehiegi zentratuta dagoen Administrazioa herritarrengana orienta dadin.



Gainera, ondorengo **joko-arauak** erabaki dira prozesuan zehar aplika daitezten:



PARTE HARTZEKO DINAMIKAREN HASTAPENAK

Demokraziari eta herritarren parte-hartzeari buruzko Euskadiko Liburu Zurian jaso beharreko **ekintza-konpromisoak zehazteko**, eraikitze partekatuen prozesuko 3. jardunaldia **gaien ikuspuntutik** landu zen. Horretarako, **nagusiki Eusko Jaurlaritzaren eskumen-barrutiei dagozkien 5 gai nagusi** hartu ziren ardatz, arlo horietan sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzatik balio publikoa nola sor daitekeen aztertzeke.

Honako hauek izan diren **hautatutako gai nagusiak**:



Arlo horiek lantzeko, esanahi partekatuak, ereduak, kanalak eta abar landu ziren aurreko jardunaldietako ondorioak oinarri hartuta, **dinamika bat diseinatu zen balio publikoa sortzeko orduan herritarren eginkizun bikoitzari buruz ekarpenak biltzeko**. [Mondragon Team Academy](#)-ren (parte hartzeko jardunaldiaren dinamizatzailea) lankidetzarekin diseinatu zen dinamika:



- Lehenengoa, **parte-hartze politiko-instituzionala, administrazioaren eta herritarren arteko elkarrengaitik sortzen den parte-hartze gisa ulertzen dena**, herritarren iritziak/ekarpenak gobernuaren ekintzetan (planen kudeaketa, zerbitzu eta politika publikoak) gehitzeko moduari buruzkoa da.
- Bigarrena, **parte-hartze erantzunkidea, erantzunkidetasun inguruak diseinatu eta bultzatzeko moduari lotutakoa, hau da, publikoa dena batera kudeatuta** (instituzionala dena baino gehiago da eta, batzuetan, baita presentzia / parte-hartze instituzionala baino gehiago ere).

Parte-hartzearen bi alderdi horiek jasota daude dagoeneko aurreko txostenetan. Horietan, Liburu Zuriak **politikak kudeatzeko modu efikaz eta eraginkorragoa bilatzeaz gain eremu publikoa kudeatzeko modu berri bat aurkitzea ere helburu duen esparru bat proposatu behar lukeela** azpimarratu dute parte-hartzaileek.

Horretarako, eta parte-hartzearen ikuspegi horrekin koherenteak izanik, bi faseko dinamikan lan egiteko proposamena egin zitzaizen parte-hartzaileei Donostiako jardunaldian:

- **Politika publikoetan parte-hartzeko ikuspuntuan oinarrituta (herritarren eta erakundeen arteko harremanari loturikoa)**; batez ere herritarrek eta haien ekarpenak politika eta zerbitzu publikoak egitean kontuan hartzeak zein arlotan izango lukeen eragina jakiteko batez ere (herritarren parte-hartzeak zein alorretan eta zergatik duen balio handiagoa).

Dinamikaren 1. atal horretarako, arlo bakoitzean lehenetsi beharreko (diseinuan, ezarpenean, kontrolean eta ebaluazioan baliozkoak izan litezkeen herritarren ekarpenen arabera) politika-ildoen zerrenda bat erabili zen. 1. ERANSKINA

- **Parte-hartze erantzunkidean oinarrituta (batera kudeatzearen ikuspuntua)**; herritarrek proposaturiko eztabaidagai bakoitzari lotuta egin ditzaketek ekarpenak zeintzuk diren jakiteko.

Dinamikaren 2. atal horretarako, erreferentzia gisa hartu zen EcoEuskadi2020 ekimenaren barruan prestatutako arlo bakoitzeko helburuen zerrenda, 5.000 partaide inguru izan zituen parte hartzeko prozesuaren ondoren. 2. ERANSKINA

Hortaz, txosten honetan jasotako ekarpenen xedea **dagoeneko eztabaidatutako edukiei (zer da parte-hartzea, nola eragiten dio Administrazioari, norainokoa da parte hartzearen eta erabakitzearen arteko lotura...)** beste batzuk eranstea izan zen, parte hartzeko ildoak eta aipatutako 5 arloetako konpromisoak zehaztuta: osasuna, ikaskuntza, ingurumena, kohesio soziala eta garapen ekonomikoa.

Eztabaidarako proposatutako gai bakoitzari buruz jasotako ekarpenak

1. OSASUNA

Arlo honetarako proposatutako ekintza-ildoen artean, jardunaldian izan zirenen ustez, **honako hauek dira osasunaren arloaren garapena hobetzeko herritarren iritziak eta parte-hartzeak hobetuko lituzketen alderdiak:**



1. Osasun-sistamarako bidezko sarbidea

Gaur egungoa moduko egoera oinarri hartuta, non krisia aitzakiatzat jarrita eskubideen urratze argia dakarten legeak egin diren (baita osasunaren alorrean ere), **osasunerako eskubidea** (sistamarako sarbidetik hasita; **izan ere, zalantzan jarri da**, adibidez, etorkin batzuen kasuan) **unibertsala eta bidezkoa izan behar da. Sistemaren iraunkortasuna lortzeko, kalitatezko sistema publikoa izan behar dela** defendatu da. Aipatu denez, geroz eta **alde handiagoa dago instituzioek garatzen dituzten osasunaren alorreko politiken eta herritarren iritziaren artean**; hori dela-eta, herritarren parte-hartzea behar duen ardatz estrategikoa izan behar luke.

2. Osasun-sistemaren iraunkortasuna

Aurreko puntuan zehaztutako premisak oinarri hartuta (kalitatezko osasun-sistema unibertsal eta politikoa), **askoren kezka da osasun-sistemaren erabilera (edo gehiegizko erabilera) eta, ondorioz, horren iraunkortasuna**; hortaz, uste dute **herritarren parte-hartzea bitarteko baliagarria izan daitekeela osasun-sistemako baliabide publikoen erabilera efikazagoa izaten laguntzen duten mugak zehazteko**. Osasun-turismoa (EBko beste herrialde batzuetatik ebakuntza kirurgikoren bat egitera etortzen den jendea) aipatu da, adibidez, sistemari gehitzen zaizkion karguak saihesteko arautu beharko liratekeen gaien artean.



Horrez gain, **osasun-zerbitzu publiko jakin batzuen pribatizazioak (batzuetan ezkutukoa da) eta gastuen partida batzuetan murrizketan egiteak ere kezka sortzen dute**, eragin argia dutelako arreta-sisteman eta zerbitzuaren kalitatean (lan-gainkarga, bajen ordezkapenik ez egitea...). Arduradun politikoei baliabide publikoak behar bezala erabiltzea eta osasunaren edo hezkuntzaren alorreko aurrekontua murriztuta azpiegitura handietan, adibidez, ez inbertitzea eskatzen zaie. **Horri lotuta, aurrekontuen gardentasun handiagoa eskatzen da.**

Baita kostuen gardentasun handiagoa ere. Hitzordu bat bertan behera uzteagatiko kostuak oso altuak direla aipatu da, eta are altuagoak ebakuntzak direnean. Eta **guztiok jakinaren gainean egon gaitezen**, informatzeko fakturak egin beharko lirateke edo, gutxienez, zerbitzua jaso duenari eskainitako zerbitzuak zer balio izan duen jakinarazi (*familia-medikuarekin 20 minutu egiteak balio duena nahiz ebakuntza batek balio duena*). **Mota horretako neurriek sistema mantentzearen kostuaz jabetzen lagun dezakete, eta osasun-sistemaren iraunkortasuna kaltetzen duen doakotasunaren ideia faltsua desagerrarazten.**

3. Eremu sozio-sanitarioa

Eremu sozio-sanitarioa areago garatu behar da **pertsoneri arreta orokorra eman nahi bazaie**. Gutxienez, **arreta-irizpideak bateratzea** (gaur egun oso bestelakoak dira) eskatzen da, baita **informazioa eta estrategia partekatuak ere.**

Herritarren parte-hartzeak sailkapenen politika desagerrarazten lagun lezake (sail, zuzendaritza edo instituzio baten eskumena zein den eta zein ez den zehaztean datzana); **Euskadin arreta sozio-sanitarioaren plan bat presta daiteke, administrazioak ematen dituen erantzunak zehatzagoak eta eraginkorragoak izan daitezten** (adibidez, drogazale bat ez leheneratuko kartzelan egonda). Beharrezkoa da, halaber, **osasun-sistema "irekitzea" eta, hala, osasun-zentroetan lan egiten duten osasun-langileen zeregina** (ambulatorioetan, kontsultategietan etab.) funtsezkoa izan liteke **plan estrategikoetan duten parte-hartzea sustatzen bada** (osasunaren alorrekoa ez ezik, beste politika batzuei lotutakoa ere).

Arreta hobetzeko beste mekanismo bat izan liteke **ESletako osasun-kontseilua** sortzea; horietan, auzo-elkarteak, udalak edo eskualdeko beste toki-erakunderen bat izango lirateke eragile nagusiak (ekimenen sustatzaileak). Organo horrek teknikarien eta gizartearen iritzia bilduko luke.

4. Gastu farmazeutikoa

Lobby handiak eta alor farmazeutikoaren inguruko interesak direla-eta, **herritarren parte-hartzeak gardentasun handiagoa ekarriko luke eta herritarren gastu farmazeutikoaren inguruko konfiantza-maila hobetuko litzateke**. Horrez gain, zera aipatzen da: alor horretako parte-hartzeko prozesuek **tradizionalak ez diren beste jardun batzuen**



inguruko eztabaida mahaigainera dezaketela (adibidez, ordezeko medikuntzako jardunak), **gastu farmazeutiko txikiagoko jardunak direlako eta kasu batzuetan baliozko aukerak izan daitezkeelako** (patologia batzuetan gehiegizko medikazioa egon litekeela aipatzen da).

5. Autonomia bultzatzea - Mendetasuna

Azkenik, alor honetan, **herritarren parte-hartzeak autonomia bultzatzean eta mendekoentzako arretan onurak izan ditzakeela** aipatzen da, **adineko pertsonen, urritasunen bat dutenen eta abarren autonomia handitzeko benetako oztopoak eta eragileak zeintzuk diren detektatzeko, horiek ez baitira beti osasun-arlokoak** (adibidez, etxebizitza batean igogailua jartzea autonomia bultzatzeko neurria izan daiteke, baina ez da osasunaren alorrekoa).

Era berean, **autonomia bultzatzea ez dela mugatu behar eta guztiei aplikatu behar zaiela** aipatzen da. Horri lotuta, beharrezkoa da **medikuaren eta pazientearen arteko harremana berriro zehaztea, osasun-langileekin izandako elkarreaginak herritarren gaikuntza eta ahalduentzako ahalbide ditzan**. Horretarako, **pertsonen euren osasunean duten garrantziaz jabetzeko ekimen esanguratsuagoak** egitea proposatu da, esate baterako (hezkuntza-curriculumean osasunari buruzko ikasgai bat gehituta, gai zehatz bati buruzko programa jakinak baino gehiago eskaintzea, enpresetan jarduera-programa edo -planak egitea etab.).

Horren harira (autonomia zentzu zabalean bultzatzea, osasunean eragiten duten faktore guztiak aintzat hartuta), etxebizitzan edo autobus-geltokiaren ondoan obrak edo errepide bat egiteak duen eragin handia aipatzen da... kutsadura akustikoa jarri da horren adibide gisa. Interesgarria izango litzateke administrazioek protokolo bat ezartzea eta obrek osasunean izan dezaketen eraginaren azterlan bat egitea obra egiteko baimenak eman aurretik edo azpiegiturak eraikitzen hasi aurretik.

Osasun-eredu bat **erantzunkidetasunaren ikuspegitik** garatzeko moduari dagokionez, honako alderdi hauek nabarmendu dira:

- **Pertsona bakoitza bere osasunaren erantzulea da**; hortaz, gidaritza/nagusitasuna izan behar du alor horretan.
- Baina garrantzitsua da **batera lan egitea eta indarrak biltzea ere inguru osasungarriak sortzeko**; horretarako, herritarrek aktiboagoak izan behar dute ekimenak proposatu eta garatzeko orduan.
- Zergatik ez ditugu sortzen **moda osasungarriak?** (*hemen ardoa eta garagardoa edatea eta kirolak ez egitea daude modan*).



- **Proposamenak egiteko aukera ematen duten kanalak erabiltzea eta eskatzea, elkarguneak** (toki fisikoak) nahiz **aplikazioak** (gune birtualak), administrazioarekin ez ezik, intereseko pertsona, agente edo taldeekin ere elkarreaginean aritzeko.

Horretarako, interesgarria izango litzateke **Administrazioa gune horien elkarreaginea eta, batez ere, kontsultak/proposamenak teknikoagoak izateagatik aditu baten ezagutza behar den kasuetan erantzuteko gaitasuna bermatzeko euskarria izatea.**

Asmoa ez da iradokizun-ontzi fisiko edo birtualak sortzean, baizik eta **kezka dituzten pertsonen arteko benetako interakzioguneak sortzea**. Lehen urratsa elkarguneak eta elkarriketa garatzea izan liteke, ideia berriak azaltzeko (esate baterako, osasun-zentro bateko irteera proposatu da). Interesgarria izango litzateke **instituzioen eta herritarren artean** gizarterako programak batera sortzeko aukera egotea elkargune horretan (unibertsitateekiko eta ikerketa-zentroekiko lotura lortzeko ahalegina egingo litzateke, proiektuak sortu edo hobetzeko).

2. IKASKUNTZA

Alor honetako ekintza-ildoei dagokienez, honako gai hauen bidez hobe daitezke herritarren parte-hartzea aintzat hartuz gero:



1. Ikasleak, hezkuntza-sistemaren erdigunean

Teoria ugari baina praktika gutxiko egoera da nagusi. Hezkuntzan ez dela berritzen uste da, batez ere irakasleek pisu handiegia duten sisteman; hala ere, prestigioa galdu duen eta «menderatuta» sentitzen den figura da. Gainera, ikasle motaren arabera **zatiketa egiten ari dira (adibidez, urritasunen bat dutenak bereizi egiten dira) eta **eraiki nahi dugun gizarte (komunitate) motaren aurkakoak dira**. Horregatik esaten da **ikasleek sistemaren erdigunean egon behar dutela, orduan sortu ahal izango direlako bizitzan ikasten jarraitu nahi duten pertsona trebatu eta jakingurak (batzuetan ahaztu egiten zaigu zertarako eta norentzat ari garen lanean).****



Herritarren parte-hartzeak (baita hezkuntza-sisteman lanean ari diren edo ari ez diren eragile ekonomiko, sozial eta hezkuntza-arloko eragileenak ere) **parte hartzeko dinamikak sortzen lagun dezake** (arte y parte), **ikasleak hartzen diren eta beraiei eragiten dieten erabakien erdigunea izanik** (emaitza akademikoez gain beste batzuk ere kontuan hartuta). Hala, irakasleak bitartekariak edo berrikuntza eta eraldaketa eragiten dutenak dira. Halako prozesuetan, **garrantzitsua da sistematik kanpo iritzia eman dezaketen eragileak/pertsonak gehitzea, baina baita sisteman lan egiten duten eragileak/pertsonak ere** (maila politikoan zein teknikoan), **parte hartzeko prozesua iraunkorra eta kalitatezkoa izan dadin. Gai horren inguruan «zarata politikoa» egiteko eta sare sozialetan eztabaidak hasteko beharraz ere hitz egiten da** (baita Irekia bezalako gobernuaren plataformetan).

2. Etengabeko ikaskuntza

Aspalditik eztabaidatu den (araudian ere jaso da) **kontzeptua eta «bizitzako metodologia» den arren, bizitza osoko ikaskuntza da gure gizartearen hezkuntza-arloko erronka nagusietako bat (ez bakarrik enplegua lortzeko aukerei dagokienez, baita herritar aktibo eta erantzunkide izateari lotuta ere).**

Bizitza osoko ikaskuntza ezin da garatu hezkuntza-sistema formalean bakarrik, **beste eremu batzuetako ikaskuntza ere** (familia, enpresa, eskola...) **gehitu behar zaio horri** (ulertzea, ezagutzea, integratzea...). Horregatik, **ezinbestekoa da arlo honetan herritarren parte-hartzea kontuan hartzea** ikasten ikasteko gaitasuna garatu nahi badugu (norberarentzat zein taldean).

Parte-hartzea garatu nahi ditugun balio eta printzipioen (gizarte-eredua) inguruan eztabaidatzeko tresna eraginkorra izan daiteke, geroz eta konplexuagoa den hezkuntzarako mekanismo baten bidez, hobetzen jarraitzeko (gerra ideologiko-politikoetatik harago) oinarri gisa balio duten akordio irmoak egiten ahaleginduz. Gaitasunak eta (nagusitasun partekatua, ezagutzaren kudeaketa etab.) jarrerak garatu behar dira (parte hartzekoak, irekiak etab.), **hezkuntzaren, enpresen zein gizartearen alorreko eragileek eztabaidatu eta parte hartzen duten foroak sortzeko bidea ere ematen dutenak.**

3. Hezkuntza-arloko berrikuntza

Hezkuntzaren berrikuntza kalitatezko hezkuntza- edo ikaskuntza-prozesuak lortzeko tresnarik eraginkorrena da; hala, prozesu horiek eragin soziala izango dute eta ebaluazioa etengabeko hobekuntzarako mekanismoa izango da. Hezkuntza-ekosistema oso zabala eta irekia dela kontuan hartuta, *(pertsona eta eragile guztiok gara hezitzaile aktiboak, hartzaile-pasibo izateaz gain)* **herritarren parte-hartzea oso baliagarria izan liteke jarduera politikoaren bi esparru zehatzetan berrikuntza garatzeko:**



- **Komunitatea ikaskuntzarako inguru gisa garatzea**

Komunitatea ikaskuntzarako inguru izatea oso lotuta dago bizitza osoko ikaskuntzaren ikuspegiarekin. Parte hartzeko eremuak dira, eta norberaren kontzientziaz gain, talde gisa hausnarketa egiteko aukera ere ematen du. «Erantzukizuna banatzen» den ingurua da, osatzen duten komunitateak eta pertsonak badakite hezkuntzaren eskumena ez dagokie administrazioei edo ikastetxeei bakarrik. Komunitatearen kontzientzia komunitateak berak oinarri dituen printzipioen jardun aktiboaren bidez bakarrik gara daiteke, sistemarekiko dagoen bezero gisako ikuspegia aldatu eta gure ikaskuntza-prozesurako erantzun berriak sortzeko bidean eginkizun nagusi bat izanda, parte hartzeko kultura gauzatzeko.

- **Irakasleak**

Irakasleak funtsezkoak dira hezkuntza-sistema aldatzeko eta honako alderdi erabakigarriak nabarmentzen dira: etengabeko prestakuntza, irakasleen hautaketa, gaitasun erabakigarrien garapena (gaitasun pedagogikoa, enpatia, adimen emozionala, gaitasun sozialak etab.), monitorizazioa eta ahaleginaren ebaluazioa (akademikoa denetik harago). **Europar eredu arrakastatsuenak zeintzuk diren azertu da dagoeneko (adibidez, Finlandia) baita eredu horien eskakizun-maila, hautaketa-irizpideak eta -printzipioak, talentuaren sustapena eta ebaluazioa ere; hortaz, **jardun horiek Euskadiko errealitate sozioedukatibora egokituz gero lortuko litzateke berrikuntza (hasiera-hasieratik hasi beharrik gabe).****

4. Hizkuntza-politika

Herritarren parte-hartzeak konpromisoen, errespetuaren, elkarbizitzaren eta hizkuntza-aberastasunaren esparru bat adosten lagun dezake, batzuetan beste elementu batzuek baldintzatzen dituzten interes edo diskurtso politikoak gainditzen dituen, Euskadin bizi diren guztiek komunitate bakar bat osatzen dutela oinarri hartuta.

Azken finean, ikaskuntzaren esparru honetarako, **herritarren parte-hartzeak honako hauetarako balio izan dezakeela aipatzen da: eztabaidak ireki, guneak zabaldu, ikaskuntza-esperientzia arrakastatsuek baloratu eta irudikatu eta herritarrak ahalduz ikaskuntzatik etekinik onena ateratzeko.**

Guztiek oinarri hori izanez gero, **hainbat mekanismo gara daitezke** (hezkuntza iraunkorraren fundazioa, etorkizuneko estrategia zehazteko organoa independentea, hezkuntzaren alorreko aholkuak, praktiken ikastetxeak, legeak, sare sozialak...), baina guztiek izan behar dute **helburu bera: hezkuntza-ekosistema osatzen duten eragile eta pertsona guztien arteko elkarreagina eta lana bermatzea.**

Moduari dagokionez, **erantzunkidetasunaren ikuspegia izanik**, herritarrek **pertsonen garapen orokorra eta balioen sustapena**, adibidez, erantzunkidetasuna, lortzera bideratutako **ikaskuntza-inguruak garatzea** lor dezakete. **Horien osagarri izango**



litzateke kalitatezko hezkuntza-sistema malgua, hezkuntzako eta trebakuntzako edukiak lan-merkatuak eta bizitza osoko gizarteak eskatzen dituen gaitasunetara egokituta dituen. Honako alderdi hauek aipatzen dira:

- **Hainbat ingurutan jardutea** (erakunde batean, lanean, familian, ohiko inguruan etab.) **“buruko ereduak” aldatzeko**, aukerak eman, ezagutza eta jakintzak partekatzea ahalbidetu eta inguruko interesa piztuta; hala, **komunitatea eraiki eta bertan bizitzea ahalbidetzen da, daukagun gaitasun kritikoa eta autonomia erabilita.**
- **Eredua oinarri hartuta jardun, gazteenentzat eredu eta erreferentzia izan eta ikaskuntza norberaren erantzukizuna dela baina hezkuntza komunitatearen erantzukizuna dela jakin.** Beraz, norberaren araberakoa dena aldatu behar da, eraldaketa handiagoak eginez aurrera egin ahal izateko.
- **Herritarrek komunitatearekin duten konpromisoa betez eman eta jasotzea, lankidetzan, modu autonomoan, parte hartuz lan-ereduetan jardunda...** alor guztietan eta pertsona guztiekin (haien adina edozein dela ere), **ikusi eta entzutea ondoren praktikan jartzeko. Sareak eta lan-eremu publiko-pribatu malguak sortu** behar dira, eta **ereduak deszentralizatu eta tokiko eraldaketa-prozesuak sortzeko** balio behar dute, ikastetxeei, udalei eta abarrei **komunitateko funtzio soziala definitzen eta ahaleginak handitzen lagunduta** konpromiso kolektiboa bezalako balioak (inplikazioa, militantzia, kultura-, genero- eta belaunaldi-aniztasunarekiko eta abarreko errespetua) besterentzeko.

3. INGURUMENA

Alor honi dagokionez, lehenik eta behin, zera azpimarratu da herritarren parte-hartzea gobernuaren ekintza-ildoetan gehitzeari lotuta: **herritarren partaidetza izan dezaketen bi ardatz nagusi daude, giltzarri izan daitezkeen ikuspegi eta agente berrien iritzia jaso dezaketenak:**


Antolamendua eta plangintza

Sentsibilizazioa



- **Antolamenduari eta plangintzari dagozkien gaietan, baliabide naturalen antolamendua da** abiapuntua (lurralde-antolamendua bezalako etorkizuneko antolamenduetarako oinarria). **Antolamenduak ekimen eta ekintzak planifikatu behar ditu, ingurumena zaintzea helburu dutenak, baina baita erabilerari eta aprobetxamendu iraunkorra bermatzen dutenak ere, garapen ekonomiko-teknologikoa eta ingurumenaren garapena bat etorrira** (*“kostuaren eta onuraren azterketarik oinarrizkoena ahaztu dugu”*). Horretarako, **garrantzitsua da politikarik orokorrenak diseinatzean herritarren parte-hartzea aintzat hartzea, esparru bat adostu ondoren, tokiko ekintzak gauza daitezen** taldeko ikuspegi horrekin koordinatuta eta ikuspegi horretara eginda.
- **Sentsibilizazioarekin** lotutako ekintzetan, **ingurumenaren erronka ez delako instituzioen arazoa bakarrik, baita pertsona guztiena ere** (nagusiki, helburua pertsonen egiteko aktiboagoa eta erantzuleagoa izatea bada). Edonola ere, **administrazioaren ardura da sistemaren iraunkortasuna bermatzeko argibideak eta aholku ulergarriak eskaintzea** (baliabideen erabilerari eta kontsumoari buruzkoak, adibidez) **eta argibide eta aholkuen onura pertsonalak azpimarratzea** (kostua aurrezteak, adibidez). **Herritarren sentsibilizazioak eta kontzientziatioak alor honetan asmo handiko arau adoretuak egiteko pizgarri gisa balio dezake, alor horretako interakzio ugarietarako erantzuteko eta erabakiak hobeto pentsatuta hartzeko** (ez bakarrik administrazioak eta herritarrek, baita enpresek eta hedabideek ere). Zentzu horretan, garrantzitsua da **informazio gehiago eskaintzea, gardentasun handiagoz lan egitea eta parte-hartze handiagoa sustatzea (benetakoa eta eragina duena)**. **Herritarren parte-hartzea bideratzeko metodoez hitz egin behar da, eztabaida zorrotz eta irisgarria egiten dela bermatzeko, burokratikoa ez dena** (irisgarritasuna hizkuntzari dagokionez aipatzen da).

Gogoeta hori kontuan izanda, honako **ildo** hauek azpimarratu dira **herritarren parte-hartzearen bidez lantzeko** interesgarrienak izan daitezkeenak:



1. Lurraldearen antolamendua

Lurraldearen antolamendua da beste politika batzuk garatzeko oinarria (lurraldea ondo antolatuz gero, paisaia zaintzen da eta herri txikiak biziraun egiten dute, adibidez).

Epe luzerako estrategiak behar dira, eta horien hasiera-hasieratik hartu behar dute parte herritarrek (AHTa aipatu da; izan ere, duela 20 urtetatik garatzen ari den proiektua da, baina duela gutxi eman zitzaion proiektuaren berri herritarrei); hala ere, parte-hartzeak mugak izan ditzake ezagutza tekniko ezinbestekoa den gaitan (baliteke herritarrek ez izatea ezagutza hori).

2. Hirigintza-plangintza eta -antolamendua

Eremu bat birmoldatzea edo berriro zehaztu behar den kasuetan batez ere, herritarren parte-hartzeak balio handia gehi dezake. Nolanahi ere, aipatu denez, batzuetan, toki bateko biztanleei kostatzen zaie gehien toki horrek dituen aukera guztiak ikustea (Bilbo aipatu da, adibidez).

3. Berotegi-efektuko gasen isurketa

Horren inguruan Europar Batasunak argitaratzen dituen datuak eta neurketak ezagutzera eman behar dira lirakeela azpimarratu da, **gizarteak gaiaren inguruan duen kontzientzia areagotzeko. Araudi orokor** bat ere prestatu behar litzateke (modu parte-hartzailean garatu daiteke, oinarria eta printzipioak behintzat), **hainbat alorretan aplikatzeko**: garraioa, energia, kontsumoa eta eraikuntza (hirietako etxebizitzak eta eremuen diseinua).



Udalerrri mailako kutsadura kalkula liteke (hileroko murrizketa- edo hazkuntza-datuena berri emanda, erabilerari eta kontsumoari lotuta) **herritarren parte-hartze aktiboa sustatzeko helburu horiek lortzeko prozesuan**. Donostian egin den lana aipatu da beste udalerrri batzuetan aplika daitezkeen eta onurak izan ditzakeen jardun on gisa. Halaber, garrantzitsua da **alor honetan egiten diren aurrerapenetan herritarren inplikazioa baloratzea eta saritzea**.

4. Balio natural handiko gunek eta eremu natural babestuak

Aberastasun natural eta interes biologiko handiko herrialde batean bizi izanik, **ezinbestekoa da horietaz jabetzea eta horiek babestea**, hirigintzari mugak jarrita. **Ez bakarrik eremu handi babestuetan, baita komunitateko txoko guztietan ere**. Ekintza-ildo horretan, **parte-hartzeak tokiko eremuetan gehituko luke balioa, *auzolana* bezalako lankidetzaprozesuak, parte hartzeko ekintzak eta abar sustatuta, baita komunitatea inguruko aberastasun naturalaren eta bertan izan dezaketen eraginaren inguruan informatuta** (informazioa eskuratzeko gunek, sare sozialak etab.).

5. Ingurumenari lotutako prebentzioa, babesa eta lehengoratzeta

Aurreko puntuarekin estu lotuta, eremu babestuak kudeatzean **informatzeko eta parte hartzeko bi maila daudela** azpimarratu da: **herritarren maila** (zer norabidetan doan, zeintzuk diren helmugak) **eta maila teknikoa** (nola iritsi helmuga horietara). Administrazioaileak **katalizatzaile gisa jardun behar du eta interesak multzokatu behar ditu ikuspegi orokorra izateko, gure ingurumeneko ondarea zaindu eta mantentzeko printzipioak oinarri**. Aipatu denez, **garrantzitsua da konpentsazioen sistema on bat garatzea, eta horretarako ezinbestekoa da pertsonen entzutea**: zer behar duten eta zer abantaila eskaini ahal zaizkien. Horretarako, **parte hartzeko prozesuetan eragile nagusiek hartu behar dute parte eta onurak erakutsi behar zaizkie** (modu positiboan, ez diziplinazko moduan, hau da, zigorrak bakarrik ezarrita).

6. Klima-aldaketaren aurkako borroka eta egokitzapena

Mundu osoko arazoa denez, **erronka zera da: mundu osoko halako arazo handi bat nola ekarri tokiko errealitatera**. Horretarako, **herritarren parte-hartzea ikertu beharreko gatazkak konpontzeko bidea izan daiteke** (baita guztientzako onura sortzeko ere). Gatazkak guztiak kontuan izanik konpontzea.

7. Hondakinak: ekoizpena eta kudeaketa

Klima-aldaketaren aurkako borrokan bezalaxe, **herritarren parte-hartzea proposatu da aurkako interesak koordinatu eta elkartzeko mekanismo eraginkor gisa**. Horrez gain, zera ere nabarmendu da **alor honetako kontu nagusien artean: nola lortu hondakin**



gutxiago ekoiztea; ez horrenbeste hondakinen kudeaketa. Aipatutakoaren arabera, **ez zaito behar bezalako arreta ematen itsasoko hondakinen gaiari ere** (plastikozko hondakinak batez ere, azkenean pertsonak jaten dituzten arrainek jaten baitituzte). Azkenik, udalerrri batzuetan hondakinen bilketari eta kudeaketari batez ere lotutako esperientziak kontuan izanik, garrantzitsua da, parte hartzeko prozesu osoan bezalaxe, **parte-hartzearen benetako mugak zeintzuk diren zehaztea.**

8. Ingurumenari lotutako hezkuntza, prestakuntza eta sentsibilizazioa

Atal honen hasieran esan bezala, **hezkuntza eta ingurumenarekiko sentsibilizazioa ezinbestekoak dira ingurumenari lotutako politika iraunkor eta erantzunkidea landu nahi bada.** Askotan, **berehalakoa eta epe laburrekoa denaren presa oinarri izanda jarduten da; hortaz, ezinbestekoa da prebentzioa, neurri handi batean ingurumenaren hezkuntzak baldintzatzen duena** (ez bakarrik oro har herritarrei zuzendurikoa edo haur eta gazteen hezkuntzan aplikaturikoa, baita enpresa eta beste eragile sozioekonomiko batzuei zuzendurikoa ere).

Informazioak osatua, ulergarria, gardena eta objektiboa izan behar du, askotan ez delako asmo txarrez jarduten, ezjakintasunez baizik. Herritarren esku jartzen den informazioan **hartu nahi diren erabakien abantailen eta desabantailen azterketa gehitu behar da** (edo hartu diren erabakiena), **ez dira abantailak bakarrik azaldu behar** (beti baitago abantailaren bat). Kargu politikoak dituzten pertsonen ardura da bi alderdien inguruko informazioa ematea *“egiarri ohore egiteko, ez baitago irtenbide magikorik”*. Beraz, **erabakiak hartzen direnean, argi eta labur argitaratu behar dira** (*“100 orrialdeko dokumentu aspergarri horiek ez ditu inork irakurtzen”*), proposamena eta horren alternatibak azalduta (kostuak eta onura, ez ekonomikoak bakarrik).

Aipatu denez, **informazio gehiegi ematearen arazoa konpondu egin da, herritarren partaidetza onartzeko benetako nahi politikorik badago** (*erabakiak informazio guztia jakinda bakarrik har daitezke*). Ezinbestekotzat jotzen da **parte-hartzea bideratzeko metodo berriak aztertzea, kritikoagoak izanda eta parte ez hartzeko arrazoiak kontuan hartuta** (*ez dira heltzen behar diren pertsonengana, halako gauzek ez dute ezertarako balio esperientzian oinarrituta...*); **izan ere, dagoeneko idatzitako gidoi baten parte izatearen ustea egoten da** (*Administrazioak zapaldu egiten gaitu... esaten duena esaten duela planifikaturikoa egingo dute, erabakien berri emateko hurbiltzen dira, ez erabakiak hartzeko*). Azkenik, auzuneeekin partaidetza-saioak egitea eskatu da.

Eztabaidaren bigarren zatian, **herritar gisa zer egin behar dugun eta nola jokatu behar dugun eztabaidatu zen, lurraldearen errespetuzko antolamendua hobetzeko**, azpiegiturak, ekipamenduak, etxebizitzak, mugikortasuna eta abar barne, ingurumeneko eragina murrizteko.

Oinarrizko printzipio bat proposatu zen erantzun labur gisa, **“toki batetik joatean, ez dadila nabaritu bertan izan zarela”**; ondoren, sakonago garatu zen aipatutako jarrera



eta ekintza posibleak aztertuta **erabilerari, kontsumoari eta ekoizpenari lotutako jarraibideei dagokienez.**

Erabilerari dagokionez, honako alderdi hauek aipatu ziren:

- **Ura xahutzea.** Euskadin Espainia hegoaldean erabiltzen den ur kopurua baino bi edo hiru aldiz gehiago erabiltzen da, ez delako hartzen baliabide urritzat. **Erabilera murrizteko ahalegina egin behar da.**
- Euskadiko etxeetan hartu beharreko **beste neurri batzuk:**
 - o Berokuntza-sistemen erabilera hobetzea
 - o Olio biltzea
 - o Etxetresna elektriko batzuen (hozkaile, ontzi-garbigailua etab.) erabilera (baita erosteko ere) arrazionalizatzea.
- **Mugikortasunari/garraioari lotutako erabakiak**
 - o Etxetik lan egitea, aukera dagoenean
 - o Garraio publikoa erabiltzea eta, ezin denean, autoa partekatzea.


Kontsumoari dagokionez, azpimarratu zenez, **botoa bezala, herritarren eragin handiko tresnetako bat da.** Geroz eta ohikoagoa da tokiko merkataritzaren, hurbileko produktuen edo aztarna ekologikotik ez duten produktuen aldeko apustua egitea. Hondakinen sorrera murrizteko ere, kontsumitzaileek bilgarririk gabeko (edo ahalik eta bilgarririk gutxieneko) produktuak eros ditzakete. Azken finean **ezinbestekotzat jotzen da norberak bere buruari galdetzea zer nahi duen kontsumitu eta, ondoren, kontsumo-ohitura horiek ingurumenean duten eragina aztertzea. Behar bezala birziklatzeak duen garrantzia ere aipatu zen.**

Kontsumoari hertsiki lotuta dago, eragiteko duen gaitasunagatik batez ere, **ekoizpena**. Aipatutakoaren arabera, **ekoizteko modu batek modu batera kontsumitzea dakar, edo alderantziz, kontsumitzeko modu batek modu batera ekoiztea dakar.** Besteak beste, produktu batzuen zaharkitzapen programatua edo beharrezkoak ez diren bilgarriak aipatu ziren.

Edonola ere, gehienek ustez, **ezin da “utzi herritarren esku planeta salbatzeko ardura”,** eta nahiz eta beharrezkoa izan **jendea pertsonalki eta kolektiboki kontzientziaztea (belaunaldien arteko konpromisoa), Administrazioaren aldeko eta herritarren aldeko ahalegina orekatua** izan behar da. Gutxi jartzen dute zalantzan gaur egungo sistema irabazi-asmoak motibatzen duela; beraz, motibatzen edo mugiarazten gaituena aldatuta bakarrik bihurtuko da eredu ekonomikoa eredu iraunkor (gizarteari zein ingurumenari dagokionez). **Hazkuntza eta garapen ekonomikoa gure gizartearen eragile nagusiak diren bitartean, zaila izango da eraldaketa handirik gertatzea guztion onura lortzeko ikuspeirik ez badago.**

4. KOHESIO SOZIALA

Jarraian, alor honetarako ekintza-ildoak aipatzen dira. Ildo horietan herritarren parte-hartzea kontuan hartzeak egoera hobeto lezake:



1. Bizikidetzeta eta aniztasunaren kudeaketa

Bizikidetzeta geroz eta kontzeptu zabalagoa da (aniztasun funtzionala), neurri handi batean bilakatuz joan dena (administrazioaren esparruan), hirugarren sektoreak eta elkartegintzak bultzatuta. Horregatik, **funtsezkoa da herritarren parte-hartzea alor honetako politika, plan eta zerbitzuak garatzean, ezartzean eta ebaluatzean. Zerbitzuak eskaintzeko eredu integratzaileago** baten aldeko apustua egin behar da (eta ez estigmatizazioa eta lotura negatiboak egitea ekar dezakeen banaketa), **beharrezko baliabideak eskaintzen dituen, ez bakarrik herritarrak babesteko, baita haien autonomia eta erabateko herritartasunaren aldeko eskubidea garatzeko ere** (subjektu politikoaren eta protagonistaren ikuspegia, ez onuradunarena).

2. Laguntza sozialen bermea gizarte-egoera ahulean daudenentzat

3. Baztertuta dauden pertsonen gizarteratzea

Gizarte-egoera ahulean edo baztertuta dauden pertsonen kasuan, alde batetik **gizarte-babeserako sistema bat** (zerbitzuak, gutxieneko diru-sarrerak etab. eskuratzeko aukera) bermatu behar da, **azken helburua pertsona horien erabateko gizarteratzea izan behar dela ahaztu gabe. Gaur egungo egoeran, beharrezkoa da herritarren parte-hartzea kontuan hartzea gizarte osatzen duten pertsona guztien eskubideak bermatzen dituen gizarte-kontratu berri bat berridazteko edo, hala dagokionean, berriro zehazteko, laguntzeko baino bermatzeko asmoa oinarri (zerbitzuak karitate gisa jasotzen dira eta lotsa ematen du eskatzeak, bidezkoak direnean). Zerbitzu duinak sustatu** behar dira



(pertonentzat eta eskaintzen direnean) **jasotzen dituztenen gaitasunak garatzea eta ahalduntzea sustatuta. Premiak testuinguruan kokatu eta bazterkeriaren benetako arrazoiak ulertu behar dira. Herritarren parte-hartzea oso baliagarria izan daiteke horretan (baita parte hartzen duten eragileena ere).**

4. Gazte-enpleguaren sustapena

Gazteen langabezia-tasak eta horrek gure gizartean izan dezakeen eraginak kezkatzen du gizartea (gizarteko *cracka* aipatzen da). Horregatik (kezka, garrantzia) uste da interesgarria izan litekeela herritarren parte-hartzea kontuan hartzea gaia lantzeko orduan. Enplegua da gizarteko beste arazo batzuen irtenbidea/eragilea, eta nahiz eta ezin zaion eskatu Administrazioari enplegua sortzeko, inguruak sortzeko eska diezaiokegu (araudienak, lankidetzan aritzeko etab.), beste erakunde/eragile batzuei enplegua sortzen laguntzeko.

Gazteen langabeziaren kasuan, ondorioak are gogorragoan izan daitezke (gizarteari eta etorkizuneko oparotasunari dagokienez) ez bakarrik Euskadiko gizartearen profil demografikoagatik, baita askotan Euskadiko ekoizpen-sistamarako beharrezkoak diren talentuak eta gaitasunek ihes egitea dakarrelako.

Edonola ere, gazteen enpleguari lotutako garrantzia kalkulatu da. Horren arabera, haurtzarotik enplegua bilatzeko ibilbidea markatzen dela kritikatu da; izan ere, bidea zehazten ez denean, frustrazio handia eragiten du. Esandakoaren arabera, txikitatik erakutsi behar da garrantzitsuena garapen profesionala bilatzea dela (garapen pertsonalarekin batera) eta bide horretan norbera dela protagonista: **ezinbestekoa da gazteek euren proiektu eta ekimenak gara ditzaketela eta garatu behar dituztela barneratzea.**

5. Haurren eskubideak

Gazteen langabeziaren kasuan bezalaxe, krisialdian haurrak izaten dira ekonomikoki babes gutxien izaten dituzten kolektiboetako bat. Hala eta guztiz ere, azpimarratu zen beharrezkoa dela haurren eskubideen arloan lan egitea, haurrei eragiten dieten erabakietan haurren parte-hartzea kontuan hartuta, ez bakarrik informatzeko, baita parte-hartzea erabakiak hartzearekin lotzeko ere. Beraz, herritarren parte-hartzea proposatzen da kolektibo gisa eragiten dieten eta haien inguruan edota komunitatean inpaktua duten erabakietan haurren parte-hartzea sakontzeko mekanismo eraginkor gisa (Haurren kontseilua bezalako dagoeneko ezarritako esperientziak, adibidez).



6. Hirugarren sektorearen sustapena

Hirugarren sektoreari dagokionez, beharrezkotzat jotzen da **parte-hartzea kontuan hartzea koordinazio-sareak (bitartekaritza-sareak) sortzeko eta garatzeko orduan**. Halaber, hirugarren sektorearen garapenaren barruan, **garrantzitsua da herritarrek eguneroko egitekoetan gehitzea, zerbitzuen hobekuntzan eta aplikagarritasunean eta hurbilketa praktikoetan berritzeko, baita erabakiak hartzeko barneko prozesuetan ere**.

Dinamikaren bigarren zatia **herritarrek aktiba ditzaketen arlo eta mekanismoei** buruzkoa izan zen. Horien bidez, integrazioa eta Euskadiren garapen osasungarri eta bidezkoa bultzatu litezke enpleguaren, hezkuntzaren, elkartasunaren edo gizarte-babesaren alorreko ekintzen bidez.

Parte-hartzea kohesioa eta gizarte-garapena sustatzea helburu duen edozein ekintza garatzeko funtsezko tresnatzat jo zen hasieratik.

Aipatuenez, **parte hartzeko hainbat esparru daude, eta ez dute beti instituzioen esparruarekin lotuta egon behar**. Nolanahi ere, beharrezkotzat jotzen da **balioetan oinarritutako hezkuntza sustatzea (parte hartzen duen gizartearen ardatz izan dadin)**, non pertsonak **haien hurbileko inguruan «eredu eta agintzen duen figura» izateko gaitasuna duten**. **Administrazioaren eta herritarren harremana hobetzea** beharrezkoa dela uste da (komunikazioaren kasuan bereziki) eta, horretarako, **«eman eta jaso» oinarri duen eredutik «batera sortzeko» eredura aldatu behar gara**.

Administrazioak, aurreko jardunaldietan esan bezala, zera ulertu behar du: **parte-hartzeak eragin handikoa izan behar duela**. **Gaikako komunitateak gara litezke (osasuna, kultura, hezkuntza...), horietan, askotariko profilak dituzten baina helburu bereko pertsonak/profesionalek bat egin eta elkarri eragiteko** (baina betiko elkarrekin sortu gabe). Komunitate horiek **parte hartzeko eremuak izan litezke, parte-hartzea arazoa sortu aurretik gauzatuz** (baldintzatzaile edo presiorik gabe, modu eraikitzailean).

Norberak hartu beharreko konpromisoei dagokienez, **bakoitzak aztertu behar du noraino arituko den herritar aktibo gisa eguneroko bizitzan** (eraikitzailea, eraginkorra, interaktiboa, alaia, sortzailea, erabakitzailea, laguntzailea...). **Funtsezkoa da lankidetzan aritzea, lehiakor, baina inor zapaldu gabe** (adibide gisa, enpresen alorrean, argi ikusten da enpresari arrakastatsuenak izaten direla honako hau jakiteko besteko azkarrak direnak *«bakarrik bizkorrago irits daiteke jomugara, baina batera urrunago irits daiteke»*), **porrota prozesuko beste urrats baten gisa onartuta, balio sozialaren eraikuntzan gure inplikazioari eta parte-hartzeari dagokionez ere**.

Aipatutako parte-hartze sozialarekin estu lotuta dagoen beste mekanismoetako bat da **boluntarioritza; horrek dakarren ikaskuntza (pertsonala eta taldekoa) azpimarratu zen**. **Boluntario aritzeko eremu bat aurki dezake bakoitzak, nahietan edo asalduran oinarrituta (ez dute denek lana zaletasun)**.

5. GARAPEN EKONOMIKOA

Edukien lehen blokean, zera eztabaidatu zen: jarduera politikoaren zein ardatzen inguruan aplika daiteke herritarren parte-hartzea hoberako. Honako ildo hauek aipatu ziren:



*“Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistema”ren eta “I + G + B”ren ildoak ere bozkatu egin ziren baina ez ziren garatu hurrengo eztabaidan):

1. Industria-politika

Zikloetan errepikatzen iren segidako krisialdiak bizi ditugula dioen oinarri ekonomikoa abiapuntu hartuta, **sistema egiteko modua aldatu behar da, epe luzera begiratu behar da, epe laburrera begiratu beharrean. Izan ere, epe luzerako ikuspegi horretan lagun dezake bereziki herritarren edo eragile sozio-ekonomikoen parte-hartzeak** (eragile/enpresa sustatzaileak ahaztu gabe). Ukaezina da **merkatuak eta ekoizpen-jarduerak berrantolatzen ari direla, eta orain, inoiz baino gehiago, herrialdeko estrategia partekatu baten falta nabaritzen da (iparrorratza).**

2. Ekonomia sozialaren sustapena

Sistema-aldaketaren esparruan, alde baterako zein besterako norabidea har daiteke, eta ezinbestekotzat jotzen da **garapen ekonomikoa eta kohesio soziala batera doazen sistema bat garatzeko behar diren pausoak ematea**. Horretarako, **negozioen oinarri diren balioak berreskuratu behar dira** (bere inguruan eragin soziala, denentzako onura, kontzientziazio soziala, tokiko ekonomia... dituen eragile gisako enpresa), **eta ekonomia soziala sustatu beharreko bide bat izan daiteke. Arlo ezberdinetako enpresen arteko eta elkarte / eragile sozialen arteko parte hartzeko prozesuak sustatuta negozio eta enpresen ekimen berriak sor daitezke.**



3. ETE-ei laguntza

Administrazioen aldetik ez zaie arreta bera ematen ETE-ei enpresa handien aldean; hori dela-eta, ETE-ei laguntzeko mekanismo berriak garatzeko parte hartzeko prozesuak gauzatzea proposatu zen, 3 alor handiren inguruan (enpresa handiek, eskalako ekonomia eta eragiteko gaitasunagatik, egoera abantailatsuagoa duten gaietan): **zerga-politikak, prestakuntza-politikak eta nazioartekotzea.**

4. Ekintzailletza

Jardunaldiko partaideen iritziz, Eusko Jaurlaritzak ez dauka enpresen sorrera eta garapena sustatzeko estrategia argi bat, edo sustatzen duen ekintzailletza-ereduak ez du funtzionatzen (adibide gisa star-up delakoak sortzeko izapideak egitean malgutasunik ez izatea aipatu zen); **nahiz eta erreferentzia diren herrialde eta eskualde ugari egon eredu gisa har daitezkeenak.**

Halaber, ez da behar bezala baloratzen edo sustatzen enpresetako ekintzailletza (politika espezifikoagoak eta eraginkorragoak). Ez da bultzatzen euskal lanbide-heziketaren eredia garatzeko berrikuntza ere; hainbat urtez ereduak sistema izan zen, enpresen munduarekin lotura estua izateaz gain hainbat gaitasunetako prestakuntza ere eskaintzen duelako (sormena, berrikuntza, arriskuei aurre egiteko gaitasuna, izaera kritikoa, aldaketarekiko irekitasuna etab.), **balioetan oinarritutakoa** (enpresa-proiektuak sortuta inguruarekiko eta inguru horren parte diren pertsonetikiko konpromiso sozial gisa). **Partaidetza lanbide-heziketa sustatzeko eta ekintzailletzako eta enpresa barruetako ekintzailletzako politikak aldatzeko bide berriak diseinatzeko tresna eraginkorra izan daiteke, baita bi alor horien artean norberaren, lanbidearen eta enpresaren garapen-sistema eraikitzeko ere, bitziza osoko ikaskuntza aurrera egiteko indarra izanik.**

5. Talentua sustatzea

Alde batetik, **talentua enpresetara iristea falta da** eta, beste alde batetik, **ezagutza ikerketa-zentroetatik enpresetara eramatea falta da.** Hortaz, **talentua eta ezagutzak hedatu eta komunikatu behar dira.** Horretarako, **komunikazio-kanalak hobetu behar dira**, eta alor horretan lan egiten duten eragile eta enpresak dira **oztopoak zeintzuk diren eta nola ken daitezkeen dakitenak.**

Edukien bigarren blokean **herritarren ekimenak zeintzuk izan daitezkeen** aztertu zen, **hau da, Euskadiko ekonomia berritzailea, lehiakorra, ekologikoki iraunkorra eta irekia izaten lagun dezaketenak, etorkizuneko belaunaldien aukerak arriskuan jarri gabe.**

Lehenik eta behin **bizkortu egin behar dela azpimarratu zen, ez baita erraza hasiera-hasieratik sortzea eta guztion artean eredu bat zehaztea eskatzen baitu, herritarren konpromisoan oinarritutako garapenerako eredu ekonomiko eta sozial bat.**



Parte hartzeko prozesu bat proposatu zen bi ardatzen inguruko ikuspegi partekatua sortzeko: nolako herrialdea garen (eta nolako herrialdea izan nahi dugun) eta nondik hasi nahi dugun herrialdea eraikitzen (zeintzuk dira gure nortasuna eta balioak, nortzuk dira gure erreferentziak eta nola sor dezakegu eraldaketa-prozesu dinamiko eta jarraitua). **Besteak beste, honako alderdi hauek azertu beharko dira: zer eginkizun izan dezaketen eta izan behar duten adinekoek, lankidetzara publiko eta pribaturako eredu berriak, berrikuntza soziala, parametro ekonomikoen gain beste batzuk biltzen dituzten adierazleak** (adibidez, zoriontasun-indizea etab.).

Garapen-eredua berriro zehazteko partaidetza kontuan hartzeko aukeraz gain, herritarrek Euskadiren garapen ekonomikoan eragiteko eginkizuna izan dezaketen faktore batzuk ere aipatzen dira:

- **Kontsumo arduratsua eta pertsonetan ardaztutakoa** (ingurumenaren atalean argi adierazi den bezalaxe), herritarren eskura dagoen bitarteko nagusia eta ekonomia pertsonalean oinarritutako koherentziari lotuta.
- **Bizitza osoko ikaskuntzarekiko konpromisoa**, norberarena eta besteena (jardun berritzaile, laguntzaile, ekologikoki iraunkor eta irekiak aintzatetsi, saritu eta gozatea).
- **Aktiboa izatea pertsonetara bideratutako eta inguruarekin konprometitutako garapen ekonomikoa sustatzen duten mugimendu sozialetan** (adibidez, kontsumo-taldeetan).
- **Autoexijentzia eta gaitasun kritikoa** garatzea gure instituzio eta enpresekin.
- **Tolerantziarik ez izatea iruzur fiskalen kasuetan.**



1. ERANSKINA – GAIKAKO EKINTZA POLITIKOEN ILDOEN ZERRENDA

O S A S U N A	<ol style="list-style-type: none"> 1. Osasun-sistamarako bidezko sarbidea 2. Osasun-sistemaren iraunkortasuna 3. Osasunaren alorreko plangintza, antolamendua eta ebaluazioa 4. Etika (laguntza ematean, bioetikan, ikerketa klinikoetan...) 5. Osasunaren alorreko ikerketa eta berrikuntza 6. Eremu sozio-sanitarioa 7. Osasunaren alorrean aplikatutako teknologia berriak 8. Zahartzea 9. Autonomia bultzatzea - Mendetasuna 10. Kronikotasuna 11. Haurren eta gazteen osasuna 12. Osasuna eta elikadura 13. Sexu- eta erreproduktzio-osasuna 14. Osasun publikoa eta mendekotasuna 15. Laneko osasuna 16. Genero-indarkeria 17. Farmazia 18. Inguruaren kalitatea eta osasun-kontrolak, janari-segurtasuna eta -higienea 19. Osasun-aseguru eta -kontratazioa 20. Osasun-lanbideen etengabeko prestakuntza 21. Arreta espezializatuko zerbitzuak 22. Lehen mailako arreta zerbitzuak 23. Osasun-iragarkien kontrola
I K A S K U N T Z A	<ol style="list-style-type: none"> 1. Hezkuntza-arloko berrikuntza 2. Ikastetxeak 3. Lanbide-heziketa 4. Unibertsitateak 5. Politika zientifikoa 6. Hizkuntza-politika 7. Euskara sustatzea 8. Jarduera artistiko eta kulturalak 9. Kultura zientifikoa 10. Ikasleak, hezkuntza-sistemaren erdigunean 11. Prestigioko irakasleak 12. Ikasteko beste inguru batzuk komunitatean 13. Etengabeko ikaskuntza 14. Euskal unibertsitate-sistemaren kalitatea 15. Politika zientifiko finkatua eta iraunkorra 16. Hizkuntza-politika 17. Gaitasunen trebakuntza eta egiaztapena 18. Hezkuntza-kalitatearen ebaluazioa



I
N
G
U
R
U
M
E
N
A

1. Lurraldearen antolamendua
2. Hirigintza-plangintza eta -antolamendua
3. Paisaiaren antolamendua eta babesa
4. Lurraldearen birsortzea eta industria-hondakinak
5. Lurraldeari, ingurumenari eta abarri buruzko informazioa
6. Urak: jabari hidrauliko publikoa
7. Klima-aldaketaren aurkako borroka eta egokitzapena
8. Atmosferako ingurumenaren kalitatea: zarataren, argiaren eta usainaren kutsadura
9. Berotegi-efektuko gasen isurketa
10. Ingurumenari lotutako prebentzioa, babesa eta lehengoratzeta
11. Hondakinak: ekoizpena eta kudeaketa
12. Lurzoruaren kalitatearen kontrola
13. Ingurumen erantzukizuna
14. Ingurumen-politika
15. Inguru naturalaren zaintza eta babesa
16. Baliabide naturalen antolamendua eta erabilera iraunkorra
17. Balio natural handiko guneak eta eremu natural babestuak
18. Fauna eta landaredia, basokoa eta itsasokoa: espezie mehatxatuak eta espezie inbaditzaileak
19. Ingurumenari lotutako hezkuntza, prestakuntza eta sentsibilizazioa
20. Udalerrietako ingurumenaren iraunkortasuna Tokiko Agendaren bidez
21. Garraio-azpiegituren garapena eta mantenimendua
22. Larrialdi planak
23. Garraio iraunkorra
24. Garraio-azpiegituren plangintza
25. Garraioaren modernizazioa

K
O
H
E
S
I
O

S
O
Z
I
A
L
A

1. Familiei laguntzeko politikak eta neurriak
2. Bitartekotza-zerbitzuak
3. Nazioarteko adopzioa
4. Haurren eskubideak
5. Askatasun afektibo-sexuala
6. Boluntarioratza
7. Gaitasun-urritasuna
8. Hirugarren sektorearen sustapena
9. Baztertuta dauden pertsonen gizarteratzea
10. Pentsioen sistema publikoa
11. Gizarte-aurreikuspen osagarriaren planak
12. Etxebizitza eskuratzea
13. Hiri-birgaikuntza, -berrikuntza eta -birsorkuntza bultzatzea
14. Ikerketa eta berrikuntza
15. Laguntza sozialen bermea gizarte-egoera ahulean daudenentzat
16. Arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako borroka
17. Etorkinen gizarteratzea
18. Bizikidetzeta eta aniztasunaren kudeaketa
19. Gizon eta emakumeen arteko berdintasun-politikak
20. Gazteen enplegua sustatzea
21. Enplegurako prestakuntza: langabetuak eta langileak
22. Enplegu inklusiboa Enpleguarekiko elkartasuna
23. Baztertuta geratzeko arriskuan daudenak gaitzea eta laneratzen laguntzea



G
A
R
A
P
E
N

E
K
O
N
O
M
I
K
O
A

1. Lehiakortasuna eta industria-politika
2. Klusterren politika
3. ETE-ei laguntzea
4. Erakunde publikoen eta pribatuen lankidetzaren politika
5. Industriaren globalizazioa
6. Inbertsioak erakartzeko politika
7. Sektore berriak
8. Ekintzailetzaren euskal sistema
9. Industria bultzatzea
10. Zientzia, teknologia eta berrikuntzarako euskal sistema
11. Talentua sustatzea
12. Zientzia- eta teknologia-sistemaren nazioartekotzea
13. I+D+B
14. Laugarren sektorea
15. Sektore turistikoa bultzatzea
16. Autonomoentzako laguntza osoa
17. Hiriko saltokien ingurua hobetzea
18. Ekonomia sozialaren sustapena
19. Lehen sektorea bultzatzea
20. Arrantzaren eta akuikulturaren sektorea bultzatzea
21. Informazio-gizartea
22. Elikagai-industriak
23. Ekoizpen Ekologikoa
24. Zerga-politika
25. Sormenezko industriak



2. ERANSKINA – ARLOKAKO HELBURUAK

OSASUNA	Galdutako edo murriztutako norberaren osasuna lehengoratzea eta taldeko osasuna prebenitu eta sustatzea sektore eta herritar guztien ahaleginaren bidez.
IKASKUNTZA	Pertsonen garapen orokorra eta erantzunkidetasuna bezalako balioen sustapena lortzera bideratutako ikaskuntza-inguruak eraikitzea. Horien osagarri izango litzateke kalitatezko hezkuntza-sistema malgua, hezkuntzako eta trebakuntzako edukiak lan-merkatuak eta bizitza osoko gizarteak eskatzen dituen gaitasunetara egokituta dituena.
INGURUMENA	Lurraldearen, azpiegituren, ekipamenduen eta etxebizitzaren errespetuzko antolamendu orekatua egitea eta iraunkorragoa den mugikortasun-eredu integratua garatzea, energiarekiko daukagun mendetasuna murrizteko eta berotegi-efektuko gasen emisioak eta klima-aldaketaren eraginak arintzeko.
KOHESIO SOZIALA	Erabat integratzailea eta bateratua den Euskadi finkatzea, enpleguan, hezkuntzan, prebentzioan eta elkartasunean oinarrituta, eta babes sozialeko sistemak indartzea garapen harmoniko, osasungarri eta bidezkoa bermatzen jarrai dezaten.
GARAPEN EKONOMIKOA	Euskadiren ekonomia berritzailea, lehiakorra, ekologikoki eraginkorra eta irekia izan dadin lortzea, egungo premiei erantzuteko gai dena, etorkizuneko belaunaldien baliabideak eta aukerak arriskuan jarri gabe.



b) Taldekako prozesuko txostenak

Lego saioa. Belaunaldien arteko tailerra

Durango, 2014/03/12

Bertan izan dira:

Maristak Ikastetxeko hogeita bat ikasle eta lau heldu: Sabino Ayestaran, M^a Luisa Mendizábal, José Ramón Urrutia eta Begoña Nogueira

LEGO fitxekin trebatuz hasiko da dinamika

Ariketa hauek egiten hasiko dira:

1. Putz eginda erori gabe eutsiko dion dorrerik altuena eraiki banaka
2. Mugikorrari erori gabe eutsiko dion zubia eraiki banaka
3. Aurkeztu zure burua lego bidez - Adierazi zertan parte hartzen duzun

Sarrera

Saioaren hasieran helduek kokatuko dute bizi dugun egoera. Euskadi oraindik eratu gabeko gizartea da (politikoki, sozialki...); mundura zabaltzeko ahaleginean dabilen gizartea da; herrialdea errotuta dago, baina Europari begiratzen dio.

Gazteek beren ingurunea azalduko digute: lokala eta lagun taldea dira haien topaguneak, eta aktiboki parte hartzen dute horietan baita ingurunerik hurbilenetan ere, herrian: bertako elkarteetan, haurrak zaintzen edo jaiak antolatzen.

Naturarekin, iraunkortasunarekin, boluntariotzarekin eta elkartegintzarekin zerikusia duten gaiak dira gehien interesatzen zaizkienak. Partaidetza lidergoarekin lotzen dute nagusiki, helburuak izatearekin, arrakasta izatearekin eta itxaropenak betetzearekin.



Zer da parte hartzea?

Parte hartzea xede bat bilatzeari ekin eta xede horrekin konpromisoa hartzen dugunean hasten da; eragiten gaituzten erabakiak non hartzen diren, lekuan horretan egotea da, erabaki horiek denon ongizatea eragin dezaten. Desberdinen artean elkarlanean aritzea da, desberdintasunetik eraikiz. Zerbaiten parte zarela sentitzea da, horretarako iritzi desberdinak entzunez, denen artean xede bera lortzeko.

Inplikaturata sentitu ahal izateko beharrezkoa da "parte zarela sentitzea". Gazteen kasuan lonjetako antolaketarekin egiaztatzen da hori, bertako partaide sentitzen baitira eta, beraz, parte hartu eta antolatu egiten dira. Parekoen artean antolatzen dira, bertan lekua dutela sentiarazten dien espazioa sortu dutelako; beren burua kudeatzen dute bertan, eta erantzukizunak eta betebeharrak banatzen dituzte, eta, horiek bete ezean, ondorioak sortzen dira (isunak).

Parte hartzea, hortaz, lehen urratsa egitea da, eta lankidetzan oinarrituta egiten da, elkarrekin "ekinez", ideia desberdinetako pertsonen ingurunean, nork bere iritzia eman ez eta eraikiz. Helburu jakin batera heltzeko elkarrekin lan egiten bada izango du zentzua parte-hartzeak. Ideia desberdinetako pertsonak, iritzia eman eta eraiki egiten dutenak. Espontaneotasunetik eta norberaren ideiak emanda gauzak aldatzeko nahia da.

Parte hartzeko zer eduki behar du pertsona batek? (Gaitasuna, bertutea, balioa, interesa...)

Motibazioa dagoenean sentitzen da parte hartzeko bultzada; gauzak alda litezkeela uste duzunean, alegia. Hori dela eta, gazteek diotenez, xede hori berezkozat sentitzeko premia dute; hobetu daitekeen xedea, askotan, eta elkarrekin bat egiten dute, parte hartu eta xede hori lortzeko.



Hori horrela, azpimarratu behar da gazteek beren partaidetza baliagarria dela sentitzen duten alor edo gaietan parte hartzen dutela batez ere, interesatzen zaienetan eta konpromisoa duten horietan. Helburu eta ingurune bera izanik, areagotu egiten dira gogoia eta interesa, norberaren onginahia gainerakoen onginahiarekin bat eginez eta enpatia handia edukiz, beren habitatean baitaude.

Parte hartzeko funtsezkoa da porrotari beldurrik ez izatea; jakina da parte hartzean arriskuak daudela, baina parte hartzen ez duenak ez du irabazten.

Era berean, gazteek diote adin horretan besteek esango dutena ere faktore garrantzitsua dela (*esan liteke zenbait gauzatan parte hartzea ez dagoela zabaldua*) eta nortasun nabarmena eduki behar dela eta ideiak argi, parte hartzen lehena izateko. Bakarrik geratzeko eta beste inork ez jarraitzeko beldurra dago, baina, behin norbaitek parte hartzen duenean, domino-efektua sortzen da, eta pertsona gehiagok ematen du izena. Pentsatzen dute "*gaizki begiratu*" diezaieketela parte hartzen badute.

Proiektu batean parte hartzeko funtsezko ezaugarritzat hartzen dute gardentasuna. Alde batetik, ezkutatu beharreko ezer ez egotea, eta, bestetik, gertatzen ari diren partaidetza-prozesuen berri izatea, eta horietan parte hartu ahal izatea.

Gazteek proiektu sozialetan edo tokiko elkarte-ehunean zergatik ez duten parte hartzen eztabaidatzean, beti azaleratzen da beste alor batzuetan parte hartzen dutela —hala nola lonjetan edo kirolen alorrean— eta ez dutela hori ahalegintzat hartzen. Hortaz, zertan datza aldea? Arazoa da beren ingurunetik ez dagoela haienganako konfiantzarik (errealak edo hala hautemandakoa); horrez gain, uste dute ez dagoela beharrik, eta askotan uste dute ez dutela behar beren ingurunetik kanpoko inor eta ezer. Hona, bada, berriro ere, garapen pertsonal eta sozialerako ardatz esanguratsuak: talde bateko kide direlako sentimendua, batetik, eta aisiarekin eta dibertsioarekin duten lotura, bestetik.



"Lurrera jaistea" behar dute; ez da gauza bera partaidetza-prozesua helduekin edo hurrekin egitea, eta gazteak bi mugen arteko lurrean geratzen dira batzuetan; hala, ez dute loturarik sentitzen, eta ez dute aintzatespenik hautematen. Parte hartzeko oztopoa da hori; izan ere, haiek dioten moduan, ezinbestekoa da konfiantzazko lekuetan parte hartzea. Hala eta guztiz ere, aipagarria da parte hartzen jarraitzeko duten nahia eta interesa, parte hartuz ikasten baita parte hartzen.

Zer behar dugu parte hartzeko?



Parte hartzeko ezinbesteko elementua da motibazioa: nor bere iritzia emateko aukera ematen dien ingurunean inork zerbait proposatuz gero, gainerakoek erantzun dezatela. Hau da, erantzun soziala, kide izateko sentimenduarekin batera.

Parte hartzeko orduan, argi izan behar da desadostasunek osatu egiten gaituztela eta alde horiek batuz denok irabazten dugula; hori ere azpimarratzen dute:

- *Niri falta zaidana besteengan bilatzeko modua da, horrela pertsona gisa haziz.*
- *Prozesu batean nahasita bazaude, horren parte izatearen ordaina duzu.*



- Parte hartzen ari banaiz, nire iritzia entzun dezatela nahi dut
- *Zerbaitetan parte hartzeak eskuzabaltasuna dakar, beste zereginetan (aisian) eman dezakezun denboraren zati bat inbertitu behar baituzu*

Orduan, zergatik ez duzue parte hartzen?

Gazteei parte hartzeko lekua utzi ote diegun, horixe da nagusiek egiten duten lehen galdera; izan ere, haien ikuspegitik, baliteke gazteek askotan ez parte hartzea, ez zaielako uzten parte hartzen. Gazteek, erantzun dutenez, aldiz, parte har dezaketela sentitzen dute. Alde batetik, bozkatzuz parte hartzen dute (besteok zu entzuteko modua da) eta, bestetik, etxean edo ingurune hurbilenetan ere parte hartzen dute.

Hori horrela, gazteriak ez du uste parte hartzen ari ez denik; era berean, ez du uste eta ez du onartzen egoera hori gazteekiko ezagutza-faltak (alegia, ez ezagutzea haien errealitatea, partaidetza alorrak, interesak), aurreiritziek edo belaunaldien arteko distantziak eragiten dutela dioen kritika hori.

- *Bizitzan etengabe hartzen duzue parte bizi zaren gizartean; gizartean parte hartzen duzue ikastetxean zaudenean, adineko norbaiti kalea gurutzatzen laguntzen diozunean, etxean laguntzen duzunean, eguneroko bizimoduan eta abar.*



Lego saioa. Partaidetzaren inguruko beste begirada batzuk tailerra

Innobasque, 2014/03/12

Bertan izan dira:

17 parte-hartzaile: Joseba Zarraga, Piter Blanco, Eukene Fernández, Blanca Mata, M'Angel Manovell, Mentxu Ramilo, Iñaki Ortiz, Arantxa Sainz de Murieta, Julen Iturbe, Ana Viñals, Begoña Pecharromán, Amaia Agirre, José Juan Orbe, Richard Cano, Lander Amorrortu, Markel Cormenzana eta Juan Carlos Melero.

LEGO fitxekin trebatuz hasiko da dinamika

Ariketa hauek egiten hasiko dira:

1. Putz eginda erori gabe eutsiko dion dorrerik altuena eraiki banaka
2. Mugikorrari erori gabe eutsiko dion zubia eraiki banaka
3. Aurkeztu zure burua lego bidez - Adierazi zertan parte hartzen duzun

Zer da parte hartzea?

- Parte hartzea IZATEA da

"Guztion ongiarekin" konpromisoa hartzen denean hasten da parte-hartzea, eta, beraz, talde bateko edo gizarteko parte izateko bilaketarekin lotuta dago. Komunitate bateko kide izateko sentimendu horretatik, gure harri-koskorra jartzen dugu, gizartera ekarrita norberaren ikuspegia, ahotsa, esperientziak... Norberaren interesean oinarritzen ez den jarrera pertsonala da (bestela lobbya litzateke); horren ordean, gure ingurunearekiko eta bertan bizi direnekiko ardura du oinarri (gure jarrerak besteengan eragina du eta haien ardura da).



- Parte hartzea AHAL IZATEA da

Inplikazio hori gauzatu dadin, ordea, beharrezkoa da "desberdinak" direnek parte hartu ahal izateko guneak eta testuinguruak sortzea. Aurrez aipatutako talde bateko kide izateko sentimendu horretatik abiatuta, komunitate bateko kide direnek bertan leku bat dutela sentitu behar dute. Xede horretarako beharrezkoa da "egin ahal izatea" eta "adierazi ahal izatea" ahalbidetuko duen testuingurua garatzea. Testuinguru hori sortzeko lehen urratsa gardentasuna da, printzipiorik oinarritzekoenean ulertuta: egokiro hobetzea bai informazio-maila, bai herritarrek datuetarako, prozesuetarako eta erabaki publikoetarako duten irisgarritasuna, administrazioaren eta herritarren arteko komunikazio leiala sortzeko oinarritzat.

Behar adinako gardentasun maila lortutakoan, beharrezkoa da baldintza egokiak sortzea aukera eman dezaten gure inguruneke errealitatea aldatzeko norberaren eta taldearen gaitasunak garatzeko. Era berean, gaitasunen garapenak aldatu nahi den horren gainean benetan eragiteko aukerarekin batera joan behar du: aldaketarako tartea behar da. Hitzarmen sozialean oinarrituta eta partaidetza testuinguruan kokatuta, beharrezkoa da jakitea non gauden, zer eskatzen zaigun edo zer eman nahi dugun / zer eman dezakegun eta zein den gure eginkizuna gizartean, aurretiaz jakinda non gauden eta gure kokalekutik zer egin daitekeen. Partaidetzak arrazoi bat eskatzen du, ez partaidetzara zabalik dauden eremuetan soilik, baita partaidetzarik onartzen ez duten prozesuetan ere (horietan, bada, partaidetzarik ez izateko arrazoiak azaldu behar dira, eta horien berri ematea, beharrezkoa denean).

- Parte hartzea EGITEA da

Parte hartzea ez da egoera hermetikotzat hartu behar (*parte hartzen ari naiz*), ekintzara bideratutako prozesutzat baizik (*gauzatu egiten da*). Egoera gehienetan ingurunea zalantzan jartzea da lehen urratsa, eta eraikitzeke deseraiki egin behar dela printzipiotzat hartuta (kezkatzen gaituzten gaietan, funtsera joan behar da, horiei erantzuna emateko). Hori horrela, parte hartzen denean, iraganeko hutsegiteez jabetu behar da, ikaskuntza horietan oinarrituta eraikitzeke, *zimenduak* baliagarriak diren ere hausnartuz (eta hala ez badira aldatuz).



Parte-hartzeak jarrera hartzea eta balio eta printzipioen testuinguru batetatik jokatzeko eskatzen du, besteak beste, lankidetzatik eta bitariko noranzkotik. Lankidetzak, desberdinen artean partekatutako eraikuntza gisa hartuta prozesuaren etapa guztietan (hastapenak nabarmenduta, bereziki). Era berean, interesgarria da elkarrekotasunaren eta orekaren printzipioan oinarrituta ulertzea bitariko noranzkoa (ekartzen denaren eta bueltan jasotzen denaren arteko lotura). Binomio hori (ematea eta ekarpena egitea) iritziak eta kezak partekatzeko oinarria da, desberdinen arteko topaketak bultzatzeko, erabateko iritzi aniztasunean ebatzi eta ekarpenak egin ahal izateko. Parte-hartzeak zentzua du partekatutakoari eta guztiona denari begira, eta *guztiona den gai* horren jiran antolatzeko modurik onena bilatzen du, erantzuna emate aldera bilaketa-prozesuan nahasitako alderdiei.

Parte hartzeko zer eduki behar du pertsona batek? (Gaitasuna, bertutea, balioa, interesa...)

Lehenik eta behin, ingurunearekiko eta/edo komunitatearekiko konpromisoa sentitzean parte hartzen du pertsonak, baina baita errealitatearekiko nolabaiteko desadostasuna (aldatzeko nahia) sentitzen duenean ere. Hori horrela, *kontzientziaz eta bihotzez eskatzen du denen onerako*, partaidetza elkarren mendekotasun gisa ere hartuta. Parte hartzen dutenek ez dituzte interes pertsonalak falta, horiez baliatzen dira abiadura-palanka gisa, alor pertsonala gaindituko duen interes komuna ere lortzeko.

Parte hartzeak, beraz, elkartasunezko jarrera eskatzen du, apur bat utopikoa eta idealista. Horrez gain, jarrera pragmatikoa, konstantea eta ausarta ere eskatzen du: parte hartzen duen pertsonak zerbait aldatzeko egiten duelako, eta, horretarako, sentitu behar du entzun eta baloratu egiten dutela (bai esaten duen horretan, bai egiten duen horretan).

Hori horrela, azpimarratu behar da pertsonak beren partaidetza baliagarria dela sentitzen duten alor edo gaietan parte hartzen dutela, batez ere, interesatzen



zaienetan. Ahalduzte-prozesua da parte-hartzea, eta parte hartzen duen horri aberasgarri zaio alor pertsonalean ere komunitatea sortzeko. Gaitasunak garatzeko aukera ematen du, hala nola ziurgabetasuna edo pentsamendu kritikoa kudeatzekoa.

Zer behar dugu parte hartzeko?

Parte hartzeko, edo parte-hartze prozesua ondo hasteko behintzat, beharrezkoa dugu sinergiak bilatzen eta iraganeko akatsak ez errepikatzen lagunduko digun **egungo egoeraren ezagutzatik** abiatzea. Ildo horretatik, erakundeek ziurtatu behar dute partaidetzaren alorreko praktikak eta erreferentziazko agenteak ezagutzen dituztela, hurbilean dugun horri buruzko informazio-falta sumatzen baita. Era berean, beharrezkoa da Administrazioek bultzatutako partaidetzazko prozesuetan partaidetza-prozesuak (bereziki prozesu asoziatiboak) garatzen ari diren kolektiboak sartzea eta haiekin konektatzea.

Ikuspegi kolektiboa garatzea ere beharrezkoa da. Gizarteak hala eskatzen duen arren eta kudeaketa politikoaren sistema aldatu nahi duten herritar asko dauden arren, oraindik ez dakigu gizarte moduan parte hartzen. Nolanahi ere, alor pertsonalean, lagungarria da prozesuan lekua duela ikustea (norberarekin bat datozela sentitzea, itaundu egiten zaituztela...) eta horren baliagarritasuna antzematea (erabakiak hartzerakoan nolabaiteko lotura egotea).

Hirugarrenik, **konfiantza** funtsezko elementua da parte hartzeko. Sustatzailearenganako eta norberarenganako konfiantza. Sustatzailearenganako konfiantzari dagokionez, iraganeko partaidetza-esperientziak eta esperientzia horietan oinarrituta sustatzaileari ematen diogun sinesgarritasuna ditu oinarrian. bai, halaber, errealitatetik hurbil agertzeko duen gaitasuna eta bere ideiak "lurrera jaisteko" duen gaitasuna ere. Era berean, erakundeek bultzatutako prozesuei dagokienez, urte hauetan bilakaera nabarmena gertatu da herritarrengan, ez, ordea, gobernatzeko moduan, eta hori faktore erabakigarria da benetako konfiantza eraikitzeko. Konfiantza hori ez da boterearen banaketako baldintzetan



soilik eraiki behar, botereen baturako baldintzetan baizik; izan ere, erakundeak ez dira politikarienak, gizartearenak baizik. Partaidetza loteslea izatea

Nolanahi ere, albo batera utzita partaidetza-prozesuetan parte hartzen dutenek askotan izaten duten desengainua eta frustrazioa, parte hartzen jarraitu behar da. Azken batean, kolibriaren alegia da, laburbilduz: sute handi bat basoa suntsitzen ari zen, eta animalia guztiek ikaratuta ihes egin zuten bizia salbatzeko. Denek egin zuten ihes, kolibri txiki batek izan ezik; behin eta berriz lakura joan-etorrian aritu zen, mokoia urez bete eta su gainean husteko. Musker bat, jarrera horrek sortutako jakin-minez, kolibriari esan zion: *Zoratuta al zaude? Su gainean ur-tanta gutxi batzuk botata sutea itzaliko duzula uste al duzu akaso?* Kolibriak honela erantzun zion patxadaz: *Ez dakit sutea itzaliko ote dudana, baina ahal dudana egiten ari naiz ni.*



Lego saioa. El Regato Ikastetxeko gazteentzako tailerra

2014/03/17

Bertan izan dira: El Regato Ikastetxeko 15 ikasle

LEGO fitxekin trebatuz hasiko da dinamika

Ariketa hauek egiten hasiko dira:

1. Putz eginda erori gabe eutsiko dion dorrerik altuena eraiki banaka
2. Mugikorrari erori gabe eutsiko dion zubia eraiki banaka
3. Aurkeztu zure burua lego bidez - Adierazi zertan parte hartzen duzun

Zer da parte hartzea?

Parte hartzea denen artean ikuspegi eta ikuspuntu desberdinetatik eraikitzea da, horiek partekatuta eta bakoitzak bere onena emanda, proiektu bat aurrera eramatea lortzeko. Taldean lan egitea da, helburu bera lortzeko (guztien ongia) tartean sartuta eta lagunduta, horretarako iritzia emanaz eta bizipenak ekarriz.

Helburu jakin batera heltzeko elkarrekin lan egiten bada izango du zentzua parte-hartzeak. Zenbaiten konpromisoa batuta, zerbaitetara irits daiteke, eta arrakastaren bidean lagunik baduzu, gehiago gozatuko duzu. Zerbaiten parte zarela sentitzen duzu, besteei laguntzeko aukera duzula, guztien ongia lortzeko lan eginez eta lagunduz. Laguntza horrek lankidetzan jarduteko konpromisoa esan nahi du, lagundu eta ikuspegi desberdinak emateko beste batzuekin harremana izateko prest egotea.

Parte hartzeko zer eduki behar du pertsona batek? (Gaitasuna, bertutea, balioa, interesa...)

Motibatuta egon behar da, nagusiki; ilusioa eduki behar da, eta parte-hartze ingurunean inplikaturik egon; "parte hartzea" gutxiago kostatuko da, betiere, gogotsu heltzen badiozu eta proiektuaren parte zarela sentitzen baduzu. Jorrazten ari den arlo horrek zuegan interesa pizten badu edo hartan esperientzia baduzu, parte hartzeko gogo gehiago izango duzu.

Hor dago, halaber, gardentasuna: antolatzaileenganako konfiantza edukiz gero, errazagoa da dena. Batez ere, partaidetzak nolako ahalegina eskatzen duen balioesten dute gazteek; alegia, esfortzurik gabe ez dela ezer lortzen. Denen artean arazoak gainditzeko konpromiso gisa ikusten dute parte-hartzea.

Zer behar duzu gehiago parte hartzeko?

Parte hartzera dei egiten zaienean, ekarpena egiteko moduko gaiak jorrazteko dei egin behar zaie, identifikatuta senti daitezen; beren adinean hutsunea dagoela hautematen dute; izan ere, ez dago beren adinera egokitutako jarduerarik eta partaidetzaren amildegira jaurtitzen dituzte, inork parte hartzen "irakatsi" gabe.

Ez dute uste nagusiak partaidetzazko eredia izaten ari direnik ere. Pentsatzen dute informazio gehiago egon behar litzatekeela; ez dakite zertan parte har dezaketen, ezta hainbat prozesutan parte har dezaketen ere. Zertan parte har dezaketen ezagutarazi behar zaie. Jabetzen dira ez direla bat-batean hasiko denean parte hartzen; uste dute pixkanaka joan behar dela parte hartzen, partaidetzan hezteko modua dela hori.

Zergatik ez duzu gehiago parte hartzen?

- Ez dute gehiago parte hartzen, ez dutelako ikusten beren inguruan hala egiten denik; inork ez du lehen urratsa egin nahi eta parte hartzeari ekin;



ekimenen batekin bat egiten badute, beste batzuek aurrez parte hartu dutelako izaten da.

- Parte hartzen badute, aintzatespen hori behar dute: berariaz aintzatetsi behar zaie parte hartu dutela eta bat gehiago direla; ez dugu pentsatu behar gazteak izateagatik gauzak aldatzeko ideiarik eta gogorik ez dutenik.
- Ez dute gehiago parte hartzen, ez dutelako sentitzen jorratzen diren gaiak haiekin loturarik dutenik; uste dute gaiak hurbilagokoak balituzte (langabezia, etxebizitza eta abar) lehenak izango liratekeela parte hartzen, zuzenean eragiten dieten gaiak direlako eta badakitelako parte hartuz gero aldaketak eragin ditzaketela arlo horietan.

Teknikari eta kargu politikoeekin saioa. HAEE 2014ko martxoak 26 eta 27

“Herritarren inplikazioa politika, programa eta zerbitzuen planifikazioan eta ebaluazioan”

HAEEK 2014ko martxoaren 26an eta 27an "Kudeaketa Publikoko Plangintzaren eta Ebaluazioaren Kulturari" buruz Bilbon antolatutako jardunaldien testuinguruan, aukera izan genuen bertatik bertara ezagutzeko zer-nolako esperientziak ari diren garatzen politika publikoen planifikazioaren eta ebaluazioaren esparruko hainbat arlotan eta eremutan, bai Eusko Jaurlaritzaren eta bertako sailen barruan, bai Europako Batzordean eta Parlamentuan baita beste autonomia-erkidego batzuetan ere.

Hala, martxoaren 26ko arratsaldeko saioan, tailer bat egin zuten bertaratutakoekin, ikusteko zer-nolako balioa eta zailtasunak eragin ditzakeen **herritarrek** politiken, programen eta zerbitzuen planifikazioko eta ebaluazioko prozesuetan duten inplikazioak.

Innobasque eta Cidec erakundeek bi egoeren kokapen laburra egin zuten (herritarrekin egindako plangintza eta ebaluazioa), eta agerian geratu zen zeinen garrantzitsua den herritarrek bi prozesu horietan inplikatzeak.

1. Hain zuzen ere, **herritarren eta erakundeen arteko DISTANTZIA gero eta handiagoa da**: herritarrek sentitzen dute baztertuta daudela edo ez zaiela ondo ulertzen; uste dute gobernuek ez dutela beraien alde egiten eta, gainera, politika publikoak eta zerbitzuak askotan ez direla oso eraginkorrak. Horrez gain, herritarren itxaropenak izugarri hazten dira, baina administrazioen gaitasunak ez dira itxaropen horiei erantzuteko modu berean hazten ari eta, beraz, horrek gero eta premia handiagoz eskatzen digu egoera horri irtenbidea emateko mekanismoak abian jartzea.



2. **ERAKUNDEEKIKO ETA KARGU POLITIKOEEKIKO KONFIANTZA-ARAZOA dago.** Uste orokorraren arabera, politika publikoak ez dira modu egokian erantzuten ari gizartean ditugun benetako arazo eta erronkei. Irudipena dute monopolioa eta diskrezionaltasuna dagoela erabakiak hartzean eta erabakiak hartzeko jarraitzen diren prozesuetan. Hutsegiteak daudenean, berriz, errudunak bilatzen dituzte berehala, eta ez da hutsegite horien erantzukizunik bereganatzen. Horrez gain, gardentasuna soilik jada ez da nahikoa: gardentasunaz harago, herritarrek gero eta gehiago eskatzen dute kontuak ematea edo *accountability* (*ez emaitzak bakarrik, baita inpaktua ere*) delakoa. Azkenik, ustelkeria dagoenean, erabaki politikoei berehala ematen zaie erantzun soziala sareen bitartez.
3. Gaur egun **POLITIKA EGITEAZ** hitz egiteak **GOBERNU-EKINTZA** edukitzea esan nahi du, **proiektu kolektiboa** bultzatzearen alde lan egitea eta, gainera, **botere politikoa eta gai publikoen kudeaketa gizarte zibilari eta herritarrei zabaltzeko eta hurbiltzeko** nahia eta gaitasuna edukitzea.

Ilido horretatik, alderdi hauek nabarmendu behar dira:




PLANGINTZA	EBALUAZIOA
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Aurrera egiteko, berritzeko, gauzak beste modu batera egiteko beharra ▪ Herritarrenganako harremanak indartzea (bezeroekin, onuradunekin), gure politiken diseinua hobetzeko inbertsio modura ▪ Politikak diseinatzeko ideia berriak bilatzea, baina, horiekin batera, informazioa eta erabakiak hartzeko beste modu bat lantzeko baliabideak ere bai ▪ Errealitatea, arazoak, beharriak eta abar gero eta konplexuagoak direla kontuan hartuta, horiei beste modu bateko irtenbideak emateko erabakiak adostea; teknologia, zientzia...baliabide hutsalak baino ez dira; balio eta ikuspegi kolektiboak dira aukerak eskaintzen dituztenak ▪ Konfiantza sortzea eta demokraziaren kalitatea areagotzea ▪ Herritarren gaitasuna indartzea, hau da, kapital soziala eta balioa partekatuta sortzea 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Erabakiak hartzeko ezagutza areagotzea ▪ Ebaluatutakoa hobetzeko oinarri finkoak edukitzea ▪ Gardentasuna eta kontuak emateko prozesua hobetzea ▪ Administrazioak ezarritako lehentasunei buruz herritarrek duten ikuspegia eta administrazioak eskaintzen dituen zerbitzuen balorazioa gehitzea ▪ Tentsio gehiago sortzea, hobekuntza-prozesuak sustatzeko (ebaluazioetako emaitzak erabiltzeko presioa) ▪ Zerbitzuaren kalitate/balorazioko ikuspegiaren ebaluazio alorrean, aurrera egitea inpaktua eta balioa sortzeko ikuspegiarantz ▪ Erantzuna ematea alor horretan gabezia identifikatzen duten Europar Batasuneko gomendioei, batez ere eragile horiek parte hartzeko duten denboretan



Ondoren, talde txikietan eta partaidetzazko dinamikaren bitartez, bertaratutakoek bi gai horiei buruz elkarri eragin eta eztabaidatu ahal izan zuten eta gai bakoitzerako ekarpen hauek egin ziren:

HERRITARREN INPLIKAZIOA POLITIKEN ETA PROGRAMEN PLANGINTZAN ETA ZERBITZUEN DISEINUAN

Hona grafiko honetan laburbilduta **politika eta programen plangintzan** eta Administrazio Publikoak eskainitako zerbitzuen diseinuan **herritarren inplikazioak sortzen duen BALIOARI** buruzko ondorio nagusiak:





Herritarrak ez dira bezero modura hartu behar, rol pasiboa esleituta, zerbitzuen hartzaile gisa; aitzitik, pentsatu behar da herritarrak arlo publikoaren kudeatzaile direla eta, horrenbestez, lagungarriak direla elkarrekin batera balio eratzeko. Ildo horretatik, alderdi hauek nabarmendu behar dira:

- **EZAGUTZA:** Herritarrek beharizanak identifikatzeko "balio dute". Informazio-iturri berria direnez, plangintzaren aldian herritarren ikuspegia txertatzeak errealitatea hobeto ezagutzeko bide eman dezake eta, erabakiak hartzerakoan, ohikoez bestelako ikuspegiak eta irtenbideak bideratu, eta, ondorioz, baliagarriak izan politiken eta programen plangintza egiteko, eta, hartara, politiken diseinurako erronkak gero eta konplexutasun handiagoz eta politiken arteko mendekotasunez jorratzeko.
- **KONFIANTZA / HURBILTASUNA:** Herritarrak politiken plangintzan sartuta, hobeto erantzun dakieke haien itxaropenei, Administrazioek beren ikuspegien berri izatea nahi baitute. Horrez gain, onespren handiagoa, erabakietan asmatzeko aukera handiagoak eta erabakiak ezartzeko konpromiso politiko handiagoa ere badakartza. Herritarren partaidetzarik izan bada eta ekarpenak behar bezala jaso eta txertatu baldin badira, horrek jarduera legitimatzea ekarriko du, eta, ondorioz, aintzat hartuko da Administrazioak egokiro erantzuten diola eskatzen zaion gardentasun handiago horri eta kontuak emateko erantzukizunari. Gainera, Administrazioen eta herritarren arteko konfiantza indartzeko keinutzat hartuko da.
- **KONPROMISOA:** Kasu horietan, askoz ere handiagoa da politika edo programa baten bidez hartutako neurriekiko herritarren konpromisoa. Herritarrekiko interakzio handiagoa sustatuta, konpromiso handiagoa, informazioaren kudeaketa hobea eta kapital sozial handiagoa sortuko da, eta, horrez gain, herritarren eskubideak errespetatuko dira, ekintza publikoari dagokionez.




- **ERANTZUNKIDETASUNA:** Herritarren partaidetzatik erantzunkidetasuneko egoera sortzen da politika publikoetan eta horrek aukera ematen du erabakiak nork bere gain hartzeko. Ildo horretatik, informazioa eta herritarren parte-hartzea oinarrizko motortzat hartuko dira balio publiko partekatua sortzeko norabidetik jota sektore publikoa aldatzeko prozesuan.

PLANGINTZA- ETA DISEINU-PROZESUETAN HERRITARREN KOLEKTIBOEK PARTE HARTZEAK ERAGIN DITZAKEEN ZAILTASUNAK

Aurrez azaldutako moduan, herritarrak politiken plangintza-prozesuetan inplikatzeko onespene eta zilegitasun handiagoa ematen die politikei eta programei, baina mota horretako mekanismoak abian jarri aurretik kontuan hartzeko moduko ZAILTASUNAK ere eragiten ditu.

Lehenik eta behin, herritarrak inplikatzeko alderdi horiek guztiak egitekotan, ondo egin behar dira. Administrazioek diseinu egokiak egin eta herritarrak informatu eta engaiatu ditzakete, sinesgarritasuna eta erabaki politikoaren zilegitasuna hobetzeko, baina, ondo egiten ez badute, guztiz kontrakoa lor dezakete, baldin eta herritarrak ohartzen badira albo batera uzten dituztela informatuta egoteko eta aktiboki parte hartzeko egindako ahaleginak, ez dutela inolako eraginik hartzen diren erabakietan edo kontuak ez zaizkiela behar bezala ematen.

Ildo horretatik eta herritarrak politiken eta programen plangintza-prozesuetan txertatzeko zailtasunei jarraiki, hauek azpimarratu behar dira:



- Politika eta programen plangintza-prozesuetan ezinbesteko osagaia da herritarren partaidetza, osagai nabarmena, betiere "herritar" terminoa ondo definitzen den heinean eta prozesuetan parte hartzeko dauden bideak ere argi zehazten diren heinean.

Partaidetza-prozesuaren antolaketa zailtasun moduan agertzen da, ordea, bereziki parte hartuko duten kolektiboen hautaketa dela-eta, ez daitezten mugatuta geratu eta norberaren edo kolektibo oso zehatz eta murriztuen interesak soilik bistaratu edo aurrera egiten utziko ez duen jarrera mugiezina eragin.

- Azaldutako beste zailtasunetako bat da partaidetzarekin lotutako kultura, esperientzia eta prestakuntza/heziketa falta dutela herritarrek eta Administrazioako langileek. Ildo horretatik, beharrezkoa ikusten dute partaidetzaren alorrean herritarrak hezteko/trebatzeko prozesuak bultzatzea baita funtzionarioak eta politikariak heztekoak/trebatzekoak ere, beren eginkizunak modu mekanikoan egiten ohituta baitaude eta batzuetan gerta bailiteke ez egotea herritarrari azaltzeko moduan. Atal honetan, aditzera ematen da, halaber, zenbait kasutan herritarren aurrean jartzeko erresistentzia




egon daitekeela politikarien aldetik eta horrek eragina duela partaidetzaren emaitzekin.

- Bestalde, parte hartzeak esan nahi du informatuta egotea parte hartu nahi den alorrean, eta, ildo horretatik, gaur egun informazio falta aipatzen dute alor askotan partaidetza integratu ahal izateko. Gainera, zaila da herritarrek planteatu dezaketen guztiari erantzutea; horregatik, prozesuaren antolaketa gatazkatsua da, baina ez ezinezkoa. Xede horretarako ezinbestekoa da kasuan kasu finkatutako xedeetarako partaidetza-prozesu egokiak aurrera eramanez ahal izateko baliabideak eta tresnak edukitzea. Beharrezkoa da prozesu bakoitzean erdietsi nahi diren helburuak, jarraituko den metodologia eta jarritako itxaropenak finkatzea, eta, beraz, ezinbestekoa da denbora, baliabideak eta konpromisoak inbertitzea, lege, politika eta erakunde mailako testuinguru egokiak xedatzeko eta informazio eta partaidetzarako neurri egokiak diseinatu ahal izateko, herritarrei huts egingo ez dieten partaidetza-prozesu kalitatezkoak garatze aldera. Politiken diseinuan herritarren inplikazioarekin lotutako jarduerak eta emaitzak ebaluatzeko aukera emango diguten baliabideak ere garatu beharko dira.
- Zenbait iritziren arabera, plangintza-prozesuetan herritarren partaidetza txertatzea galera baino ez da giza baliabideei, denborari eta baliabide ekonomikoei begira, nahiz eta, aldi berean, "onargarria izan daitekeela" adierazi. Batzuetan premiarik gabeko gehigarritzat jotzen da, eta pentsatzen da berez errazak diren izapideak konplikatzea baino ez duela lortzen, hartara areago luzatuko direlako erabakiak hartzeko prozesuak. Hala ere, ezinbestekotzat hartzen da prozesuak behar adinako malgutasunarekin eta denborarekin garatu ahal izatea, herritarren aldetik ideia eta proposamen berriak sortu ahal izateko eta politikak diseinatzeko prozesuetan txertatu ahal izateko. Horrez gain, ordutegi ofizialak alde batera uztea proposatzen dute, lanorduetatik at parte hartu ahal izateko.

- Amaitzeko, zailtasuntzat hartzen da, halaber, herritarrek inbertitu beharreko denbora, eta antolaketan eragin ditzakeen kostuak baloratu eta kudeatu egin behar dira nolabait.

HERRITARREN INPLIKAZIOA POLITIKEN ETA PROGRAMEN EBALUAZIOAN ETA ZERBITZUEN DISEINUAN

Herritarrek politiken eta programen ebaluazioan parte hartzeak sortzen duen BALIOARI dagokionez, grafiko honetan laburbilduta daude ondorio nagusiak:



- **INFORMAZIOA (datuak eta ezagutza):** Ohiko osagaiez bestelako osagaitzat hartzen dute herritarrek politiken eta programen ebaluazioan parte hartzea; gainera, uste dute balioa ematen duela bai ebaluatutako ekintzen inpaktua neurtzerakoan, bai etorkizuneko lehentasunak finkatzerakoan (lehentasunezkoak diren ekintza-lerroak identifikatu daitezke ebaluazioan oinarrituta). Funtzionatzen duena eta funtzionatzen ez duena hobeto ezagutzeko aukera ematen digu, eta arazo soziala hobeto mugatzen laguntzen.

Arlo honetan hobetzekotzat jotzen da botere publikoengandik jasotako informazioa, herritarrek emandako informazio horretatik bueltan jasotzen dutena (jaso behar luketena,) bai ebaluazioaren ganean, bai horrek guztiak duen baliagarritasunaren ganean. Ebaluazioa norabide jakin batekin egiten denean ere, hau da, ebaluazioa gaian ezagutza zehatza duten eragile adituek edo interes taldeek egiten dutenean, ateratako informazioa interesgarria da.

- **HURBILTASUNA ETA INPLIKAZIOA:** Herritarrak ebaluazio-prozesuetan inplikatzeko herritarrengana hurbiltzen ditu erakundeak (eta alderantziz), eta bai bata, bai besteak, areagotu egiten du benetako arazoekin duen inplikazio-maila. Sistemekiko konfiantza eta sinesgarritasuna areagotzea dakar horrek, gainera.
- **HOBEKUNTZAK ETA ANIZTASUNA:** Ikuspegiak, alderdiak eta ebaluatutako arazoaren erantzunak hobeto ardaztea lortzen dugu herritarrak ebaluazioan inplikaturik. "Zer" eta "nor" definitzeko eta ondoren zuzenketak ekar ditzaketen disfuntzioei buruzko informazioa edukitzeko aukera ematen digu.

Herritarrak, politiken/programen hartzaile diren aldetik, eginkizun nagusia dute ekintzetan eta ekintza horien ebaluazioan. Herritarren balorazioak baliagarriak dira jakiteko (feedback) zertan asmatu / huts egin den eta zein diren hobetzeko tarteak.

Azkenik, eraginkortasun handiagoa dakar arazoak konpontzeko eta baliabideak erabiltzeko orduan.

- **LEGITIMAZIOA:** Herritarrak ebaluazioan inplikaturik, erabakietan parte hartzen dute, eta hartara legitimatu egiten dira politikak. Legitimazio hori, askotan benetakoa da, eta konfiantza eta sinesgarritasuna ematen die politikari, politikariei eta gobernuari; beste batzuetan, berriz, itxurazkoa da, "itxura gordetzea" baitu xede bakar.

Nolanahi ere, atal honetan alde zureko gai batzuk azalduko ditugu:


- Partaidetza beharrezkoa al da beti?
- Herritarrek benetan parte hartu nahi al dute?
- Ez al dute pentsatzen horretarako ordaintzen dietela Administrazioetako langileei?

Hausnarketarako hainbat alderdi azpimarratuko ditugu:

- Ebaluazioen baliagarritasunari dagokionez.
 - Hobeto erabili behar da eskuragarri dagoen informazioa.
 - Hobetu egin behar da informazioa herritarrei itzultzeko prozesua ("zertarako" azaldu).
- Herritarrak "subjektu adimentsu" gisa hartu behar dira inplikatu aurretik.
- Zein da enplegatu publikoaren zeregina, kontuan izanda aldi berean dela herritarra eta politiken diseinuan eta ebaluazioan aditua?

HERRITARREN INPLIKAZIOAK ZER-NOLAKO ZAILTASUNAK DAKARTZAN POLITIKEN ETA PROGRAMEN EBALUAZIOAN ETA ZERBITZUEN DISEINUAN

Herritarrak politika publikoen ebaluazioan kontuan hartzeko zailtasun hauek aipatu dituzte bertaratutakoek:



- Pentsatzen dute herritarrak ebaluazio-prozesuetan txertatuta, ondorioz, prozesua **denboran luzatu** eta atzeratu egiten direla emaitzak eta, horrez gain, zaildu egiten dela ebaluazio-prozesua. Bestalde, baina, uste dute lagungarri gerta daitekeela desadostasunak hobeto bistaratzeko.
- Hori dela eta, beharrezkoa da **ebaluazio-prozesua zuzendu eta kudeatzeko metodo argia** izatea; alegia, eredu argia eta zehatza. Prozesua modu ordenatuan eta herritarrek ulertzeko moduan garatzeko aukera emango duten baliabideez hornitu beharra dago (baliabideok beste administrazio batzuetakoak badira ere).

Herritarrek lagungarri izan behar dute erabakiak hartzeko prozesuetan eta, horregatik, ebaluazio-prozesuetan parte hartu behar dute. Ildo horretatik, argi eta garbi zehaztu behar dira zein izango diren epeak, nork hartuko duen parte, zeri erantzungo dioten... Partaidetza-prozesuarekin itxaropen faltsurik ez sortzeko ahalegina egin behar da, eta, xede horretarako, informazio ona eman behar da, egokia eta eskuragarria, ekarpenak egin ahal izateko eta partaidetza-prozesurako hasiera batean finkatutako konpromisoak betetzeko, eta horiek argi eta garbi ezagutarazi beharko dira ebaluazio-prozesuaren hasieratik.

- **Informazioa itzultzeko prozesua** ere zailtasuntzat jotzen da. Herritarren inplikazioak ebaluazio-prozesuetan informazioa eta ebaluazioko emaitzak itzultzeko itxaropena sortzen du, alde batetik, eta, bestetik, botere publikoek herritarren kolektiboari erantzuteko betebeharra ekartzen du, partaidetza-prozesuan sortutako itxaropenen ondorioz. Horri jarraiki, informazio esanguratsua hautatu eta egokiro zehaztu behar da informazio horri emango zaion erabilera; horrez gain, argi eduki behar da nola aurre egin informazioa itzultzeko prozesuari, baldin eta "deserosoak" gerta badaitezke ebaluaziotik ateratako datuak.
- **Ebaluazio-prozesuetan partaideak hautatzeko zailtasuna** ere aipatzen da. Oro har, egiten diren ebaluazioak arlo partikularrean oinarritzen dira, alderdi



sektorialean, eta ez hainbeste interes orokorrean. Beharrezkoa da ondo zehaztea nola lortu ordezkartzarik ez duten edo antolatuta ez dauden sektoreek parte hartzea emaitzak adierazgarriak izan daitezzen. Horrez gain, ezinbestekoa da jabetzea eragoztekoa, hau da, nahitaez guztien ongirako ez diren helburu partikularrak dituzten interes taldeen (lobby) presioa saihestea, arriskutsua izan baitaiteke ebaluazio-prozesurako eta, ebaluazioaz harago, politikak baldintzatzeko asmoa izan baitezake.

- Azkenik, dagoeneko aurrez aipatu badira ere, herritarren partaidetzak ebaluazio-prozesuetan ekar ditzakeen **zenbait arrisku** aipatuko ditugu: datu deserosoak ateratzea, desadostasunak nabarmenago bistaratzea, epe laburrari soilik begiratzea, eragile jakinen kanpoko presioei baldintzatu uztea...

PROZESU HORIETAKO EMAITZAK AURKEZTEAN (ADITUEI, HERRITARREI...), ZEIN GAI IZANGO LIRATEKE APROPOSENAK HORIEK ULERTZEN LAGUNTZEKO ETA HORIEN GARDENTASUNA BERMATZEKO?

Herritarrak politiken plangintza- eta ebaluazio-prozesuetan inplikatzeari ari garenean, garrantzi berezia hartzen du prozesu horietatik herritarrei informazioa itzultzeko prozesuak. Ezin da edozein informazio atzera itzuli, ezta edozein modutara ere. Aurkezten diren datuek herritarrek ulertzeko modukoak izan behar dute, eta, gainera, gardentasuna bermatu behar dugu une oro.

Ildo horretatik, alderdi hauetan oinarritzen dira parte-hartzaileek gai horretan egiten dituzten ekarpenak:

- Prozesuetako emaitzak egokiro aurkeztu behar dira, alegia erraz iristeko moduko hizkera arrunta eta ulergarria erabilita, kolektibo hartzaile bakoitzera moldatuta (hartzaileak adituak diren edo herritarrak diren); era berean, formatuek ere egokiak eta errazak izan behar dute. Hizkuntza administratiboa albo batera utzi, eta emaitzen irakurketa ulergaitz bilakatzen duten terminoak saihestu behar dira. Horrez gain, eragotzi egin behar da emaitzen argitalpena

propagandazko ekintza izatea edo prozesua garatzen duen botere publikoak bere burua goratzeko asmoa edukitzea. Datu errealak, zehatzak eta ordenatuak eskatzen dira.

- Emaitzak publikoki zabaldu behar dira hainbat mailatan: txosten osatuak, laburpen exekutiboak, dibulgaziozko programak... horietan erabilitako metodologia, datuen kontrastagarritasuna eta abar jasoko da. Interesgarria da, halaber, komunikabideak garrantzi publikoko arloetan garatutako prozesuetako emaitzak jakinarazteko bide gisa erabiltzea. Arestian aipatutakoaz gain, iradokizuna egin da datu guztietara mugarik gabe heltzeko aukera egon dadin, hartara, bildutako informazio guztia islatzeko. Zilegitasuna (informazioan) pixkanaka irabazten da, eta berehala gal daiteke.
- Amaitzeko, garatutako prozesuetako emaitzak aurkeztean, prozesu bakoitzerako hasiera batean planteatutako helburuekin lotu behar dira. Hobekuntzekin lotuta, ikusarazi egin behar lirateke herritarrek prozesu horietan izandako partaidetzaren ondorioz hartutako erabakiak eta egindako hobekuntzak. Zer aldatu nahi den esan behar da, eta, kontrako kasuan, egindako proposamenak zergatik ez diren onartu azaldu.
- Hori guztia aldeztatik aurretik hitzartutako egutegira egokitu behar da gainera.



Unibertsitateko ikasleekin saioa. Mondragon

Unibertsitatea

2014/04/24

Bertan izan dira: Mondragon Unibertsitateko 4 ikasle

PARTE HARTZEKO ARRAZIOAK EDO MOTIBAZIOAK	EZ PARTE HARTZEKO ARRAZIOAK EDO MOTIBAZIOAK
<ul style="list-style-type: none">• Esaten duguna kontuan hartzen dela eta zerbaitetarako balio duela ikusten dugunean, orduan parte hartzen dugu• Identifikatuta sentiarazten gaituzten gaietan irtenbidea bilatzea xede duten taldeetan parte hartzen dugu Esandako moduan, eragiten gaituzten arazoei buruz lan egiteak eramaten gaitu parte hartzera	<ul style="list-style-type: none">• Gazteei zuzenduta ez dauden ekintzetan, urrunekoak suertatzen zaizkigunetan edo gazteak kontuan hartzen ez dituztenetan ez dugu parte hartzen Asko estimatzen dugu prozesuek gazteekiko hurbiltasuna erakustea Norberaren interesek eragin zuzena dute parte hartzeko edo ez parte hartzeko• Nolanahi ere, "axolagabekeria" orokortuta dago: "konponduko du beste norbaitek nire ordezt"



ZER NOLAKO EKINTZETAN PARTE HARTUKO ZENUKE?	ZER NOLAKO EKINTZETAN EZ ZENUKE PARTE HARTUKO?
<ul style="list-style-type: none"> • Zuzenean eragiten gaituzten gauzetan parte hartzen dugu Kiroletan, aisian, kooperatibetan... esate baterako; garrantzitsua da sentitzea taldeko partaide zarela • Tokiaren eta gaztearen profilaren arabera, politikan edo gazte-mugimenduetan parte hartzen duten gazteak ere badira Dena den, testuinguruak asko baldintzatzen du 	<ul style="list-style-type: none"> • Urrunekoak suertatzen zaizkigun taldeetan edo gure interesekin bat egiten ez dutenetan ez dugu parte hartzen Gai hauetan, adibidez: zahartzea, etxebizitza (ikaslearen egoera pertsonalaren arabera) da oso, ez baita gauza bera familiarekin etxean bizitzea, pisua partekatzea edo egoitza batean bizitzea), laneko murrizketak, pentsioak...



Etorkinekin saioa. Harresiak apurtuz. 2014/05/15

Talde koordinatzailea: Francy Fonseca (Harresiak apurtuz), Alina Blanco (Mugarik gabeko etorkinak), Arminda del Valle (Mugarik gabeko etorkinak), Lamin (Munduko medikuak), Patricia Panadero (Etorkinekin bat), Claudia Favela (maila pertsonalean laguntzen du)

Nola sentitzen zarete partaidetzari dagokionez?

Abiapuntutzat hartu behar da etorkinak legediaren baldintzapean daudela parte hartzeko eskubideaz baliatzeko –Atzerritarrei buruzko Legea eta Asilo eskubidea eta errefuxiatu izaera arautzeko Legea–. Etorkinek, paperekin edo gabe, bizimodua Euskadiko biztanle moduan hemen egiten duten arren, ez dute erraz izaten parte hartzeko eskubideaz baliatzea eta hori betetzea, gainerako eskubide eta betebeharretan gertatzen zaien bezala.

Garrantzia duten gauzen erabakietan eragin ahal izatea da parte hartzea. Parte hartzea ekarpena egitea da, eta nor bere iritzia ikusaraztea; gobernuaren prozesuetan nahasita egotea eta baliagarri sentitzea da. Baina, horretarako, ezinbestekoa da informazioa jasotzea, motibazioa izatea, kontzientzia garatzea, eskubideak aitortzea eta parte hartzeko bide egokiak izatea.

Egoera irregularrean dauden etorkinek, esate baterako, ez dute Administrazioaren babesik, eta, ondorioz, parte hartzeko mesfidantza eta beldurra izaten dute; izan ere, parte hartzeak nabarmendu egiten ditu eta arriskuan jarri. Hala eta guztiz ere, alde zuzenetik konpondu beharreko bestelako baldintzatzaile material batzuk ere badira, eta horiek ere ez dute parte hartzen laguntzen partaidetzako subjektu aktibo izan daitezten.

Mantenu, etxebizitza, lana eta/edo hezkuntzako egoerarik oinarritzkoenak asebeteta edukitzeko beharra dugu denok, ingurunearekin partaidetzazko harremana eduki eta landu ahal izateko. Dena den, maila guztietan politika publikoak bideratzerako orduan, funtsezkoa da babesgabetasun-egoera horren



aurrean beharrianak jasotzen diren guneetan egotea eta jakitea kontuan hartzen dituztela. Etorकिनok eskubidedun subjektu izan nahi dugu, eta partaidetzako eragile aktibo, baldintza oinarritzkoenak egokienak ez badira ere. Hori bai, ezinbestekoa da erakundeek gure ikuspegia txertatzeko bide ematen duten gaiak jorratzea plangintzak egiteko, arreta emateko eta parte hartzeko prozesuetan besteak beste. Herritar aktiboak garen aldetik, pentsatzen dugu ezinbestekoa dela bertakoek gurekiko dituzten topiko eta estereotipoak apurtzea, guk ere parte hartu dezagun. Harreman iraunkorrak landuta eta normalizatutako bizikidetzeta eta hausnarketarako guneak partekatuta soilik izango da hori posible.

Etorकिनen partaidetzan kontuan hartu behar da beti:

1. Jatorrizko herrialdeetatik ekarritako "motxila", kargak, ezagutzak eta edukiak. Norberak aurrez izandako partaidetzeta-esperientziak lagungarriak eta/edo behaztopagarriak izan daitezke. Zenbaitentzat "kontu berria" da partaidetzeta, eta pertzepzio hori nabarmendu egiten da etorकिनen jatorrizko herrialdeek erregimen demokratikoak ez badituzte edo ustelkeria-maila handia badute. Herrialde horietan ez dago partaidetzaren kulturarik, guztiz kontrakoa baizik: beldurra zaio parte hartzeari; izan ere, arriskutsua izan daiteke sozialki eta politikoki.

Dena den, badira jatorrizko herrialdean partaidetzeta-esperientzia handia dutenak ere: mugimendu sozialean, sindikalean eta alderdi politikoetan, besteak beste; horrek, bada, helmugako gizartean ere aktiboki parte hartzera bultzatzen ditu, eta lagungarria gertatzen zaie ehun soziala eta pertsonala antolatzeke. Etorकिनen alorreko erakunde sozialen lidergoan ikusten da hori.

2. Migrazio-proiektua eta haren nondik norakoak: immigranteek eguneroko bizitzan duten inplikazioa aldatu egiten da zer migrazio-proiektu duten; alegia, epe luzerako migrazio-proiektua duten, edo egoera behin-behinekotzat jotzen duten (jatorrizko herrialdera itzuli nahi duten) .



Lehenengoek errotze-sentsazio handiagoa gara dezakete, eta, ondorioz, ikuspegi aktiboagoa izaten dute komunitatearen eraikuntzan.

3. Pertsonen oinarrizko beharrianak zer egoeratan dauden: partaidetza gai garrantzitsua bada ere, oinarrizko beharrianak ase gabe badaude, oso zaila da denbora libratzea eta norberaren borondatez ahalegina egitea, bizi diren ingurunean integrazio soziala, bizikidetza edo partaidetza aktiboa sustatzeko bestelako gaietan esku hartzeko. Ez badute laneko egonkortasunik, etxebizitzarik, bizitza duina izateko eskubidearen aitortpenik eta abar, zaila da beste prozesu batzuetan inplikatzeko. Bizitza duinerako baldintzak betetzen ez badira, ahuldu egiten dira ahalduntzea, motibazioa eta partaidetza.
4. Lidergoen identifikazioa eta sustapena: baliteke gai hori behar bezala kontuan hartzen ez aritzea. Garrantzitsua dirudi norbera partaide den elkarteetatik harago sare sozialak eta pertsonalak ere hedatzen laguntzea, adierazteko eta jarduteko aukera ematen dieten heinean. Hori dela eta, lidergoak modu iraunkorrean identifikatzea ezinbestekotzat jotzen da elkarre-mugimendua bizirik eta pertsonak aktibo mantentzeko. Gizarte-mugimendua konfiantza berreskuratzea lortu behar du lidergoetatik. Gaur egun, oro har, badirudi "biziraupen-giroan" bizi garela eta presioak daudela migratutako kolektiboekin lanean ari diren egitura guztiak desegiteko. Hutsegite handia da hori, eta, besteak beste, oztopoak eragiten ditu jatorrizko herrialdeko kasuistika, migrazioko baldintzak eta kulturarteko ikuspegia ezagutzeko. Kudeaketa publikoko eta komunikazio sozialeko aitortpenik eta esfortzurik ez badago, gero eta "etorkinago" sentituko dira pertsonak.
5. Azkenik, "partekatutako erantzukizunari" kontu egin behar zaio, etorkinek harrerako gizartearen partaidetza-sentimendua gara dezaten lortzeko, betiere haien anonimotasuna zaintzeko behar adinako bermearekin. Oreka bilatu behar da, etorkinei bertakoei baino partaidetza handiagoa ez eskatzeko; bestela, estigmatizazioak eta balio-irizpenak sor baitaitezke haien integrazio-mailaren gainean: "etorkinak zerbaitetan parte hartzen ez



badu, *ez da integratzen ari*, aldiz, bertakoek parte hartzen ez dutenean, *ez da ezer gertatzen*".

Zer oztopo topatzen dituzue parte hartzeko?

Lege-oztopoak:

Atzeritarrei buruzko Legea eta Asilo Legea, bigarren mailako herritar bilakatzen baitituzte etorkinak eta denbora luzean ikusezin bilakarazi. Eskubideak aitortu bai baina horiek behin-behinean erabiltzeko muga ezartzen duten gainerako legeak: berme sozialak eskuratzeko erroldatuta eman beharreko urteak, esaterako.

Gizarteak edo taldeak eragindako oztopoak:

Politika publikoen inkoherentziak, hainbat mailatan. Partaidetza bultzatzen ahalegintzen da zenbait alorretan, baina beste batzuetan behar adinako aitorenik gabe. Abian jartzen dituen prozesuak galdu, baztertu edo gobernu-aldaketekin eraldatu egiten dira.

Diskriminazioa: Bertako herritarren aldetik etorkinen onespina eta aitorena areagotzeko beharra.

Aitorpen falta: etorkinek duten pisu sozialari dagokionez. Immigranteak biztanleen % 6,9 diren arren, "ez dira erakargarriak". Kolektibo horren zati handi batek ez du bozkatzeko eskubiderik (beraz, ez du eragiten); ez dute sentitzen lehentasun politiko direnik.

Oztopo psikologikoak eta pertsonalak:

- Beldurra
- Mesfidantza
- ERABILTZEN DITUZTELAKO sentimendua
- Zailtasunak hizkuntzarekin



- Norberaren ardurapeko adingabeak (egoera horrek are gehiago oztopatzen du emakumeen partaidetza, ez baitute familia-sarerik adingabekoen zaintzan laguntzeko eta, beraz, zaintzailearen partaidetzarako)

Zuen ingurunetik partaidetza bultzatzen al duzue?

Sektoretik, erakunde sozialetatik eta oinarrizko taldeetatik partaidetza bultzatu ahal izateko, garrantzitsua da alor komunitarioaren eraikuntza bultzatzea.

Une hauetan oso beharrezkoa dirudi babestutako eremuen (elkarteen) artean zubiak eraikitzea, hitz egiteko aukera ematen duten eremuetarantz, migrazioen ingurunetik irtenda, horrek dakarren parte hartzeko erantzukizunarekin.

Esate baterako, etorkinari ez litzaioke bilera baterako gonbita egin behar etorkina izateagatik bakarrik; kontuan hartu beharko lirateke, halaber, beste ezaugarri batzuk (enplegua, generoa, problematika eta abar) eta bere ezagutza, etorkinizaera beste ezaugarri bat gehiago baita eta ez etorkina definitzeko elementua.

Garrantzitsua da etorkinak kontuan hartzea eta haien kultura-ondare aberasgarria aintzat hartzea (zuzenean ezagutzen baitituzte jatorrizko herrialdeko errealitatea eta herrialde hartako gai interesgarriak).

Erakunde sozialen, sareen eta ahaldundutako etorkinen lanari esker bidea egiten ari da beste ezagutza- eta aitopen-eremu batzuk eskuratzeko. Bide zaila da, ingurunean ez ezik aldaketak eragiten baititu, halaber, bide hori bultzatzen duten pertsona eta erakundeetan. Horretan ari gara!

Jaurlaritzari egindako eskaerak, Liburu Zurian jaso ditzan

- Eusko Jaurlaritzaren eskumena ez bada ere, berariaz eskatzen zaio monitorizatzeko-lana bete eta jarrera aktiboa har dezan, erantzuna emateko bai Atzeritarrei buruzko Legeari, bai Asilo eskubidea eta errefuxiatu izaera



arautzeko Legeari baita horietan egin daitezkeen aldaketei eta pertsonengan izan ditzaketen ondorioei ere.

- Konpromiso aktibo eta etengabea izan dezala, pertsona guztien partaidetza eta aitorpena bultzatzeko, haien egoera administratiboa dena delakoa izanda ere.
- Aktiboki parte har dezala erakundeen eta sailen arteko politiken koordinazioan, etorkinen eskubideak aitortzeko, haien betebeharrak argitzeko eta biak ala biak betearazteko.
- Balio-sentsibilizazioa bultzatzea eta denboran eustea, inklusioari, pluraltasunari, irekierari eta bizikidetzari erantzuteko; integrazioa eta aniztasuna bultzatzea elementu eraldatzaile eta ezinbesteko gisa.
- Lanari eustea aurreiritzien/estereotipoen murrizketaren inguruan, horiek partaidetza eragotzi ez dezaten elkarten alorretik harago.
- Pertsonen eta liderrak diren etorkinen ahalduntze-lana sustatzea, elkartze-guneak eta/edo babestutako guneak heda daitezen, betiere haien gaitasunak aitortuta eta ez etorkin izateagatik bakarrik.



Unibertsitateko ikasleekin saioa. Deustuko Unibertsitatea 2014/05/19

Bertan izan dira: Deustuko Unibertsitateko Gizarte-hezkuntzako 2. mailako ikasleak

Demokraziari eta herritarren partaidetzari buruzko Liburu Zuria zela-eta, hausnarketa kolektiboko prozesu horretan parte hartzeko gonbita egin zitzairen Deustuko Unibertsitateko Gizarte-hezkuntzako ikasleei. Herritarren Heziketako ikasgaia (bigarren maila) izan zen prozesu horren garapenerako gunea.

Proiektuaren xedea bikoitza zen. Lehenik eta behin, partaidetza-prozesuei buruzko hausnarketa egitea, eta, bigarren, unibertsitateko kolektiboarentzako partaidetzarako zenbait dinamika proposatzea modu bateratuan. Hauek izan ziren prozesua bideratu zuten galderak:

- Gure gizarte garaikideetan zein prozesu eta eremutan ikasten dute gazteek herritar izaten?
- Parte hartzeko zein aukera dituzte gazteek? Nola piztu dezakegu partaidetzarekiko interesa?

Aipatutako helburuak lortze aldera, bost lan-saio egin ziren ikasgelan 2013/14 ikasturtean. Ikastaroko (euskaraz eta gaztelaniaz) ikasleez eta irakasleez gain, Innobasqueko Goizalde Atxutegik eta Deustuko Unibertsitateko Lorena Fernándezek eta Ana Viñalsek ere parte hartu zuten saioetan:

- Lehen saioan, martxoaren 27an, Liburu Zuria eta lankidetzarako proposamena aurkeztu ziren.
- Bigarren saioan, apirilaren 10ean, gazteen partaidetzako errealitatera eta gaiari buruz egindako azterketetara hurbilketa egin zen.
- Hirugarren eta laugarren saioak, apirilaren 28an eta maiatzaren 5ean, partaidetza bultzatzeko hezkuntza-proiektuen garapenean oinarritu ziren.

Hiru ardatzen inguruan oinarritzen ziren: Zer da partaidetza unibertsitateko gazteentzat? Nola parte hartzen dute? Eta non parte hartzen dute?

- 2013/14 ikasturteko azken saioan, maiatzaren 19an, "Partaidetza foroa" garatu zen. Egun hartan, parte-hartzaileek Unibertsitatean partaidetzari buruzko eztabaida bultzatzeko beren proposamenak aurkeztu zizkieten Innobasque eta Deustuko Unibertsitateko ordezkariak.

Hiru lantalde aurkeztu ziren, eta bakoitzak ordezkaturiko zuen gaia aukeratu eta zenbait dinamika aurkeztu zituen:

- a) "Nik parte hartzen dut, zu kanpoan geratuko al zara?": unibertsitarioak partaidetza-proiektuetan parte hartzera erakartzeko moduan zentratu zen talde hau.
- b) "Nik parte hartu nuen, zuk parte hartzen duzu, denok parte hartuko dugu": gaietan sakontzeko aukera emango zuten eztabaida-tailer batzuk aurkeztu zituen talde horrek.
- c) "Gure unibertsitatea nolakoa izatea gustatuko litzaizuke?": hirugarren taldeak ikaskideen iritzia ezagutzeko galdeketa egiteko aukera aztertu zuen.

Hauek izan ziren baterako hausnarketatik sortu ziren zenbait ondorio:

- Partaidetza lortzeko motibazioak duen garrantzia aipatzea.
- Gogoan izatea informatzeko eta partaidetza-prozesuetan parte hartzeko erabakia hartzerakoan errutina oztopoa dela.
- "Proposamen originalak" bilatzea, partaidetza-prozesuen gainean arreta emateko, eguneroko errutinetan jende askok ez baitu "hautematen" eta, beraz, ez baitie proposamenei "erantzuten".
- Ildo horretatik, proposamen ludikoak hartuko dira gazteak partaidetza-prozesuetara erakartzeko lehen estrategiatzat.
- INOR ez ahaztea proiektuak hedatzeko estrategietan pentsatzean (Erasmus, dibertsitate funtzionala duten pertsonak eta abar).
- Prozesuak egokitzea (hizkuntza desberdinak gehitzea, arkitektura-oztopoak kentzea) kolektibo guztiak jasotzeko.

- Era guztietako eremuak proposatzea partaidetza-prozesuak ezagutarazteko: korridoreak, klaustroa, "labirintoa", kafetegia, ikasgelak eta abar.
- Onespen eta taldearekiko konfiantzazko giroa sortzea.
- "Kafe batek" nolako garrantzia duen gogoratzea, elkarri hurbiltzeko aitzakia paregabea baita.
- Xehetasun guztietan pentsatzea eta horiek diseinatzea, zoriaren esku ezer utzi gabe: lekua, ordutegia...
- Sare sozialek gazteen partaidetza sustatzeko eta dinamizatzeko duten garrantzia.
- IKTak gogoan hartzea, partaidetza-prozesuak hedatzeko eta bideratzeko plataforma gisa.
- Aitorpen sinbolikoa prozesuen jarraipenaren bermatzaile gisa txertatzea.
- Interesen eta aukeren arabera, inplikazio maila desberdinak bultzatuko dituzten estrategia osagarriak bilatzea.

Adimen-urritasuna duten pertsonekin saioa. Entzun gure nahia 2014/05/21

Bertan izan dira: Entzun gure nahia erakundeko 15 kide

Zer da parte hartzea? Parte hartzeko aukerarik al duzue?

Adimen-urritasuna dugun pertsonok arrazoi askorengatik dugu gizartean parte hartzeko beharra, eta gure ahotsa entzun beharra dago politika publikoak diseinatzerakoan, baina egia da oztopo ugari topatzen ditugula parte hartzerako garaian.

Hori dela eta, Entzun Gure Nahia talde autokudeatzailearen barruan, gure iritzia jaso dugu gure familien eta Down Sindromea Fundazioko profesionalen iritziarekin batera, herritarren partaidetzari buruzko Liburu Zuriaren sorkuntzan gogo handiz laguntzeko. Horrela, aurrera egin ahal izango dugu adimen-urritasuna dutenen eskubideak defendatzeko, eta haien ahotsa izan.

Gizartean parte hartzeko beharra dugu, arrazoi hauengatik:

- Gizartean bat gehiago gara, eskubide eta betebeharrak ditugu
- Gure ahotsa entzun dadin nahi dugu
- Gizarteak ezagutu egin behar gaitu, eta guregana ireki; horrela, guri buruzko ideia okerrak baztertuko ditugu
- Gizartea onerako aldatzea nahi dugu eta aldaketa horren zati izan
- Asko dugu emateko, eta gaitasun ugari ditugu gizarte solidarioagoa, bidezkoagoa eta zabalagoa eraikitzeko
- Zuzen-zuzenean bizi eta sufritzen dugu, gauzak ondo edo gaizki doazenean
- Gure beharrak eta itxaropenak transmititu egin behar ditugu, kontuan har daitezen



- Demokrazia benetakoa izateko, herritar guztien eskubidea izan behar luke partaidetzak

Politika publikoak prestatzerakoan gure ahotsa entzun beharko litzateke arrazoi hauengatik:

- Beharrak ditugu, eta babesa behar dugu eskubide osoko pertsonen moduan aurrera egiteko
- Gurea dena defendatu nahi dugu, eta horren alde borrokatu, gure helburuak lortze aldera
- Guk ere ekarpenak egin ditzakegu, eta baliotsuak gara
- Garrantzitsua da gure beharrak, gaitasunak eta mugak ezagutzea; izan ere, zenbait politikek zuzenean eragiten gaituzte
- Denon ahotsa entzuten ez bada, politika publikoak ez dira bidezkoak izango, eta ez dira errealak izango, ez direlako denei zuzenduta egongo

Zer oztopo topatzen dituzue parte hartzeko?

Hona hemen zer oztopo topatzen ditugun adimen-urritasuna dugunok parte hartzeko orduan:

- Gizarteak ez daki gu nola tratatu, aurreiritzi eta ezjakintasun handia dago
- Gizartean ez gaituzte behar adina ikusten, ezta komunikabideetan ere
- Kosta egiten zaigu komunikabideak, hauteskunde-kanpainak eta mezu politikoak ulertzea, ez baitaude egokituta, ezta Irakurketa Errazeko formatuan idatzita ere
- Bozkatu egin nahi dugu, eta ez dugu ulertzen
- Ez dago behar adina diru beharrezko laguntza jasotzeko (etxebizitzarako, bizimodu autonomia egiteko, enplegurako...)
- Eguneroko bizitzako inguruneak ez dira ulertzen (garraiobideak, kartelak, seinaleak...)
- Ez dago egokitutako enplegu publikoko eskaintzarik
- Ezgaitetak bozkatzea eragozten digu, eta, beraz, eskubide hori ukatzen zaigu



- Ez dago aisiarako egokitutako behar adina aukerarik (egokitutako kultura-agendak, egokitutako ekintzak udal-zentroetan...)
- Jasotzen ez gaituen gehiengoarentzat pentsatuta eta diseinatuta daude politikak

Jaurlaritzari egindako eskaerak, Liburu Zurian jaso ditzan

Adimen-urritasuna duten pertsonen eta haien familien kolektiboa garen aldetik, Jaurlaritzari eskatzen diogu honako hau jaso dezan herritarren partaidetzari buruzko Liburu Zurian:

- Errespetua eta begirunea. Eskatzen dugu politikak prestatu aurretik gure gaitasunak eta zailtasunak ezagutu ditzatela, bereziki zuzenean eragiten gaituztenak
- Guk ulertzeko moduan egokitutako dokumentazioa era dadila (irakurketa erraza)
- Egokitutako kanpaina politikoak egin daitezela
- Inklusioa ez dadila paperean gelditu, eta errealitate izan dadila
- Politikariek autokudeatzaileen taldeok aintzat har gaitzatela eta kontsultak egin diezazkigutela, eragile garrantzitsutzat hartuta.
- Parte hartu ahal izateko ekintza irekiagoak era daitezela, horrela, herritarren artean ezagutzera eman ahal izateko.
- Gure eta erakundeen arteko komunikazioa susta dadila
- Denontzat diseinatuta eta eraikita egongo den hiria nahi dugu



Auzokide elkarteak

Basurtuko Auzo Etxea, irailak 23

Bertan izan dira: Auzokide elkarteetako 18 kide

Zer esan nahi du zuentzat partaidetzak? Zergatik duzue parte hartzeko beharra/nahia?

Parte hartzeak gure iritzia entzutea eta aintzat hartzea esan nahi du; izan ere, ordezkagarritasuna dugu, herritar garen aldetik; gure kezak nonbaitera iristea nahi dugu, eta, ingurune publikoan bada, indar handiagoa izango du, zio jakin batekin bat egiten duen jende gehiago egon baitaiteke. Gobernu irekiko plataformen aukera aurreko mekanismoen bidea baino bizkorragoa da, eta beste batzuek pentsatzen dutena jakitea ere garrantzitsua da; era berean, garrantzitsua da, halaber, erantzuna ez izatea automatikoa, horrek herritarrak indarberrituko bailituzke. Ez da ahaztu behar partaidetzak bitarikoa izan behar duela: zuzenekoa eta lineakoa; izan ere, lineakoa soilik bada, oztopo izango da hori kolektibo batzuentzat.

Parte hartzea ez da botoa edukitzea soilik: ahotsa edukitzea da garrantzitsua, eta orain arte ez dugu ahotsik izan; bozkatzeko eskubidea soilik izan dugu. Kanalak indibidualak edo kolektiboak izan behar dira, banaka edo elkartuta, bietara parte hartu ahal izateko.

Herritarrek bozkatu egiten dute, eta, zenbaiten ustetan, hori nahikoa da; badirudi orain aukera bat zabaldu dela, eszeptiko samarrak garen arren.

Proiektu batean hasieratik amaieraraino parte hartzea da garrantzitsua, ez eginda dagoenean eta partaidetzarekin "agertzeko" beharra dutenean soilik: hutsetik hastea da garrantzitsua. Informazio falta salatzen dute, bai parte hartzeko moduko



partaidetza-prozesuak daudenean, bai arazo baten berri eman eta ia jarraipenik ez duenean; badirudi ahaztu egiten dutela.

Partaidetzak ez du salbuespena izan behar, ohikoa baizik. Herritarren heziketa falta zaigu; oro har, ez dakigu parte hartzen; beraz, guztiz funtsezkoa da partaidetzan heztea, ikastetxean, familian... Ondorio guztiek kausak dituzte; instituzioek benetan interesa baldin badute herritarrek parte har dezaten, hezi eta treba ditzatela.

Politika-ereduarekin arazoa dago: oinarria txarra bada, baliteke ondorengo garapen guztia ere txarra izatea, interesengatik baitago horrela bideratuta. Partaidetza mantra bilakatu da, partaidetzari buruzko 120 milioi azterketa daude, baina inork ez daki benetan zer den; interesgarria izango litzateke jakitea noraino dauden instituzioak partaidetza beren gain hartzeko prest. Herritarren mugimendua oraindik ahula da, baina erantzuna ematen die lau urtez behin soilik hitz egin dezakeen gizarte demokratikoaren gabeziei. Politikariek gizartearen zerbitzura egon behar dute. Herritarren artean gabeziak daude, baina egun ditugun eredu politikoak ere ez dira eredugarriak. Egungo eredu politikoan errotu diren asmo gaiztoen eraginez, ez dugu hartan sinisten. Hori dela eta, demokrazia parte-hartzailea da aukera egokia.

Politikak prestatzerakoan auzo-elkarteen ahotsa entzun beharra dagoela uste al duzue?

Auzo-elkarteen ahotsa entzuteaz gain, kontuan hartu egin behar da, hori baita garrantzitsua. Auzo-elkartek ezinbestekoak dira, funtsezko atala dira, oinarria, eta ordezkatuta egon behar dute partaidetza-organoetan, eman zaien ordezkaritza beteta.

Dagoeneko finkatuta dauden bideak indartu behar dira, eta dagokien adierazgarritasuna eman, bestela bidean galtzeko arriskua baitago, eta elkartegintza bultzatzea da horretarako modu bat; garrantzitsua da afiliazioa eta kontzientzia egotea.



Auzo-elkarteek alderdi politikoetatik independenteak izan behar dute; pluralak izan behar dute, mundu guztia sartu eta eroso sentitu dadin; azpimarratzekoa da, betiere, ez garela instituzioen etsaiak.

Auzo-elkarteak ezin dira ordezkatu instituzioei gehiago komeni dakizkiekeen beste elementu batzuekin; orain arte ez dira kontuan hartu, baina errealitatea dira, hezur eta mami. Askotan presioaren ondorioz entzun izan digute...

Zein oztopo topatzen ditugu parte hartzerakoan?

Zenbait erakundek ez gaituzte kontuan hartzen, honela diote: "bizilagunek atariko politiketan parte har dezakete". Askotan borondate politikoaren falta izaten da arrazoietako bat; instituzioak ez dira lurrera jaisten, arazoak ikustera.

Teknologia berriak ez dira aski, denek informazioa eskuratzeko aukera berak izan ditzaten. Era berean, ez da ezer egiten, ez dakitenak teknologia berrietara hel daitezten. Badirudi kolektibo jakin batzuei bideratuta dagoela dena; dena ezin da aginduzkoa izan, eta jendea teknologia berri horietan trebatzeko ere ez dute ezer egiten.

Zer eskakizun egingo zenizkioke Jaurlaritzari?

- Mekanismoren bat sor dezala, elkarteok udalerrri-mailan dihardugun arren, EJ barruan ere organoren bat egon dadin hari zuzendu ahal izateko harenak direnean erreklamazio jakin bat bideratzeko eskuduntzak. Ez dugu jakiten zer sailletara jo behar dugun: Jaurlaritza helezin ikusten dugu; hala, uste dugu solaskide argi bat izan behar lukeela. Aipatzekoa da udalaren eskuduntzetatik ihes egiten duen arazoren bat dagoenean (erakunde horrekin dugu harreman handiena), arazoa kudeatzen lagundu beharrean, ez diola jaramonik egiten eta ez dugula beste erakunde batzuetara jotzeko biderik.



- Doako justizia elkarreterara zabaltzeko legea era dezala.
- Hona beste proposamen bat: beste herrialde batzuetan dagoeneko egiten den moduan, autonomia-, foru- eta udal -hauteskundeetan aurrean, gai interesgarriak lantzeko deialdia egitea, herritarrek beren iritzia eman dezaten.
- Interesgarria izango litzateke parte hartzeko modua zehaztea, arazo baten aurrean jarduteko protokoloa bilatzea eta parte hartzeko eskuliburu bat lantzea
- Garrantzitsua da erakundeek argi edukitzea gure ordezkariak direla eta gure ibilian bidelagun izatea.



Langabetuekin saioa. Behargintza Leioa. 2014/10/10

Bertan izan dira: Langabetuen inguruneko 32 lagun

Zer esan nahi du zuentzat partaidetzak? Zergatik duzue parte hartzeko beharra/nahia?

Aldebiko entzuketa aktiboa da, inguratzen gaituen egoera ulertuz elkar ulertzera heltzeko eta onartuz erantzuna, agian, ez dela gustukoa izango. Kontzientziak pizteko balio du, hau da, guztien ongia lortzeko. Urratsa egin behar da arlo indibidualetik kolektibora; betebeharrak eta erantzukizunak partekatu behar dira. Herritarren arazoan errealitatea islatu ahal izateko bidea da, eskumena dutenengan hel daitezen arazok eta, hartara, egokiro baloratu eta eraginkortasuna lor dadin.

Informatuta egotea, elkarrekin erlazionatzea eta ekarpena egitea da, herritarren parte zarela sentituz. Ikasiz eta elkarrekin sortuz hazteko aukera ematen du, beste pertsona batzuekin erlazionatuz. Partaidetzak hazteko eta ikasteko aukera ematen du.

Entzutea eta entzuna izatea da, baldintzak hobetzeko balio du. Gainera, garrantzitsua da gure diruarekin zer egiten den jakitea. Herritarren partaidetzak orain arte botoa soilik esan nahi zuen, eta abstentzioa ez zen kontuan hartzen, ez bozkatzeko eskubide edo sistemarekiko gaitzespen gisa ere ez.

Hautzarotik bertatik bultzatu behar da partaidetza, parte hartzen, eztabaidatzen eta argudiatzen ohituta egoteko. Eztabaidarako kultura falta zaigu. Izan ere, orain arte, ezin izan diogu elkarri eragin; ez diogu elkarri entzuten; aitzitik, gure irizpidea inposatu nahi izaten dugu; gainera, kultura demokratikoa ere falta dugu, demokrazia europarren aurrean.



Beharrezkoa dugu parte hartzea, egungo bideak ez direlako eraginkorrak, ez indibidualki, ez kolektiboki; gainera, kontuan har gaitzaten nahi dugu; izan ere, iritzi indibidualak beste errealitate batzuetan gehitzeko modua da partaidetza, problematika sozial osoaren barruan. Partaidetzari esker, pertsonak sentitzen dute baliagarriak direla eta gizarteak ikusi egiten dituela; gainera, zenbait egoera ulertzeko bide ematen du. Patronalarekin baino areago inplikatu behar da herritarrekin. Era berean, batez ere herritarrak hartu behar dira aintzat, ez hainbeste alderdi politikoak.

Partaidetzarik al da politika publikoetan? Politika/zerbitzu publikoak prestatzerakoan zuen ahotsa entzun beharko litzatekeela pentsatzen al duzue?

Bai Administrazioa, bai herritarrak parte hartzen ikasten ari gara. Administrazioa urratsak ematen ari da pixkanaka herritarrak ahaldunduz. Partaidetza gaur egun hautetsontzietan soilik existitzen da; gure ahotsa entzun egin behar da, benetako arazoak eta beharrak transmititzeko modu bakarra delako, baina, era berean, uste dugu herritarrak kontsekuentea eta arduratsua izan behar duela bere jokamoldeekin. Parte hartzea ez da bozkatzea soilik, hori ez da nahikoa.

Garrantzitsua izango litzateke kolektibo honetatik aktiboki parte hartu ahal izatea; izan ere, lege bidegabeak jasaten ditugu, eta gure iritzia oso argigarria izango litzateke, gure ikuspuntua gehituta. Ahalegin handiagoa egin behar dute, informatzeko eta eskuragarri dauden baliabideak ezagutarazteko.

Nahi den guztietan parte hartu behar da, baina kultura-baliabideak falta dira; badira bideak, batez ere toki mailan, eta horietan herritarrekin elkar eragiten da, baina ez da halakorik gainerako erakunde autonomikoetan. Prozesuak argia behar du izan, helburu zehatzekin, eta, parte hartzen den aldi oro, emaitzen berri eman behar da.



Zer oztopo topatzen ditugu parte hartzeko?


- Ez dago partaidetza-kulturarik; segurtasuna falta dugu iritzia ematerakoan, eta ez dugu motibaziorik, erantzun-falta dela eta.
- Informazio- eta profesionaltasun-falta dago informazioa emateaz arduratzen den langileen artean, alor eta erakunde askotan; iritsezinak dira, eta balio handiegia ematen zaie. Distantzia handia dago jende arruntaren eta teknikarien, zinegotzien eta abarren artean.
- Baliabideekiko ezjakintasuna dago, eta gonbidatzen ez bazaituzte, ez zara joaten, jakina.
- Politiketara iristeko zailtasunaren ondorioz, jarrera pasiboa hartu dute herritarrek; Arartekoa dugu erreferentzia, eta harengana jotzen du askok.
- Ez digute entzuten, eta ez dugu sumatzen kontuan hartzen gaituztenik.
- Iritsezina: ez dugu nabaritzen esaten duguna inora heltzen denik eta ezertarako balio duenik.
- Jendea kexan ainguratuta dago, eta ez du parte hartzeko adorerik.
- Oztopo teknologikoak, mundu guztiak ez ditu bide horretarako ezagutzak eta baliabideak eskuragarri; presentziala izateko ere aukera eman behar da, beraz.
- Egungo ordutegi presentzialek ez dute beti administraziora heltzeko aukera ematen.
- Hizkera ez da oso argia; hizkera arruntagoa eta errazagoa erabili behar da, teknikoegia baita.
- Nahasketa sortzen zaie herritarrei, ez dakitelako nora joan behar duten, ez baitzaie argi eta garbi adierazten.
- Herritarrek ez dute borondaterik, ez entzuteko, ez parte hartzeko; batzuetan herritarrak berak dira oztopoa.



c) Irekian jasotako ekarpenak



d) Kontraste prozesuaren txostena



EUSKADIRAKO DEMOKRAZIARI ETA HERRITARREN PARTE-HARTZEARI BURUZKO LIBURU ZURIA

- Abiapuntua -

KONTRASTERAKO JARDUNALDIEN ONDORIOAK

GETXO, 2014KO AZAROAREN 17

GASTEIZ, 2014KO AZAROAREN 21

ZARAUTZ, 2014KO AZAROAREN 28



SARRERA - KONTRASTE PROZESUAREN HELBURUAK ETA IRISMENA

Azaroko hilabetearen zehar hiru kontraste-jardunaldi ireki burutu dira eta haietan 125 pertsona baino gehiagok parte hartu dute “Euskadira Hiritarren Demokrazia eta Partaidetzako Liburu Zuri bat. Abiapuntu bat” Irekian argitaratutako testua oinarritzat hartuta, helburu bikoitzarekin:

- Liburu Zuriaren edukia legitimatzea, hura eraikitzen parte hartu duten pertsona eta erakundeekin kontrastatuz ea aipaturiko testuak prozesuan zehar landutako edukiak jasotzen dituen.
- Liburu Zuriari jaso gabeko edo bertan behar adina garatu gabeko aspektuak identifikatzea eta haren hedatze-faseari erantsi behar zaizkionak.

Partaidetza-prozesu horren helburua ez da izan eztabaidatutakoa eztabaidatzea edo hartan funtsezko aldaketak proposatzea, baizik eta “dokumentu bizi” filosofia horretatik, gaur arte egindako partaidetza-lana bere hedapenean aberastu dezaketen aspektuak detektatzea.

Lehen aipatutako kontraste-prozesuaren helburuekiko koherentzia, ez zaizkio erantsi Liburu Zuriko gorputz nagusiari ideiak edo eduki-ardatzak, zeinek proposatzen baitzuten testuaren funtsaren aldaketa garrantzitsua. Ideia-indar errepikariak, horiek bai erantsi zaizkio Liburu Zuriari kontraste-prozesuaren emaitza bezala, honako hau ulertuz: Liburu Zuri lantzean behar adina garatu ez diren ardatzak direla, haien hedatze-fasean kontuan eduki beharrekoak zirela.

10 faktore identifikatu dira, eta horien gainean lanean jarraitu beharko litzateke hurrengo fase batean Liburu Zuriaren edukia osatzeko:

- 1. Egitura eta dinamika kolektiboak identifikatu, tarteko kanalak barne-hartuz** (adibidez sindikatuak, federazioak, elkarteak) eta haien balore-ekarpena partaidetzaren lankidetzadimentsioan, administratzaeren eta hiritarren arteko egitura “zubi” bezala.
- 2. Euskadin burututako partaidetza-prozesuak balioan jarri eta aitortzea**, ikasgai ikasiak.
- 3. Euskadin dauden partaidetza-prozesu eta kanal formalen** inguruko analisi kritikoa. **Kontseilu eta organo parte-hartzaile/aholkularien** berrikuspen bat egitearen garrantzia nabarmentzen da Liburu Zuriaren hedapenean haiek nola sartzen diren ikusteko: zer balioren ekarpena egin diezaioketen edo hesi bat izan ote daitezkeen partaidetzarako.
- 4. Teknologia berrien** inguruan sakontzea aurrez aurreko formatuz harago partaidetzarako elementu bezala.
- 5. Partaidetza-prozesuen diseinua:** nola egin partaidetza-prozesu erakargarriagoak eta irismen handiagokoak inklusio printzipioak errespetatuz, nola ekin zeharlerrotasunari partaidetza-dinamiketan (generoa, osasuna, adina, open data, hezkuntza, etab.), haren mugak...
- 6. Nola sustatu partaidetza-kultura** (nola irakatsi parte hartzen, nola ikasi, nola sortu kultura) eta Administrazioaren zeregina hura sustatzen: partaidetzako hezkuntza, partaidetzaren aitortza soziala, solaskide legitimoen aitortza, gune eta baliabide partekatuak, etab.
- 7. Partaidetzarako gaitasunak** (politikoak eta hiritarrak) eta nola garatu haiek egikaritzeko beharrezko trebetasunak eta jarrerak.



8. **Erreminta-kaxa baten** garapena partaidetza-formula desberdinak zerrendatuko dituen abantaila eta desabantailekin, **bai eta partaidetzarako tresna eta metodologia desberdinak ere.**
9. **Partaidetza-prozesuen ebaluaketa:** adierazleak, ez-parte hartzearen arrazoiak, ez errepikatzearenak, emaitzak eta inpaktuak, jarraipen-batzordeak, etab.
10. **Administrarritza-arteko lankidetzaren tresnen garapena** hiritarren partaidetza gaian (kontseilua, batzordea, foroa, etab.).

5 jarduketa-eremuen aipamen zehatza egiten zuten ekarpen haiek (osasuna, ikaskuntza, ingurumena, gizarte-kohesioa eta garapen ekonomikoa) txosten honetan jasota geratu dira, eta euskarri bezala balio beharko dute eremuka hedatzeko, eta hori Liburu Zurian jasotako konpromisoen esparruan burutuko da. Azkenik, zuzenketa txikiak eta/edo ñabardurak egin zaizkio testuari eta horiek halako zehaztasun-maila bat gehitu diote aurretik testuan adierazitako ideietako batzuei, nahiz eta horrek funtsezko aldaketarik ez ekarri, baizik eta eduki adostuaren garapena Liburu Zuria lantzeko prozesuan zehar.

Edozein kasutan, prozesuaren ondorio-txosten honetan kontraste-fasean jasotako ekarpen nagusiak zehazten dira Liburu Zuriaren egitura jarraituz (haren kapituluak) haien diseinuan planteatu zen bezala.

1) EDUKI OROKORREN balorazioa


Oro har, lehen hurbilpen edo abiapuntu on bat dela kontsideratzen da eraikuntza partekatu bat abiarazteko Euskadiko partaidetzaren inguruan. Liburu Zuri bat bezala formulatua izateak jarduketa-esparrua oso determinaturik egotea eragiten du eta barruti politiko-instituzionalean gehiago zentratzea hiritarrenean baino.

Eredu partekatu bat definitzen gehiago zentratzen den testu bat da hori nola ezar daitekeen ikertzen baino areago. Beharrezkoa da gogo-paradigma eta sinesteak aldatzea, baina batzuetan haren edukia orokorragia eta hiritarren errealitatetik urrunduegia gertatzen da.

Hitz batean, honako hau nabarmentzen da: Liburu Zuriak “zer” asko biltzen dituela baina “nola” gutxi, eta horregatik lan egin beharra dagoela hura hedatzen “partaidetza nola egin” eta “partaidetza nola erantsi” esplizitatuko dituzten kanal, gune eta metodologietan barruti eta ekimen desberdinetan. Hori guztia Euskadin dauden **ekimen, prozesu eta kanal, formal edo informalen inguruko analisi kritiko batetik abiatuz**. Azpimarratu egiten da analisi bat egitearen premia egituretan txertatutako kontseilu eta **partaidetza- eta aholkularitza- organoen** inguruan.

Beharrezkoa da, beraz, honako hau ikustea: egitura eta dinamika, formal eta informal horiek nola egokitzen diren Liburu Zuriaren hedapenean eta horri zer balioaren ekarpena egin diezaioketen, edo, aitzitik, hesi bat gerta ote daitezkeen. Beraz, lehen urratsak honako honek izan behar du: **aipatutako egitura eta dinamikak identifikatzea, tarteko kanalak barne-bilduz, bai eta partaidetzarako tresna eta metodologia desberdinak ere**. Erreminta-kaxa bat garatzea nahigarria litzatekeela aipatzen da, partaidetza-formula desberdinak zerrendatuko dituen beren abantaila eta desabantailekin.

Honako ardatz hauek ere aipatzen dira, zeinak partaidetza-prozesuekin loturik, hedapenean garatu beharko diren aurretik aipatutakoekin batera:



Azkenik eta **hedapenaren aurretiazko izaerarekin**, beharrezkotzat jotzen da honako hauetan lan egitea:

- Prozesuko emaitzen **zabalkundea**:
 - Hiritarrak izan ditzala jomuga, baina Liburu Zuri hau oraindik ezagutzen ez duten hiritar antolatu horiek ere bai.



- Liburuaren edukien idazkuntza eta aurkezpena pertsona guztientzat irisgarriak izan daitezen: forma landu, hizkuntza irisgarriagoa, Liburu Zuriaren beste zabalkunde-formatu batzuk, bideoak, etab.
- **Ebaluazio-eta jarraipeneko adierazle-eredu bat**, nola kuantitatiboak hala kualitatiboak, Liburu Zuri horrentzat.
- **Inplementazio-estrategia** bat definitu: Liburuan lanean jarraitzeko prozesua eta hori Liburu Zuri “bizi” bat nola izan daitekeen ikusteko, gure elkarre-ehunetik eta gure orainalditik abiatuta. Pausoak eman benetan inplementatua izan dadin, gauzatu dadin eta errealitate izan dadin.

2) ERAIKITZE PROZESUAREN balorazioa

Liburu Zuriaren eraikitze-prozesua **prozesu koherente, ireki, zuzen eta parte-hartzaile bezala baloratzen da, nahiz eta hobetu beharreko zenbait aspektu aipatzen diren**. Oro har, teorizazio konprometitu baterako abagunea eman dela uste da eta ongi erantzun diola bere helburu nagusiari, Liburu Zuri bat sortzeari, aski den denbora-esparru batekin. Edozein kasutan, edukiari buruzko aurreko sailean iruzkindu den moduan, azken emaitza teorikoegitza jotzen da eta mekanismoak falta dira parte hartzeko eta partaidetza sustatzeko, eta horregatik “labur samar” geratu da, izan ere mota horretako prozesuetan garrantzitsua baita hartan zehar sortu diren elementu guztiei erantzuna ematea.

Erabilitako dinamika eta metodologiei dagokienez balorazioa oso desberdina da: nola era positiboan (biziak, berritzaileak, anitzak, erakargarriak...) hala era negatiboan baloratzen dira (elkargainkatuak, korapilotsuak...). Dinamika batzuek alde aurretiko prestakuntza behar dutela aipatzen da bertaratutako pertsonen aldetik (dokumentazioaren aurretiazko irakurketa), zenbait kasutan gertatu ez dena, eta horregatik zaildu egin da haiek garatzea. Diseinu orokorrari dagokionez, honako hau nabarmentzen da: zailtasunaren barruan ahalegin garrantzitsua egin dela erakargarri bihurtzeko (formatuak, lekuak, kolektiboak, etab.) baina patroigintza falta bat hauteman da haren baitan.

Prozesuan parte hartu duten persona eta erakundeei dagokienez, partaidetza-maila desberdinak daudela azpimarratzen da, beti kontuan hartu ez dena. Ez da zuzen komunikatu nor izan den gonbidatua parte hartzera eta zein fasetan, eta oro har, **aniztasun handiagoa izango zatekeela desiragarri** (soslai desberdinak, zabalagoa, “hautazkoa”, hiritargo antolatua, gazteak, etab.), eta hori buru gabe geratzen da partaidetza-prozesu gehienetan.

Aniztasunaz gainera **hobetu beharreko ondorengo elementu hauek** aipatzen dira:

- **Prozesuari buruzko informazio gehiago**, batez ere kontuan izanik prozesu irekia izatean prozesuaren fase desberdinetan zenbait persona gehitu zaizkiola eta horiek galduta sentitu ahal izan direla jarraitzen ari ziren helburua eta prozesu orokorrarekiko. Nahiz eta izena eman duten persona guztiei alde aurretik txostenak bidali zaizkien, komenigarri izan zitekeen informazio hori indartzea (jardunaldiaren aurretik persona horiei deituz edo jardunaldiaren aurretik bilera batera deituz hobeki testuinguratzeko). Halaber, nahiz eta prozesuan zehar azalpenak eman diren, pertsona batzuek uste dute ez dela nahikoa informazio eman Liburu Zuriaren arautegi-ahokaduraz eta Euskal



Administrarritza Publikoen Legearekiko eta Udal Legearekiko erlazioan, non jasotzen den hitirarren partaidetza.

- **Dauden partaidetza-prozesuak eta haien emaitzak eta ondorioak hedapenean txertatu.** Nahiz eta Liburu Zuria “orri zuri batetik” abiatzearen ideia positiboa izan daitekeen (aurretiazko baldintzarik gabe abiatzea), garrantzitsutzat jotzen da orain arte Euskadin garatutakoa kontuan izatea partaidetzaren-barrutian. **Nola antzeko ekimenak bateratzeko edo sinergiak sortzeko, hala gaur egun dauden parte hartzeko guneak eta dinamikak** ustiatu eta balioan jartzeko. Ildo horretatik, praktika onak lankidetzan identifikatzeko dinamika modu egituratuagoan ezar liteke. Honako hau aipatu da: Liburu Zuriaren prozesua Euskadin ezartzeko partaidetza-prozesuren bat jendaurrean azaldu eta aitortzeko erabil zitekeela.
- **Zabalkundea hobetu**, zeren soslai oso zehatzeko pertsonengana iritsi dela uste baita. Publizitate gutxi egin da prozesuari energia gehiago emateko, eta batzuetan partaidetza “elitista” izan bide da egitura ordezkatzailetan zentratuz, gizartearekin bere orokortasunean lan egin gabe. Oro har, prozesu guztietan izaten dira zailtasunak kolektibo ez antolatuek biltzeko, baina lagundu egin zezakeen sare sozialetan presentzia handiagoa izateak eta Irekiaren eginkizunak garrantzitsuagoa izan beharko zukeen (ez gordailuzkoa soilik). Edozein kasutan, nahiz eta 2.0 euskarriek zabalkundeari lagundu diezaioketen, halaber, beharrezkoa da begiratzea nola bermatu behar den bitarteko digitalak erabiltzen ez dituzten pertsonen/kolektiboen irisgarritasuna euskarri fisiko eta errazak sortuz hizkuntza irisgarri eta hurbiletik sentsibilizatzen eta kontzientziazten lagunduko dutenak.
- **Hedatze-fasearen gauzatze handiagoa**, konpromisoez harago joanez eta argitasun handiagoz ekintzak gauzatuz (zer, norekin, nola eta noiz) horiek aurkeztu eta gero hiritarrek konpromiso horiek betetzea eskatzeko gaitasuna izan dezaten prozesuaren ondoren sustatuko diren Gobernuaren ekimenetan. Ildo horretatik, batzorde ireki bat eratzea proposatzen da konpromiso horien jarraipena eta ebaluazioa egiteaz arduratuko dena.

3) EREDUAREN PRINTZPIOEN balorazioa

Eredu zuzena da, ez dago elementu handirik faltan, nahiz eta printzipioen batek nolabaiteko zehaztasun maila falta baduen. Ereduan hobetzeko aspektu bezala premia hau nabarmentzen da: **ikuspegi inklusiboagoa islatzea bai eta administrarritza publiko desberdinen artean koordinazio handiagoa ere**. Batzuetan administrarritza gehiegi urruntzen da hiritarrengandik, bata bestearen zati bat izango ez balitz bezala, haustura sortuz hasieratik. Beharrezkoa ikusten da, era berean, “politikoa denaren” eta funtzio publikoaren arteko desberdintasuna zehaztea ere, izan ere ezin baita administrarritza publikoaz eta administrarritza politikoaz modu berean hitz egin. Deskribatutako hiru dimentsioen balorazio positiboago egiten da, beti ere zehazten direnean, nahiz eta ereduan hiru dimentsioen artean nolabaiteko lotura falta sumatzen den erakunde publikoen administrarritza prozedurei partaidetza erantsi ahal izateko.

Jasogabeak	Garatzekoak
<ul style="list-style-type: none"> ○ Partaidetza hiritarraren beraren printzipioak faltan hartzen dira. Gobernu onaren printzipioak jasotzen dira soilik. ○ Borondatezkoa ez den partaidetza definitzea. ○ Dagoeneko burututako esperientziak aitortzea eta horiek berreskuratzeko ustiatzen ez direnak, praktika egokietatik ikasi, helburu bikoitzarekin: aipatutako prozesuei buruzko informazio zehatza eta lokalizatua eskuragarri izatea (diseinua, metodologia, eraginak, etab.) eta partaidetza baliagarria dela erakustea. ○ Partaidetza kultura eranstea, oinarrizko ideia horiek baliagarriak izan daitezen benetako partaidetza-beharra sortzeko: lan pedagogikoa, komunitatearen eta bere etorkizunaren parte izan eta sentitzea, inguratzen gaituen errealitatearekin eta horren eraldaketarekiko konpromisoa sortzea. Epe luzeko ikuspegia falta da, partaidetzan hezitzeak esan nahi duenaz. ○ Partaidetzak bi norantzatakoa izan behar duela ikustea, “goitik beherakoa” eta “behetik gorakoa”. Partaidetza eredu asko daudela kontuan izatea, ez bakarrik prozesu antolatua, eta partaidetza eta erkidegoa une askotan sortzen dela. ○ Ez da adierazita agertzen Administrarritza izatea hiritarren partaidetzaren bitartez erabakitako politika baten erabaki eta exekuziorako arduradun bakarra. Esplizituki adierazi behar da. ○ Entzute enpatikoaren beharra eta errespetua jarrera aldetik. ○ Kolektibo desberdinetara egokitutako metodologia desberdinak (adinak, egoerak,...). ○ Hizkuntza irisgarria. 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Partaidetza prozesuen diseinua, modu berezian: <ul style="list-style-type: none"> ○ Ageriko konpromisoa, eskatutako eta lortutako partaidetza azken emaitzari eransteko. ○ Politiken diseinuan zerbitzuen garapenerako partaidetza: zerbitzu baten definizio / ezarpen / ebaluaziorako metodologiak zehaztu. ○ Itzultze zehaztua (zer egin den, zer ez eta zergatik). ○ Jendearen egunerokotasunera partaidetza nola hurbildu: testuinguruaren beharra, partaidetza babesten duen giroa sortzea: gardentasuna (baita ekonomikoa ere), konfiantza, informazioa. ○ Biztanleria orokorrera heltzeko zabalkundearen beharra. ○ Prozesuen erabilera politiko desegokia. ○ Gutxiengoen ordezkari eta asetasuna, gehiengoen eztabaidak,... ○ Adibidearen balioa partaidetzaren esparruan, hori ahalbidetzen duen ingurunea beharrezkoa den arren. ○ Partaidetzaren eta loturaren arteko erlazioa ○ Partaidetza arduraduna ahalduz eta autonomiatik. ○ Parte-hartze pertsonala eta parte-hartzeko eskubidea babesten dituen mekanismoen bilaketa

4) PUBLIKOA DENA KOLEKTIBOTIK ERAIKITZEAREN balorazioa

Eduki teorikoa zuzena da, nahiz eta zehaztasuna falta zaion eta apostu handiagoa erakunde-artekotasunaren alde, partaidetza epe luzerako hitzarmen politikoa eskatzen duen ekintza-esparru gisa ulertuz, zeinean bai administratzen bai eta hiritarren mailan ere partaidetzaren benetako kultura garatzea ahalbidetzen duen. Modu nagusian Eusko Jaurlaritzari egiten zaio erreferentzia, eta interesgarria izango litzateke Liburu Zuria egituren arteko aterki bat izatearen aukera sakontzea. Halaber, hiritarren partaidetza banakoaren alorrean oso zentratua dago, eta interesgarria izango litzateke elkarte / antolatze maila, erdibideko erakundeak eta bide formalen rolean lantzea. Interesgarritzat hartzen da hiritarren prozesuetan erakundeen partaidetza garatzea ere.

Jasogabeak	Garatzekoak
<ul style="list-style-type: none"> ○ Instituzioartekotasuna ○ Administrazio Publikoarekin partaidetza kanal eta bide zuzenak garatzea, internet eta sare sozialen eginkizuna ere aztertuz. ○ Baliabideak proposatutako aldeketentzat (ez ekonomikoak bakarrik) ○ Partaidetza “espontaneo” eta hiritarren artean sortu eta garatzen diren partaidetza-prozesuetan nola izan daitekeen eta behar duen izan tarteko. ○ Guztiek ulertzeko moduko hizkuntza bat, zeinean transmitituko den konfiantza-giroa hiritarren aldetik zein Administrazioarenetik eta nola moldatu erakundeen mekanismoa eta zurruntasuna eta haien prozesuak kolektibo desberdinen aurrean (ordutegiak, guneak, etab.). ○ Partaidetzarako lanabesak, haren zabalkundea eta sozializazioa. ○ Parte hartuz parte-hartzen ikasten badugu, adibide onak behar dira eta horregatik erantsi egin behar dira partaidetza-esperezia onak, bai eta txarrak ere akatsak ez errepikatzen. ○ Gogoeta egitea partaidetza formaleko organoen eginkizunaren eta erabilgarritasunaren inguruan. ○ Administrazio hiritarren zerbitzura dagoen printzipioen adierazpen argia. Sail horretan leku esanguratsua izan beharko luke. ○ Administrazioaren eta hiritartasunaz gainera, dinamizatzaileen (bitartekoen) rola eta garrantzia azpimarratzea falta da 3.1. puntuan. ○ Administrazio-testuetan irakurteraztasuna eranstea. Hobeto islatu behar da administrazio hiritartasunari informazio argia eta ulergarria helaraztearen beharra, hiritarrek egiazko erlazio eta lotura emozionala sortuko duena. Indarra jarri gehiegizko informazioa opakutasun modu bat delakoan. 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Administrazioaren jarrera, entzute aktibotik hasiz eta antolakuntza eta jarreraren aldaketa bateranzko egiazko konpromisotik aurrera eginez. Borondate politikoa egotea beharrezkoa da baina baita Administrazio Publikoetan lan egiten duten pertsonen jarrera mesedegarria ere. Burokrazia eta susmoak gaitzetzeko prozeduretako partaidetzari erantsi beharra dago. Administrazioak posizio iragazkorra eta influentziagarria transmititu behar du, kritikarekiko posizio zaurgarria. ○ Partaidetzarekiko motibazioa eta konpromisoa hiritarren aldetik: mentalitate aldaketa, hiritartasuna partaidetzarentz ilusionatzeko dinamiken diseinuak... ○ Partaidetzaren “prezioa”, denbora gehiago eta baliabide gehiago. Ondo egindako partaidetza errentagarria eta efizientea da amaieran baina lehen inbertsio bat behar du. ○ Gardentasuna: oraindik “defentsa” ireki beharra dago. ○ Partaidetza ahalbidetzen duten topalekuak, egiturak eta pertsonak, non gizarte beharrak/eskaera sozialak biltzen eta lantzen diren, agintaritzan dagoen talde politikoari jarramon egin gabe. ○ Deskribatutako ekintzek jarraitzen dituzten helburuak (batzuetan ekintzek bere helburuak dirudite). ○ Prozesu gorakorrek, Administrazioak aldaketa ausarten aldeko apustua egin beharko luke. ○ Ebaluazio prozesuak erantsi.



5) ZEHATZETIK HASTEA: GAI BARRUTIEN BALORAZIOA

Gai-barrutiei dagokienez, balorazio orokorra honako hau da: planteatutako ekintzen eta helburuen planteamendua egokia eta sostengatua delarik, **zehaztasuna falta dela ezarriak izango diren moduan edo partaidetza-prozesuari erantsiko zaion moduan**. Halaber, era zabal samarrean honako elementu komun hauek nabarmentzen dira barruti guztietan:

- Desoreka planteatutako ekintzetan, horietako batzuk izaera oso orokorrekoak direlarik eta beste batzuk guztiz zehatzak.
- Jasotako hiritarren ekintzak, izaera banakoa dute nagusiki, eta horregatik kolektibo bezala haren eraldaketareko ahalmena lausoturik geratzen da. Batez ere, ez dago hiritar antolatuen eta tarteko eragileen eginkizuna jasotzen duten ekintzarik.
- Landutako barrutien zeharlerrotasunik ez da begiesten, eta Sail zehatzekin lotzen da haien garapena. Nahiz eta partekatatu planteamendu horrek zerbitzu eta politiken diseinuan, inplementazioan eta parte hartzea integratzea izan duela helburu, honako premia hau ere nabarmentzen da: **silo-politika bat bukatzea “gaien” banaketa bati lotua, zeinek eragiten duen premiei era integralean ez ekitea**.
- Ez dira begiesten barruti horietan dagoeneko burututako prozesuak, zeinek balio lezaketen partaidetzaren, metodologiaren eta abarren praktika onak argitzeko. Ildo horretatik honako hau nabarmentzen da: beharrezkoa dela aurreko legegintzaldietan bai beste instituzio batzuek edo mugimendu hiritarrek burututako prozesuak aitortzea.
- Partaidetza eransteko lehenetsutako bezala aurkezten diren lerroak orientagarri bezala hartu beharko lirateke partaidetza-prozesu espezifikoak zabaltzearen kontura deskribatutako barruti bakoitzerako, non pertsona, eragile eta abarren kopuru handiagoak parte hartu ahal izan dezan.

OSASUNA

Jasogabeak	Garatzekoak
<ul style="list-style-type: none"> ○ Ez daude begietsita era parte-hartzailean zerbitzuak edo politikak diseinatzeak eskatzen dituen baliabideak (ekonomikoak, pertsonalak) ez eta denbora ere. ○ Bitarteko eragileei eranstea falta da. ○ Alor sozio-sanitarioa planteatzerakoan, gizarte-langileak eranstea kudeaketa integralagoa egin dadin. ○ Osasun-zentroetan teknologia berriak aplikatzea. ○ Osasunaren alorrean egiten den partaidetza, gaur egun foro tekniko eta aholkuen bitartez bakarrik kanalizatzen da eta askotan kexak eta eskaerak jasotzera soilik mugatzen da. ○ Alor honetako esperientzia arrakastatsuak. ○ Elkarteen eta kolektiboen ahalduntzea erantzunkidetasunerako. ○ Partaidetza toki-mailan lantzearen beharra, tokiko administraritzaren eta osasun zentroaren arteko erlazioa zehaztuz. ○ Dauden protokoloen zabalkunde handiagoa bai eta osasun irtenbide hautazko desberdin batzuen artean hautatzeko aukera. ○ Komunitate kultural desberdinak kontuan hartzea. ○ Osasun arloko profesionalen funtsezko eginkizuna. ○ Nola egin partaidetza osasunaren arloan bere barruti propioa gainditu eta gizartera irekitzea (gaixotasun prebentzioa, ohiturak,...). ○ Osakidetza birdefinitzea, osasun-laguntzaz harago. ○ Gaixoen elkarreak eta haien senitartekoenak kontuan hartzea falta da. ○ Ohitura osasungarrien eta prebentzio sail bat falta da. Prebentzioa azpimarratzea beharrezkoa da. “Hobe prebenitzea sendatzea baino”. ○ Osasunaren integrazioa politika publiko guztietan, ekintza publiko guztiek osasun publikoan duten eragina jasoz (adibidez, Pasaiaiko kanpo-portua). ○ Aurreko agintaldian egindakoa balioan jartzea, hiritar partaidetzan egindakoa zuzendaritza sailetan egituratuta. 	<p>Elementu informatzaileak (ez bakarrik kostuak) gardentasunean sakontzeko prozeduren soiltasun eta sinplifikaziotik eta hizkuntza irisgarritik.</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Osasunaren ikuspegi zabalagoa, bizitza-ohituretatik harago doazen faktoreak. Osasun mentala eta emozionala, soziala, laborala... Hirigintzari lotutako osasuna, birsortze sozio-hiritarra: hiri adiskidekorrak. ○ Erantzunkidetasunaren ikuspena gehitzea ondo dago (osasuna ez da Osasun Sailaren monopolioa), baina beti ere argi uzten bada erantzunkizuna ez dagoela berdin banatua (osasun publikoa Administraritzaren erantzunkizuna da). ○ Gaixotasun kronikoen prozesuen eta heriotzaren hurbileko fasearen kontsiderazio handiagoa. ○ Nola eraiki eta doitu makineria: Osasun-zentroak- Gizarte-Zerbitzuak- Hezkuntza-Elkarreak. ○ Gehiago azpimarratu partaidetza nola sortzen eta kanal gehiago nola bideratu eskaerak egiteko, iradokitzeak, etab. ○ Beste Administraritzekiko lankidetzak. ○ Osasun arloko profesionalen artean parte hartzeko gaitu eta gaitasunak garatzea. ○ Gaixoa eragile aktibo bezala. Osasun-sisteman herritarra laguntza-eragile izan daiteke zentzu zabalean, bai eta erabaki partekatuetan hartzen ere (medikuaren ezagutza gaixoaren esperientziarekin bat egitean adibidez). ○ Osasunetik ongizaterantzko zeharlerrotasuna (gizarte-ikuspenaren eransketa).

IKASKUNTZA

Jasogabeak	Garatzekoak
<ul style="list-style-type: none"> ○ Komunitatean egiazko eragina izango duena partaidetza espiritua ikasi eta garatzeko metodoak. ○ Partaidetzari etekina ateratzeko eta ondorio bideragarriak eta berrikusgarriak eskuratzeko kanalak eta formak. ○ Hezkuntza-sistemari edukien ardatz moduan partaidetza eranstea, lehen hezkuntzatik hasita haurren gaitasunak indartzeko: partaidetza- eta hiritartasun-balioen heziketa. ○ Irisgarritasuna eta aniztasuna liburuetan. ○ Iragazkortasun handiagoa hezkuntzaren arloan. ○ Beharrezko Gaitasun beharrezkoak: sormena, espiritu kritikoa,... ○ Teknologia berriak (horiek kudeatzen eta horiekin lan egiten ikasi). ○ Kontsumo arduratsua. ○ Prestakuntza-zentroak eta heziketa-zentroak partaidetza lantzeko guneak izateko beharra aniztasunaren arabera. ○ Errentagarritasun positiboa. ○ Egunerokoan moldatzen ikastea. ○ Zeregin garrantzitsua duten barrutiak ez dira islatzen (eskola-kontseiluak, etab.) ○ Nola desikasi. ○ Aldaketaren beharra hezkuntza-ereduan. 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Ardatzen zehaztasun eta sakontasun handiagoa, modu berezian ezarpenari dagokionean. ○ Hiritarren ekintzak orokorregiak dira. ○ Erakundeen arteko lankidetzak. ○ Eskola partaidetza-gune bezala (“parte-hartuz ikasi”): partaidetzaren kultura, pedagogia parte-hartzailea. ○ Hizkuntza irisgarria, erraza, ulergarria. ○ Irakasleriaren rol berria eta hari loturiko gaitasunak. ○ Enpresen eta gizarte eragile esanguratsuen ikuskera berekin daraman partaidetza-eredua eta bere papera hezkuntza eragile bezala. ○ Barne-komunikazioa Jaurlaritzako Sailen barruan. ○ Ikaskuntza, aisia eta partaidetzarako beste gune batzuk faboratzea ○ Eredu hautazkoen partaidetza sustatzea eta elkarlaneko sinergien bilaketa ○ Guztiak ondare pertsonalaren inguruan egin beharko luke bira, baina nola artikulatu hori? ○ Hezkuntza-sistema: gizarte, irakasleria, ikasleria, gurasoen,... arteko nahasketa. Ikasleria ez da soilik erabaki objektu izan behar, baita erabaki subjektua ere. ○ Ikaskuntza bititza osoan zehar zabaltzen da.

INGURUMENA

Jasogabeak	Garatzekoak
<ul style="list-style-type: none"> ○ Nola erantsi partaidetza hiritarra ingurumenaren barrutian ez bakarrik Jaurlaritzaren Sailetan, baita Aldundiaren eta Udalenetan ere. ○ Herritarren partaidetzaren funtzioen eta bideen zehaztapena, partaidetza kanalak, etab. Nola garatzen da hiritarren eransketaren prozesua. ○ Funtzio publikotik produktuen zaharkitzea kontrolatzea. ○ Sentsibilizazioa eta praktika koherentea garapen jasangarriarekiko. Adibidez, nola egin hortik datozen hiritar ekimenak eta bertan ateratako edukiak administraritzetan iragazteko. ○ Baliabide eta bitartekoak ingurumenaren sustapenerako (adibidez, zenbait herritan garraio publikoa haurrentzat dohakoa da). ○ Herri-konsulten eginkizuna eta gaitegi mota horrekiko haien lotura. ○ Partaidetzarako metodologiak eta arrakastatsuak izan diren esperientzien bilduma: Partaidetzarako Esku-hartze Guneak (PEG). ○ Enpresen zeregina eragile erantzunkide gisa. ○ Ekintzen denborazko dimentsioa aztertzea. ○ Administraritzaren eta herritarrentzat agertzen den jardueren arteko adostasun falta. Herritarren aldetik orokorrak diren erantzukidetasun ekintzak sartzen dira, baina ez hainbeste partaidetzakoak direnak. ○ Gaur egun dauden ekonomia sozial eta solidarioko forma hautazkoak eratzea haien antolakuntza erraztuz (mugikortasuna, irisgarritasun berdea,...). ○ “Guztiantzako etxebizitza” filosofia antolamenduarekin lotzea. ○ Poliki-poliki kontzientzia sortuz abiatutako hiritar-ekimenak, dokumentatutako herri-ekimen horiek jaso ezer asmatu gabe. ○ Ingurumena gizarte-kohesioarekin eta osasunarekin harremanetan jarri beharra dago, eta ez kontrajarri enpleguarekin edo garapen ekonomikoarekin. 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Gardentasun handiagoa, hondakinen datuekin adibidez ... ○ Partaidetza elkarrekin lantzeko kontzientzia eta prestakuntza. ○ Hiritarrek erabakiak hartze-prozesuan parte hartu ahal izateko bideak (adibidez, hiria ez da gune propio gisa garatzen baizik eta hiritarrei bizkar emanik erabakitzen dira antolamenduak). ○ Partaidetzaren irismena neurtzea. ○ Aldaketa kudeaketa-prozesuan, ingurumenaren barruan partaidetza-prozesua irekiz. Prozesurik ez hasi lanpostu bat bete edo ez bete erabakitzeko bada, edota zein diseinurekin, baizik eta hiri-plangintzaren moduko gai esanguratsuetan, herritarrei beharrezko informazioa eta testuingurua eskainiz. ○ Hiritartasun-atala, indartu beharreko partaidetza-mekanismoa erantsiz (adibidez, Agenda 21). ○ Nola gehitu partaidetza-prozesuetan operazio eta interes handietatik at dauden eragileak. ○ Administraritza / herritarrak bipolaritasuna alde batera utzi: ingurumen-gaietan bat egitearen kultura sustatzeko dinamikak, giroak, klima, espazioak,... (dimentsio kultural zabalagoa).

GIZARTE KOHESIOA

Jasogabeak	Garatzekoak
<ul style="list-style-type: none"> ○ Administraritzaren zurruntasun gehiegizkoak zenbaitetan moldatzeko arazoak sortzen ditu, gizarte beharrei moldatu eta modu lasterrean erantzuteko. ○ Arartekoaren eginkizun potentziala eragile dinamizatzaile bezala. ○ Ardura eta etika politiko handiagoa. ○ Ezarriak dauden zerrendetan sartzen ez diren situazio pertsonalei erantzuna ematea. Klasifikatzea beharrezkoa bada ere kudeaketa efizientziaz eta eraginkortasunez egin ahal izateko, batzuetan irizpideak ezartzen dira, taldekatu egiten da, eta horrek bazterketak sortzen ditu. ○ Konpromisoen garapena falta da, ez dira aurrera eramateko bideak ezartzen (adibidez, autokudeatzaileen partaidetza-kanalak): eszenatoki idiliko horretatik nola igaro errealitatera (tartea oso handia da). ○ Ereduak ez du erakundezkoa izan behar, baizik eta zeharlerrokoa Sailen eta administraritzaren maila desberdinen artekoa. ○ Hiritarren aldetiko ekintzak paternalistegiak dira, gogoeta kritikoa eta proaktiboa izatea gehitu beharko lirateke. 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Gazteen (gazteen ezegonkortasunak gizarte-kohesioa arriskuan jartzen du) zein 50 urtetik gorako pertsonentzako enpleguari laguntzea. ○ Gizarte-kohesioaren elementu eta politiken inguruan partaidetza arduratsua sustatzea (adibidez, DBE). ○ Boluntarioritza sustatzea. ○ Partaidetza egituratuagoa "itxura hutsean" gera ez dadin. ○ Partaidetzaren balioa, argiagoa eta eraginkorragoa, politika publikoekin desberdintasunek aurrera egitea saihesteko. ○ Nola eragingo du Liburu Zuriak dagoeneko badiren kanaletan (mahaiak, kontseiluak...). ○ Enpresen gizarte-eginkizuna aitortzea eta debatean sartzea. ○ Aldaketa-kultura sustatzea hiru mailatan: pertsonak, enpresak, eta gizartea eta diseinu politikoa. ○ Gizarte-kohesioaren onuren inguruan sentsibilizatzea, ikusgaiagoa egin. Gizarte-kohesioa erabakigarria da Administraritzarentzat eta partaidetzarentzat. ○ Emakumearen eginkizuna gizartean garatzea zuzendaritza-mailatan erabakia hartzeko ahalmenarekin.

GARAPEN EKONOMIKOA

Jasogabeak	Garatzekoak
<ul style="list-style-type: none"> ○ Gizarte adimenduna zer den ondo zehaztea. ○ Nola lortu zerga-sisteman aldaketa egitea hiritarren partaidetza kontuan izanez. ○ Pertsona banakoak bezero gisa. ○ Milurtekoaren helburuak lortzea. ○ Nazioartekotzean oinarritutako eredu “glokal” egokia. ○ Gardentasun nabarmena. ○ Zein da partaidetza hiritarra honako alor hauetan bultzatzeko modu zehatza? Adibidez, nola lortzen da ekintzailatza-prozesuetan edo nola lagundu elkarri benetan (formula interesgarria negoziazio sortzailearena izango litzateke). ○ Ekonomia berdea. ○ Lehen sektorearen garrantzia. ○ Diru publikoaren kudeaketa eredugarriari erreferentziak Administrazioaren aldetik. ○ Antolatuta dagoen hiritartagoari ahotsa eta kanalak ematea. ○ Izapidetza sinplifikatzea eta antolatzeko herritarrengan euskarritzea: laugarren sektorearen ekarpena. ○ Konpromiso, ekintza eta zehaztapen handiagoko aditzak (bultzatu, sustatu, ...). ○ Hiritarren aldetiko ekintzetan, ez dago argi lortzeko helburuak diren ala hiritarrek alor guztietan parte hartu ahal izateko baldintza diren. 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Administrazioaren eta gizarte zibilaren tolerantzia edo zerga-iruzurra. ○ Hiritarrek partaidetza-prozesuetan parte hartzeko behar duten konpromisoa ez dago behar adina islatua. ○ Prozesuetan aniztasuna eta hiritar ez antolatuen partaidetza bermatzeko deialdi anitza. ○ Enpresa-etika apur bat, bere horretan kontraesana zirudiena. ○ Talentua sustatzen indarra egitea. ○ Herri estrategia-partekatua sustatzea, era garden eta erabakian aldaketaren kultura gidatuz. ○ Ekonomia parte-hartzailean indar gehiago egitea (kooperatibak, crowdfundinga, denbora-bankuak,...) ○ Erakunde guztietan bikaintasun- eta berrikuntza-kulturaren kudeaketa bizkortzea. ○ ETEei laguntza-mekanismoak. ○ Erosketa publiko arduratsuaren irizpideak eranstea. ○ Partaidetza enpresan (ideiak, kultura,...). ○ Kontsumitzailearen eginkizuna, eskaera zertan egiten duen (aldaketa-ahalmen handia sistemarako). ○ Siloak nola gainditu, balioa ekar dezakeen eragile bezala “besteak” aitortzen ez bada. ○ Egituratutako lankidetzak-guneak balio-kate osoaren partaidetzarako (adibidez, ZTBESren berrantolakuntza berriari unibertsitateak sistematik deskonektaturik daudela aipatzen da).



6) HEDATZE KONPROMISOEN balorazioa

Liburu Zuriaren beste sail batzuetan gertatzen den bezala hurbilpen egokia izanik, honako hau kontsideratzen da: desiragarriagoa izango zatekeela **zehaztapen-maila handiagoa nola hedatzearen helburuetan hala haiek inplementatzeko moduan**. Pertsona parte-hartzaile batzuek honako hau azpimarratzen dute: balio handiagoaren ekarpena egingo zukeela **epeak eta egikaritze-egutegi bat gauzatzeak**, baliabidea eta metodoari lotuz, hartara prozesu horren epe laburrerako emaitzak argitasun handiagoz begiztatzeko.

Ildo horretatik, honako hau planteatzen da: **bideak, mekanismoak, metodologiak eta baliabideak zehazteko premia**, zeinek ahalbidetuko duten Liburu Zuriko konpromisoak hedatzea, honako hauek nabarmenduz:

- **Instituzioen eta administraritzaren arteko lankidetzarako tresnak** (organo batetik hasi eta dekalogoraino) non akuilu izango diren ardurak eta atazak esleituko diren.
- **Gune (fisiko edo birtualak) sustatzea** esperientziak partekatu eta kolektibo oso parte-hartzaileak beste batzuekin elkartzeko (adineko pertsonak aipatzen dira), eta hiritarren ekimenak egitura administratiboetan iragaz daitezen utzi (giza kateak, kontsultak, etab.)
- **Hiritarren Arretarako eta Administraritzaren Berrikuntza eta Hobekuntzako Zuzendaritzaren rola** Eusko Jaurlaritzaren esparruan partaidetza-praktika onak sustatu, gaitu, erraztu, esperimendu, lagundu, detektatu, partekatu, aitortu eta hedatzeko.
- **Euskadin partaidetza sustatuko duen organo bat sortzea**: praktika eta ekimenak eta aitortzea, metodologiak eta erremintak biltzea, sentsibilizazioa eta komunikazioa, etab.
- **Erantzukidetasun zentrokidearen eredutik** jardutea, non aldatu ahal izango den beste instituzio, organismo edo erakunde batzuetara prozesuan jasotakoa, eta horiek eratzten dituzten pertsonak beren eragina biderka dezatela parte hartzen duten beste erakunde edo barrutietan.

Era berean honako hau kontsideratzen da: **hedatzearen aurretiazko konpromiso batzuk badirela, gehiago garatu eta esplizita zitezkeenak**:

- **Baloretan hezitzearen konpromisoa, partaidetza**. Partaidetza deserosoa da, eta aldaketa, berrikuntza, nola administraritzan hala gizarte zibilean, kontzientzia-hartze partekatu baten bitartez bakarrik eman daiteke gune publikoa eta “izate soziala” berreskuratzerantz bideratutako praxiari batuta.
- **Gardentasunarekiko konpromisoa** (informazioa, open data, kode etikoa, etab.) eta partaidetza eta haren emaitzak Gobernuaren oraingo politikari erantzea eta haren plangintza eta kudeaketako haren legeei eta prozesuei.
- **Eraldakuntzarekiko konpromisoa** (eraldatzeko asmoa eta borondate irmoa).

3 balore berri eransteko asmoa ere badu hala nola: irekitasuna, konfiantza eta inklusibitatea Liburu Zuria sortze-prozesuko baloreei haren hedatze-faserako.

Azkenik, premia bat azpimarratzen da: Liburu Zuri hau, beste edozein partaidetza-dinamika bezala, **etengabeko berrikuste-prozesu** baten mendean ezarri behar dela, zeinek sustatzen duen



partaidetza-eredua egonkortzeko balioko duen, eta erantzunkidetasunetik jasotako ekintzak eta konpromisoak garatzeko guztion beharra duen.



V. ERANSKINA. Terminoen glosarioa

V. ERANSKINA. Terminoen glosarioa

- **Partaidetzaren eragileak:** maila handiagoan edo txikiagoan, horietako edozeinek sustatutako prozesu parte-hartzailean esku hartzen duten alderdiak: politikariak, teknikariak, erakundeak, elkartu gabeko herritarrak eta abar.
- **Eragile Sustatzailea:** ekimen bat hura garatzeko konpromisoarekin abiarazten duen pertsona edo kolektiboa. Partaidetza-prozesuaren hasiera-hasieratik prozesu horrek azken erabakian izango duen irismena eta eragina erabakitzea eta jakinaraztea izango da sustatzailearen eginkizuna.
- **Kontzientzia soziala:** pertsona batek bere komunitateko gainerako kideen egoerari buruz duen ezagutza. Kontzientzia soziala duen gizabanakoak badaki inguruneak pertsonen garapenean lagundu edo hura kaltetu dezakeela.
- **Erantzunkidetasuna:** erantzukizun partekatuari erantzunkidetasun deritzo. Erantzukizun hori bi pertsonari edo kolektibori edo gehiagori dagokiela esan nahi du horrek. Erabaki politikoak hartzeko gobernuen eta herritarren arteko lotura eraginkorra eta egonkorra, partaidetza-prozesu baten edo gehiagoren emaitza gisa.
- **AMIA:** Ahuleziak, Mehatxuak, Indarrak eta Aukerak hitzen inzialek erro karratu batean osaturiko akronimoa. Enpresa edo proiektu baten egoera aztertzeko erabiltzen den metodologia bat da, horien ezaugarriak aztertuz.
- **Demokrazia zuzena:** herriak zuzenean eta bitartekorik gabe jarduten du bere gobernuan. Herritarrek legeak onartu edo indargabetu eta funtzionario publikoak aukeratu edo kargugabetzeko aukera izango lukete.
- **Gaitzuste:** oro har, politikarekiko, Konstituzioarekiko eta alderdi politikoekiko gaitzespena, eszeptizismoa eta konfiantzarik eza.

- **Deslegitimazioa:** balioa edo legitimitatea kentzea. Kolektibo/objektu jakin baten gainean duen boterea, indarra edo egiazkotasuna galtzea.
- **Ahalduntzea:** bizitzako baldintzak hobetzeko xedearekin herritarrei boterea emateko zentzuaren haritik, prozesu horren bidez pertsonak beren gaitasunak, konfiantza, ikuspegia eta protagonismoa sendotzen dute talde sozial gisa, bizi dituzten egoeren barnean aldaketa positiboak sustatuz.
- **Gobernantza:** erabakiak hartu eta erabaki horiek ezartzeko –edo ez– erabiltzen den prozesu honek garapen ekonomiko, sozial eta instituzional iraunkorraren garapena lortzea du helburu, hala, estatuaren, sozietate zibilaren eta merkatu-ekonomiaren arteko oreka bilatuz.
- **Infoxikazioa:** informazio-gainkarga edo informazio-gehiegikeria.
- **Herri-ekimena:** pertsonak lege-ekimenak aurkezteko aukera izatea, beren kongresuetako herri-ordezkariek ez izan arren; hala, kasuan kasuko ganbera legegileak sinadura-kantitate jakin batekin bermatutako lege-ekimen horiek kontuan hartu ahal izango ditu.
- **Liburu Zuria:** Gizarte osoarentzat oso interesgarria den herri-partaidetzaren gisako politika zehatz bati buruzko proposamen ofizial bat jasotzen duen (ekintza zehatzak eta konpromisoak) eta politika horren inguruan ekintza bateratuko eta zehatzeko proposamenak barne hartzen dituen dokumentua. Arazo bat ebazteko edo erabaki bat hartzeko xedea duten erreferentziazko txosten gisa erabiltzen dira, baita gobernuak legeak txertatu aurretik dituzten lehentasun politikoak aurkezteko baliabide gisa ere. Liburu Zuri bat argitaratzeak gai politiko baten inguruko iritzia publikoa frogatzeko balio dezake, baita gobernuak hark izan dezakeen eragina neurtzeko ere.
- **Esparru kontzeptuala:** proiektu bat nola eta zergatik egin behar den eta haren jarduerak nola ulertzen ditugun pentsatzeko modu antolatu bat da. Proiektu bat modu jakin batean zergatik garatzen ari garen azaltzen laguntzen digu.

- **Sindikoa:** herritarrek Udal Administrazioarekiko harremanetan dituzten eskubideak defendatzen dituen pertsona. Gaur egun, herritarren defentsarako eta aholkularitzarako zerbitzu independente gisa eskaintzen da Sindikatura, eta modu irisgarrian eta doan eskaintzen da, elkarrizketa, orientazio, txosten eta gomendioen bitartez.
- **Teknokrazia:** Herrialde industrialetako sistema politiko bereizgarri bat da, eta herrialde bateko gobernu-postu nagusiak kasuan kasuko ministerioei edo gerentziei dagozkien gaietako teknikariek edo espezialistek bete beharko lituzketela proposatzen du.
- **Top down/Bottom up:** «goitik behera» eta «behetik gora»; *top-down* estrategian oinarritutako sistema bat gauza guztiek nola funtzionatuko duten barne hartzen duen ikuspegi global batekin abiarazten da. Gero, sistemaren osagai garrantzitsuenak zein izango diren zehazten da. Pixkanaka, alderdi txikienen funtzioak hobetzen eta zehazten dira, sistema osoa eraiki arte. Bottom-up zati txikienetatik abiatzen da, hau da, xehetasunetatik hasten da, ikuspegi globalaren ideiarik izan gabe. Arazo txikietarako irtenbideak zehazten diren heinean, irtenbideak elkarrekin lotzen eta zenbait azpi-arazorentzako irtenbideak sortzen dira. Mailetan gora egin ahala, sistema orokorra modu «naturalean» eta «adimentsuan» gailentzen joaten da.
- **Zeharkakotasuna:** Administrazioko zenbait kudeaketa-eremurentzat interesgarriak izan daitezkeen politikak ezarri eta garatzeko metodologia.



VI. ERANSKINA. Partaidetzari buruzko bibliografia

VI. ERANSKINA. Partaidetzari buruzko bibliografia

- Gramberger, M. (2001) Participación ciudadana: Manual de la OCDE sobre información, consulta y participación en la elaboración de políticas públicas, Paris: Ekonomiako Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundea.
- Europako Gobernantzaren Liburu Zuria. Europako Batzordea (2001)
- Ahmed, N. (2006) An overview of e-Participation models: United Nations, Division for Public Administration and Development Management (DPADM).
- Freschi, A.C., Medaglia, R., et al. (2009) eParticipation in the institutional domain: a review of research. Analytical report on eParticipation research from an administration and political perspective in six European countries: DEMO-Net.People & Participation.
- INVOLVE (2005) People & Participation. How to put citizens at the heart of decision-making, London: Involve
- Martí, J.L. (2008) “Alguna precisión sobre las nuevas tecnologías y la democracia deliberativa y participativa”, IDP. Revista de Internet, Derecho y Política, 6. zk.
- Millard, J., Meyerhoff Nielsen, M., et al. (2009) European eParticipation. Summary Report, Study and supply of services on the development of eParticipation in the EU, Bruselas: eGovernment and CIP Operations, European Commission.
- Alberich Nistal, T. (2004). Guía fácil de la Participación Ciudadana. Manual de Gestión. Madril: Dickinson.
- Parés I Franzi, M. (2009). Participación y calidad democrática: Evaluando las nuevas formas de democracia participativa. Bartzelona: Ariel.
- Pindado Sánchez, F (2008). La Participación Ciudadana es la Vida de las Ciudades. Bartzelona: Ediciones del Serbal.
- Sánchez Alonso, M. (2007). La participación, metodología y práctica. Madril: Editorial Popular.



VII. ERANSKINA. Liburu Zuriaren lantze- prozesuan parte hartu duten erakundeak eta pertsonak

ERANSKINA VII. Liburu Zuriaren lantze-prozesuan parte hartu duten erakundeak eta pertsonak

Parte - hartzaileak

	Nombre / Izena	Apellido / Abizena
1	Ane	Abarrategi Zaitegi
2	Miren Begoña	Abasolo Roca
3	Karmele	Acedo Gil
4	Xabier	Agirre
5	Amaia	Agirre
6	Olaia	Agirre Zabaleku
7	Amaia	Agirreolea
8	Ana	Aguirre Uriz
9	Nagore	Aguirre Velasco
10	Sarai	Agustín
11	Jon	Aiartza Zallo
12	Danel	Alberdi
13	Karitte	Alegría
14	Patricia	Alkorta
15	Xavier	Allirot
16	Maite	Alonso Arana
17	Ainhoa	Alonso Basaldua
18	Juan Carlos	Alonso Quilchano
19	Nekane	Alonso Santamaría
20	Fernando	Altamira Basterretxea
21	Garikoitz	Alvarez
22	Eider	Amezua Urroz
23	Lander	Amorrortu
24	Zalao	Anda Odiaba
25	Norma	Andrade
26	Ricardo	Antón
27	Amparo	Antón Movilla
28	Aitor	Apraiz Imatz
29	Josu	Aramberri Miranda
30	Idoia	Aranburu
31	Uxue	Arbe
32	Nuria	Aresti
33	Kepa	Aretxabala

34	Asier	Arevalo
35	Rosario	Arguelles,
36	Antton	Arka Montoro
37	Natxo	Arnaiz
38	Isabel	Arrillaga Viguria
39	Lino	Astobieta
40	Lexuri	Ayarza
41	Sabino	Ayestaran Etxeberria
42	Victoria	Azpiroz Zabala
43	Koldo	Azurmendi Sanz
44	Idoia	Bahón Ubieta
45	Jose Ignacio	Bañuelos Ibáñez
46	Gotzon	Baraia-Etxaburu Artetxe
47	Cristina	Barrasa Latorre
48	Alberto	Barrios Ayala
49	Álvaro	Barrios Medina
50	Sonia	Barrondo Ayesta
51	Raquel	Barroso
52	Anabella	Barroso Arahuetes
53	Mikel	Barturen Nuño
54	Peru	Bazako Atutxa
55	Nerea	Begoña Lopategi
56	Joxerramon	Bengoetxea
57	Jone	Berriozabal Bóveda
58	Javier	Bikandi Irazabal
59	Joseba	Bilbao Gaubeka
60	Alina	Blanco
61	María José	Blanco Balerdi
62	María	Blanco Egaña
63	Piter	Blanco González
64	Nadjib	Bouastia Boughaba
65	Connie	Boulandier
66	Simon	Bright
67	Ane	Bustinduy Ojanguren
68	Mikel	Cabello Pérez
69	Javier	Camacho
70	Antonio	Campos Illarramendi
71	Esther	Canarias Fernández-Cavada
72	Richard	Cano
73	Raquel	Capapé
74	Josean	Castaño Riezu

75	Myriam	Castillo Oiarzabal
76	Sonsoles	Castrillo Ramonell
77	Pilar	Corcuera Villacián
78	Markel	Cormenzana
79	Ruth	Cortés
80	Juan Carlos	Cuevas
81	Maria Concepción	De La Peña Ortega
82	Inmaculada	de Miguel Herrán
83	Maria Jesús	de Orbe Ferreiro
84	Maria	del Rio Pereda
85	Arminda	del Valle
86	Rosario	Díaz de Cerio Ruiz de Urra
87	Liseth	Díaz Molina
88	Elsa	Díaz Rogado
89	Maite	Domingo Prieto
90	Alfonso	Dubois
91	Sara	Eguiluz Cerrillo
92	Marlen	Eizaguirre Marañón
93	Mireia	Elkoroiribe
94	Garazi	Elortza
95	Denis	Elortza Gorrotxategi
96	Mireia	Espiau
97	Gorka	Espiau Idoiaga
98	Pablo	Estefanía Angulo
99	Ziortza	Etxabe
100	Jabier	Etxaburu
101	Rafael	Etxebarria
102	Begoña	Etxebarria Madariaga
103	Hicham	Fahem
104	Claudia	Favela
105	Eukene	Fernández
106	Laura	Fernández
107	Lola	Fernández
108	Lorena	Fernández Álvarez
109	Ana	Fernandez Barrachina
110	Rosa	Fernández Cerdán
111	José Luis	Fernández de Pinedo Landa
112	Luis	Fernández Ostolaza
113	María	Fernández Rodríguez
114	Maria Josefa	Ferreiro Ferreiro
115	Francy	Fonseca

116	Janire	Fonseca
117	Nicola	Foroni
118	Antxon	Gallego Solaetxe
119	Estibaliz	Gandariasbeitia
120	Ainhoa	Garagalza Moraza
121	Andoni	Garaizar
122	Naiara	Garate Mantzizidor
123	Isabel	Garcés Ibáñez
124	M ^a Ángeles	García
125	Maria Jose	García Abasolo
126	Enara	Garcia García
127	Maria Isabel	Garcia González
128	Valeria	García-Landarte
129	Martin	Gartziandia Gartziandia
130	Imanol	Goenaga Egibar
131	Javier	Goikoetxea Seminario
132	Andere	Goirigolzarri Garaizar
133	Olga	Gómez Gerbolés
134	Juan Luis	Gómez González
135	Mónica	Gómez Hervias
136	Gema	González
137	Irene	González
138	Alejandro José	González Hipólito
139	Estrella	González Presa
140	Vanesa	González Cano
141	Ignacio	Granja Echeverria
142	Onintze	Guridi Otsoa
143	Maria	Gutiérrez Manrique
144	Garbiñe	Henry
145	Rafael	Hernández Irurzun
146	Javier	Herrero
147	Salvia	Hierro Zatón
148	Eider	Hormaetxea
149	Pedro	Ibarra
150	Amaia	Ibernia Belamendia
151	Aitziber	Indart
152	Jon	Insausti Maisterrena
153	Javier	Iñiguez
154	Esther	Irigaray Arrate
155	Ion	Irurzun
156	Juan	Isasi Urdangarin

157	Julen	Iturbe
158	Ager	Izagirre Loroño
159	Irantxu	Jauregi
160	Guillermo	Jubierre Altable
161	Kepa	Korta
162	Beatriz	Lafarga
163	Ibai	Larrabe Sangroniz
164	Eider	Larrañaga
165	Luchi	Larrazabal
166	Karmele	Larrea Aiz
167	Saioa	Larrea García
168	Aitziber	Lazarobaster Olaizola
169	M ^a Pilar	Legarra Kortajarena
170	Garikoitz	Lekuona Izeta
171	Arantza	Lekuona Zabala
172	Osane	Lizarralde
173	Amaia	Lizoain Rodríguez
174	Alexander	Llaguno Aparicio
175	Ana	López
176	Iván	López Arenas
177	Gonzalo	López Revuelta
178	Ana Belén	López Estalayo
179	Daniel	Loredo Echabe
180	Juan José	Lozano Pérez
181	José Antonio	Maisueche Leceta
182	Enrique	Maíz Olazabalaga
183	Miren	Mancisidor Gabirondo
184	M [´] Angel	Manovell
185	Manuel	Marañón Gómez
186	Mikel	Martija Rekalde
187	Goio	Martín
188	M ^a José	Martín
189	Janire	Martín Ruiz
190	Laura	Martín Sánchez
191	Irene	Martín Tirado
192	Iñigo	Martínez Arroyo
193	Ruth	Martínez Riaño
194	Adriana	Martínez Sans
195	Nerea	Martínez Santos
196	Jorge	Martinez Suarez
197	Blanca	Mata



198	Elo	Mayo
199	Juan Carlos	Melero
200	Alberto	Mendavia González
201	María Luisa	Mendizabal
202	Nerea	Mendizabal
203	Alfonso	Menoyo
204	Jesús	Mesa Ortiz
205	Simón	Mesanza Legarda
206	Begoña	Mínguez
207	Mirian	Molina Mestanza
208	Iciar	Montejo Romero
209	M ^a Antonia	Montiel
210	Pablo	Moratalla Santamaría
211	Jonatan	Moreno Carranza
212	Judith	Moreno Zumalde
213	Jose Antonio	Morujosa Santos
214	Yolanda	Muñoz
215	Luis	Muñoz
216	Francisco Javier	Muñoz Rodríguez
217	Zelai	Nikolas Ezkurdia
218	Begoña	Nogueira
219	Roberto	Nuño Solinis
220	Jon	Olaizola Azkarate
221	Ziortza	Olano Astigarraga
222	Sara	Oliver Vázquez
223	Nerea	Ollokiegi
224	José Juan	Orbe
225	José Luis	Orive
226	Jon Markel	Ormazabal Gaztañaga
227	Catalina	Ortega Martín
228	Jorge	Ortiz de Urtaran
229	Leire	Ortiz de Zarate Barañano
230	Iñaki	Ortiz Sánchez
231	Jorge	Ortiz Urtaran
232	Amagoia	Osinalde
233	Ainara	Osoro Txurruka
234	Noemí	Ostolaza
235	Ana	Otadui Biteri
236	Maidier	Otamendi Tolosa
237	Aloña	Otero Taberna
238	Alberto	Otxoa



239	Josune	Oyarbide
240	Rubén Enrique	Padilla Alvarez
241	María Teresa	Paino Ortuzar
242	Patricia	Panadero
243	Nuria	Pascual
244	Marta	Pastor Blancou
245	Begoña	Pecharroman
246		Pedrini
247	Claudia	Pennese
248	Dioni	Perera
249	Ainara	Pérez
250	Cristina	Pérez de San Román
251	Ana M ^a	Perez Garcia
252	Luis	Petrikorena
253	Mónica	Pinedo
254	Igone	Porto
255	Maria	Prat Vives
256	Teresa	Querejazu Iturburu
257	Manuel	Quevedo
258	Mentxu	Ramilo Araujo
259	Begoña	Rio Garcia
260	Iñigo	Rodríguez
261	Unai	Rodríguez Santa Cruz
262	Jorge	Roz
263	Arantza	Ruíz de Larrinaga
264	Alberto	Ruíz de Olano Ruiz de Larrea
265	María Jose	Ruíz Tejado
266	Josemari	Ruíz Urchegui
267	Mariasun	Ruíz Vidal
268	Arantxa	Sainz de Murieta
269	Eva	Salaberria
270	Javier	Salaberria Urbe
271	Elena	Sánchez Fernández
272	Yolanda	Sánchez Tabernero
273	Ana	Sancho
274	Arantzazu	Santos
275	Pilar	Sanz Cruz
276	Vinca	Sanz Perez
277	Oscar	Seoane Icaran
278	Iciar	Serrano López
279	Juan Carlos	Sisniega Iraola



280	Mónica	Soto del Río
281	Trinidad	Sukia Arizmendi
282	Itziar	Telleria Arrieta
283	Ainara	Tomasena Lasa
284	Haritz	Ugarte Aizpuru
285	Xabier	Unanue
286	Mirian	Urbietta
287	Koldobike	Uriarte Ruiz de Eguino
288	Ibon	Uribe Elorrieta
289	Zigor	Uribe-Etxebarria Lugariza-Aresti
290	Mikel	Uriguen Inunziaga
291	Izaskun	Urrestarazu Amundarain
292	José Ramón	Urrutia
293	Carmelo	Urrutia Garro
294	Aitor	Urrutia Serrano
295	Urtzi	Urrutia Ansoleaga
296	José Ramón	Varela Balenciaga
297	Azucena	Vega Amuchástegui
298	Julio	Velasco
299	M ^a Dolores	Verastegui
300	Erik	Villa Soguero
301	Carlos	Villadangos
302	Patricia	Villar López
303	José María	Villate Blanco
304	Ainhoa	Villaverde
305	Ana	Viñals Blanco
306	Mario	Yoldi Domínguez
307	Ugaitz	Zabala
308	Nerea	Zabalo Oyarbide
309	Nélida	Zaitegi de Miguel
310	Javier	Zamakona
311	Joseba	Zarraga
312	Andrés	Zearreta
313	Mikeldi	Zeberio
314	Pedro Maria	Ziganda
315	Maidier	Ziganda
316	Pilar	Zorrotzua
317	Mikel	Zubeldia Rezola
318	Aritz	Zubieta Etxezarraga
319	Leire	Zugazua Urturi
320	Cristina	Zurita Hernando



Erakundeak

	Erakundea
1	Abogacía Artesana
2	Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia
3	Agiac
4	Agirre Center
5	Agla4d
6	AGS&B
7	Ajuriaguerra 3 SLP
8	Alboan
9	Aldee
10	Alea
11	Aptes
12	Donostiako Aquariuma
13	Ararteko
14	Art & Co
15	Asoc. Kultur elkarte / N.S.C.C. kofradia
16	AmiArte Elkarte
17	Basurtoko auzo-elkarte
18	Masustegi, Caramelo eta Kobetako San Gabriel auzo-elkarte
19	Zorrotzako auzo-elkarte
20	Bilbao Metropolitarrak Birbizteko Elkarte
21	RAIS Euskadi Elkarte
22	Asteasuko Udala
23	Bakioko Udala
24	Barakaldoko Udala
25	Bilboko Udala
26	Donostiako Udala
27	Galdakaoko Udala
28	Getxoko Udala
29	Santurtziko udala
30	Tolosako Udala
31	Vitoria-Gasteizko Udala
32	Zarauzko Udala
33	Bagara Herrigintza
34	Basque Culinary Center
35	Begoñazpi Ikastola
36	Bikonsulting
37	BIOEF - OBERRI
38	BL Coach
39	Bolunta

40	Caritas
41	Euskadiko CCOO
42	Elizbarrutiko Ikastetxeak
43	CIDEC
44	Coach and Play
45	Coaching Estratégico
46	Coaching Factory
47	Code Syntax
48	ColaBoraBora
49	El Regato Ikastetxea
50	Euskadiko Gazteriaren Kontseilua
51	Euskadiko Eskola Kontseilua
52	Adimen Emozionalaren Partzuergoa
53	Consultoría Artesana en Red
54	Inmakuladako Abeslariak abesbatza
55	Idiazabal JDKA
56	Dacima
57	Dec. LaEmpresaHumana.S.A.
58	Deusto Gizarte Berrikuntza. Deusto Fundazioa
59	Dinamik Ideas
60	Bizkaiko Foru Aldundia
61	Gipuzkoako Foru Aldundia
62	Donostia 2016
63	Donostia Futura
64	EDE Fundazioa
65	Edex
66	Ehlabe
67	Elgoibarko Udala
68	Elkar Consulting SL
69	Elkartu
70	Mugarik gabeko etorkinak
71	Emun Koop. E.a
72	Enea aholkularitza
73	Entzun gure nahia
74	Etorkinekin bat
75	Etorkintza
76	Eudel
77	Farapi
78	Bilboko Auzo Elkarteen Federazioa
79	Fevas
80	María de Maeztu Forum Feminista
81	Etorkintza Fundazioa
82	Gavia Fundazioa
83	Gizagune Fundazioa



84	Novia Salcedo Fundazioa
85	Down Sindromea Fundazioa
86	Getxo Kirolak
87	Gipuzkoa Berritzen - Baketik
88	Giroa Gallery
89	Goian
90	Gorbeialde LGA
91	Grupo Servicios Sociales Integrados S.Coop
92	Gure Esku Dago
93	Harresiak apurtuz
94	Hartu Emanak
95	Hegoa
96	Helduak Adi
97	HZ Aholkularitza
98	i2basque
99	Ibaetako Lagunen Auzo Elkartea
100	Igardis
101	Ikune
102	Inèdit
103	Lankidetzarako eta Garapenerako Ekimenak
104	Init
105	Innobasque
106	Aisiazko Ikaskuntzen Institutua - Deustuko Unibertsitatea
107	Gobernantza Demokratikoaren Institutua
108	Matia Institutua
109	Iritziak Batuz
110	Bizkaiko Batzar Nagusiak
111	Kale Dor Kayiko
112	Komunikatik
113	Kualitate lantaldea
114	Kultiba
115	Kulturbide
116	Irakurketa Erraza Euskadi
117	Leioa Neuria
118	Leioako Behargintza
119	LKS Koop. E.
120	Los Arquillos Bizirik
121	Maristak Durango
122	Masdosa Equipos y Personas
123	Munduko Medikuak
124	Mondragon Unibertsitatea
125	OAZ Coaching para el cambio SL
126	Etxebizitzaren Euskal Behatokia
127	Donostiako Estrategia Bulegoa

128	Osakidetza
129	Eusko Legebiltzarra
130	Prometea SZ
131	Rais Euskadi
132	Rb3Innovación
133	S&F
134	Sartu Álava - Saregune
135	Servicios Sociales Integrados
136	Sindikoa - Gasteizko herritarren defendatzailea
137	Sinergiak Social Innovation
138	Solasgune
139	Team Academy
140	Tecnalía
141	Ttipi Studio
142	TZBZ
143	Deustuko Unibertsitatea
144	Euskal Herriko Unibertsitatea
145	UPV/EHU
146	Urtxintxa
147	Villadangos Abogados
148	Werden Inspiring Coaching
149	Zadorra Fundazioa
150	Zubizarreta Consulting, S.L.